# Goienkaria

2009ko maiatzaren 15a > Egubakoitza > VIII. urtea > 376. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Ezin dira jarri sexu nahasketa sor dezaketen izenak edo iraingarriak"



**Mikel Gorrotxategi** Euskaltzaindiko Onomastika batzordekoa >09

**G2a** Jose Mari Galanen argazkiak ikusgai Bergaran > 37

**AZPIEGITURAK** Maiatzaren 22an irekiko dute guztiz Eibar-Gasteiz autobidea > 04

**EUSKAL PRESOAK** Ekitaldia Arrasaten, Jon Agirreren 28 urteko espetxealdia salatzeko > 05

**ISTRIPUA** 88 urteko gizona hil zen atzo Elgetan, kamioiak harrapatuta > 02

**LANA** > GREBA OROKORRA

## Sindikatuek esan dute 21eko grebak arrakasta izango duela

**BAIKOR** Datorren egueneko greba deialdia egitera konprometitu dira dagoeneko bailarako 93 enpresa

**BAT EGINDA** Greba eguna gogorarazi dute asteon Arrasaten ELA, LAB, ESK, STEE, EHNE eta Hiruk bat eginda

**AGERRALDIA** Greba egiteaz gain, kale agerraldia egingo dute sindikatuek eta hainbat giza-eragilek Arrasaten > 07

**NAGUSIAK** > EGOITZA

### Ibarreko nagusiendako egoitza berria, zabaltzear

Aretxabaletan eraikitzen dihardute eta ekainaren 1ean irekiko dute; zerbitzu egingo die ibar osoko nagusiei > 05



Diplomak jaso ostean, Oñatiko unibertsitateko klaustroan talde argazkia egin zuten sarituek, erakundeetako ordezkariekin batera. MIRIAN BITERI

## Kalitatezko turismoaren alde egindako lanagatik errekonozimendua jaso dute

Eguaztenean *Konpromisoa kalitate turistikoarekin* egitasmoaren diploma banaketa egin zuten Oñatiko unibertsitatean. Bailarako 21 ostatu, jatetxe eta azpiegitura turistikok jaso zuten, kalitatezko turismoaren alde egindako lanagatik. Debagoieneko Mankomunitateak eman ditu sariok, bigarrenez, Jaurlaritzako Turismo Sailarekin eta Euskalit fundazioarekin elkarlanean. > 04

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Iritzia** > 08
**Elkarrizketa** > 09
**Gutunak** > 10
**Herriak** > 13-33
**Kirola** > 34-36
**Kultura** > 38-39
**Sailkatuak** > 40
**Gazteak** > 42
**Telebista-Irratia** > 43
**Zerbitzuak** > 44
**Berri-zakua** > 45
**Eskelak** > 45
**Non-zer** > 46-47








Elgetako udaletxeko teilatua konpontzen. IRATI AGIRREAZALDEGI



Antzuolako kirol azpiegiturak berritu egingo dituzte; argazkian, futbol zelaia. IRATI AGIRREAZALDEGI



Eskoriatzako frontoia txukundu egingo dute. MIRIAN BITERI



Bergarako Bideberri berrurbanizatzen. LEIRE KORTABARRIA



Aretxabaletako Mitarte kalean eten egin dute zirkulazioa. MIRARI ALTUBE

**AZPIEGITURAK** > TOKIKO INBERTSIOETARAKO ESTATU FONDOKO DIRULAGUNTZAK

# Urtearekin bat bukatzeko 28 lan, Estatuko Fondotik

**ERLOJUPEAN** Madrildik jasotako dirulaguntzekin 28 proiektu egingo dira Debagoienean; baldintza bat da aurten bukatuta egon daitezela

**OPAROA** Denetara, ia 11 milioi euro emango die Espainiako Gobernuak Debagoieneko udalei; %70 orain eta %30, obrak amaitutakoan

**URBANIZAZIO LANAK** Udal gehienek auzo edo gune batzuk modu egokiagoan urbanizatzeko obrak hasi dituzte, eta bestelako obrak ere badaude

**LEIRE KORTABARRIA** > BERGARA

Debagoieneko Udalek, guztira, ia 11 milioi jaso dituzte Espainiako Gobernuaren Tokiko Inbertsioetarako Estatu Fondotik. Fondo horren helburua da inbertsio publikoa sustatzea planifikatu berri diren obren bitartez. Bada, Debagoienean eta Aramaion, udal guztiek aurkeztu zituzten dirulaguntza horietarako proiektuak, eta herri gehienetan hasiak dira. Guztira, bailararako 28 proiektu onartu ditu Espainiako Gobernuak. Lanok aurten bukatu beharko dituzte, hori baita egitasmoko baldintza bat.

Plan horren beste helburu bat enplegua sortzea da. Bada Debagoienean, lanok egin behar dituzten enpresek 68 langaberi lana eman diete. Salbuespena Arrasate da, baina baliteke langabeak kontratatzen hastea "lanek hala eskatzen duten neurrian", CIG enpresaren esanetan. Langabeak kontratatzea saritu egiten du egitasmoak, baina ez da ezinbesteko baldintza.

Proiektuak Fondo horretan sartzeko beste baldintza batzuk hauek ziren: proiektuok planifikatu berriak izan behar zuten; Udalen eskumenen barruko obrak izan behar zuten; eta "izaera produktiboagatik" edo "gizarabilkortasun bereziagatik" nabarmen izan behar zuten. Herri (edo mankomunitate) bakoitzaren biztanle kopuruaren araberako gehiengo dirukopuru bat ezarri zuen Espainiako Gobernuak.

**ARRASATE: SANTA MARINA AUZOA**

Arrasatek ia lau milioiko dirulaguntza jaso zezakeen, eta azkenean 3,6 milioi pasatxo kostatuko diren hiru proiektu aurrera eramango ditu, Espainiako Gobernuak finantzatuta. Garestiena (1.691.093 euro) Santa Marina auzoa berriz urbanizatzekoa da. Obenerrekako bidegurutzetik hasi eta Agerreko biribilgunerainoko zatian egiten dihardute lanok. Zati hori guztiz aldatuko da, bi mailatan dagoen kale hori maila bakarrean geratuko baita.

Ia horren parekoa da, kostu (1,6 milioi) eta eragin aldetik, herriko hirugarren parke izango denaren proiektua, Aldaikoa. Aldaiko kanposantu zaharraren orubean egongo da parke berria. Handia eta berritzailea izango da: jolasgunea, paseatzeko gunea, ikuskizunetarako kioskoa eta harmailak, solariuma, iturria, komunak… izango ditu.

Azkenik, Erguin auzoko hainbat eskailera-tramu berritu egingo dituzte (361.000 euro).

**Fondoaren helburu bat da ekonomia eta enplegua bultzatzea, eta bailaran 68 langabe kontratatu dira obrak egiteko**

**Proiektu gehien aurkeztu dituen herria Eskoriatza da, hamarrekin; langabe gehien kontratatu dituena, Oñati: 38**

**BERGARA: BOLU ETA BIDEBERRI**

Bergarako Udalak 2,6 milioiko dirulaguntza jasotzeko aukera zuen; azkenean, ia 2,5 jasoko ditu hiru proiektu egiteko.

Batek Bolu auzoari eragingo dio; izan ere, hango 82 atari eta 601 etxebizitzetako erdietara baino gehiagora iristeko zailtasunak daude, altuera baten daudelako. Hori saihesteko, lau igogailu ipiniko ditu Udalak. Irisgarritasuna, segurtasuna, pribatutasuna eta estetika kontuan hartu ditu Udalak igogailuen diseinurako. Denetara, 1.166.006 euro kostatuko da Bolurako proiektu hori.

Eragin handikoa –eta erdigunean dabiltzanendako begi bistakoa– da ere Bideberri-Zubieta gunea urbanizatzeko proiektua. Lanak hasiak dira, Deba ibaian, eta ikusmina piztu dute handik ibiltzen direnen artean. Lan horiek zortzi hilabeteko epea dute eta 906.900,38 eurotan esleitu dizkio Udalak Eguzki SL enpresari. Lanon helburu nagusia da Bideberri pasealekua ibilgailuendako bi noranzko bihurtzea, erdiguneko trafikoa arintzeko. Horrez gain, Bideberriren eta Zubieta kalearen arteko bidegurutzea hobetuko dute, eta espaloi gabeziari irtenbidea emango diote.

Hirugarren proiektuarekin, Domingo Irala kalea urbanizatzen bukatuko dute. Handik herriko plazara dagoen aldapako adokina kendu egingo dute, eta inguru horretan dauden bi tabernaren terraza inguratzen duen murrua kendu egingo dute. Denetara, irisgarritasuna hobetu egingo da. Lan horiek maiatz hasieran hasi ziren, 387.442 euroko aurrekontuarekin.

**OÑATI: POSTETXE ETA KANPOSANTU INGURUAK**

Hiru proiektu finantzatuko ditu Estatuko fondoak, eta langabe gehien enplegatu dituen herria da bailaran: 38 lagun.



Oñatin biribilgunea egingo dute kanposantu bide hasierako bidegurutzea dagoen lekuan. LEIRE KORTABARRIA


Gatzagako Santa Kolunba. MIRARI ALTUBE


Aramaion, Sastiña ermita. ARRITXU BARRUSO


Arrasateko Santa Marina auzoa. LEIRE KORTABARRIA

Batetik, herriko autobus estazioa –postetxe atzean– lekuz aldatu egingo dute, eta postetxearen aurrean ipini. Guardia Zibilaren koartel aurrean parkea, jolaslekua eta bidegorria egingo ditzute. Eta gune hartako zirkulazioa hobetzeko, kanposantura bidea hasten den lekuan biribilgunea ipiniko dute, hango bidegurutzeak sortzen zuen nahasmena konpontzeko; bestetik, Cegasa lantegi parean beste biribilgune bat egingo dute. Horrek 720.000 euroko aurrekontua du.

Bigarren proiektu batekin, kanposantu ingurua txukuntzen hasi dira: berorren horma kendu eta errepide berria egingo dute; baita bidegorria, espaloia eta, haratago, jolaslekua ere. Lan horiek 718.000 euroko dirulaguntza dute.

Azkenik, 467.000 eurorekin, Euskadi Etorbideko irisgarritasun planaren hirugarren fasea egingo du Oñatiko Udalak. Kale horretako eta Patrue kaleko oztopo arkitektonikoak kendu eta espaloiak zabalduko dituzte, eta baita bidegorria ipini ere.

**ARETXABALETA: MITARTE KALEA**

Aretxabaletako proiektu garestiena (799.916,48 euro) Mitarte kaleko saneamendu lanak egin eta kalea berritzekoa da. Hil hasieran egin zituen prestaketa lanak Amaral de Sousa enpresak, eta zazpi hileko epea du lanak egiteko. Ur hodiak aldatu beharko ditu, eta herritarrei handik ibiltzea erraztea. Kale horretako jarduera komertzialek ere irabazi egingo dute lanokin, Aretxabaletako Udalaren esanetan.

Bigarren proiektua, aurrekontu aldetik (311.540,786 euro), Aozaratza auzoan bidegorria egitekoa da, eta hori ere Amaral de Sousa SL-k egingo du. Hain zuzen, Larrinoko bidegurutzetik Matikua jatetxeraino egingo dute bidea. Oinezkoendako izango da, txirrindulariek bidegorritik ibiltzea dutelako. Larrinoko bidegurutzetik Otalorako aparkalekuraino ezkerreko aldetik joango da bidea.

Azkenik, 54.288 euro bideratuko ditu Udalak herrian 150 kale-argi aldatu eta kutsadura maila murrizteko.

**ESKORIATZA: HAMAR PROIEKTU**

Proiektu gehien egingo dituen herria da bailaran: 10, hain zuzen ere. Horietatik, hiru dira aipatzekoak: batetik, San Pedro auzo atzealdeko kalearen hainbat zati berriz urbanizatzekoa, zoladura eta zerbitzu sareak berrituz eta auzoaren eta kiroldegiko plazaren arteko irisgarritasuna hobetuz. Proiektu horrek 227.708 euroko aurrekontua du. Bigarren partida handiena, 140.717 euro, Aranburuzabala eta Arana kaleak asfaltatzeko lanek dute; eta Olaeta auzoko frontoia estaltzeko proiektuak 125.861 eurokoa du. Beste zazpi proiektu daude, gehienbat Elizateetarako: baserri batzuetako bideetan hormigoia botatzea eta auzo batzuetarako edateko ur-hornidura sarea hobetzea, esaterako.

**ANTZUOLA: ESTALA ETA KALEGOI**

Antzuolako Udalari eman dioten 375.000 euroko dirulaguntza ia zehazki erdi bana izango da bi proiekturako: bat, kirol azpiegiturak berritzekoa, nagusiki Estala futbol zelaia; lehenengo, zelaia gertu utziko dute belar artifiziala ipintzeko, ureztatze sistema egokituko dute eta atletismo pista eta hesiak berrituko dituzte. Aurreikusten da zelaia berrituta egongo dela uztailerako. Bigarren proiektua Kalegoi urbanizatzekoa da; gune historikoan dagoela eta zaharra dela kontuan hartuta, bide txukun bat ipini nahi du Udalak.

**ARAMAIO: SASTIÑA BERRITU**

Aramaioko proiektu garestiena Sastiña ermita eraberritzeko lanena izango da: 194.864 euro. Teilatua, hormak eta berogailu sistema konponduko dituzte. Gainera, ermitaren atzean dagoen gelatxoa egokitu egingo dute. Etorkizunean, egurra erreta energia sortuko duen galdara bat ipintzeko asmoa du Udalak.

Bigarren proiektua Arraga auzoko azpiegiturak hobetzeko da, eta horretarako 65.000 euroko dirulaguntza dago. Udalaren asmoa da auzo horretako saneamendu sarea Ibarrako sarearekin lotzea.

**ELGETA: TEILATUAK KONPONDU**

Elgetako udaletxeari begiratuta igartzen da lanak zelan doazen, izan ere, eraikin horren teilatua berritzen hasiak dira. Ur-hodiak kanpoaldetik ere ipiniko dituzte lan horiekin. Udaletxeaz gain, kiroldegiaren teilatua ere konponduko dute, bi zatitan (baina ez frontoiarena); hiru konponketa horiek egiteko proiektu bakarra dago, eta hiru hilabeteko epea dago lanak amaitzeko.

**LEINTZ GATZAGA: SANTA KOLUNBA**

Proiektu bakarra finantzatuko du Espainiako Gobernuak Gatzagan: Santa Kolunba ermita berritzea, Eugenio Otsoa Gatz Museoko informaziogune izan dadin. Apirilaren 27an hasi ziren lanek, eta zortzi asteko epea dute. Aurrekontu osoa 120.000 euro da, baina horietatik 44.216 bakarrik jasoko ditu Udalak Madrildik.

## Fondoa, herririk herri

| HERRIA | PROIEKTUAK | DIRULAGUNTZA | KONTR. LANGABEAK |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 2 | 374.000 € | 2 |
| ARAMAIO | 2 | 262.000 € | 1 |
| ARETXABALETA | 3 | 1.159.745 € | 8 |
| ARRASATE | 3 | 3.652.093 € | 0 (oraingoz) |
| BERGARA | 3 | 2.460.348 € | 4 |
| ELGETA | 1 | 186.015 € | 2 |
| ESKORIATZA | 10 | 687.210 € | 12 |
| LEINTZ GATZAGA | 1 | 44.216 € | 1 |
| OÑATI | 3 | 1.900.000 € | 38 |
| **GUZTIRA** | **28** | **10.725.627 €** | **68** |

ITURRIA: DEBAGOIENEKO UDALAK



**TURISMOA** > 'KONPROMISOA KALITATE TURISTIKOAREKIN' DIPLOMA BANAKETA

# Kalitatezko turismoan egindako esfortzuagatik saria jaso zuten

Jaurlaritzak, Euskalitek eta Mankomunitateak abian jarritako 'Konpromisoa kalitate turistikoarekin' izeneko egitasmoaren diplomak banatu ziren herenegun


Paintball Arrasateko Sandra Marcos diploma jasotzen, Eider Albizu eta Ino Galparsoro ondoan dituela. M.B.

**MIRIAN BITERI** > OÑATI

Debagoieneko Mankomunitateak, eskaintza turistikoan kalitatezko parametroak zehazteko asmoz, *Konpromisoa kalitate turistikoarekin* izeneko egitasmoa gauzatu du aurten bigarrenez, Jaurlaritzako Turismo Sailarekin eta Euskalit fundazioarekin batera. Eguaztenean, egitarau hori jarraitu duten ostatu, jatetxe eta azpiegitura turistikoek errekonozimendua jaso zuten Oñatiko unibertsitatean.

Aurten, guztira, 21 tokik jaso dute diploma bana. Ostatuen arloan, Areano, Arteaga, Aterbe eta Mitarte Garai landetxeek; Barrenengua, Berriolope eta Lamaino Etxebarri nekazari turismoek; eta Mondragon, Mendigoia, Azkoagaenea eta Soranetxea hotelek. Jatetxeei dagokienez, berriz, Gure Ametsak, Errastikuak, Espaloiak, Mekolaldek, Taberna Berrik, Tartufok eta Zabalak jaso dute errekonozimendua. Gandiaga topagunearen, Arrikrutzeko koben eta Paintball Arrasateren esfortzua ere goraipatu zuten han.

Debagoieneko Mankomunitateko presidente Ino Galparsoro eta Eusko Jaurlaritzaren izenean Euskaliteko Eider Albizu arduratu ziren sarituei diploma emateaz.

## SARITUEN ETA EGITASMOAREN ANTOLATZAILEEN HITZAK


**Josune Ibabe**
Gure Ametsa jatetxea

"Lan guztiak errekonozituak izan behar dira. Apur bat kostatzen bada ere, egindako lana saritua izan da, eta, beraz, pozik gaude. Beste hainbat egitasmotan ere parte hartzen dugu eta hasieran kosta egiten da. Baina, epe luzera, probetxugarria da guretako; ez bakarrik bezeroendako".


**Gurutze Arregi**
Azkoagaenea hotela

"Lehen aldia da saria jasotzen duguna. Hotela 2007ko abuztuan inauguratu zen, eta, beraz, hasieratik ekin diogu horrelako proiektuetan parte hartzeari. Gainontzeko enpresetan moduan, kalitatea oso garrantzitsua da turismo arloan ere; bai kanpora, bai barrura begira ere".


**Iker Uson**
Gandiaga topagunea

"Kalitatezko konpromisoak hartu ditugu. Oinarrizko irizpideak dira. Gure eguneroko kudeaketan, barneratuta bazeuden ere, irizpide horiek ez zeuden formalki jasota. Ostatu eta gune askori gertatzen zaio hori. Hortaz, horrelako ekimenak martxan jartzeak asko laguntzen du".


**Oxel Erostarbe**
Mankomunitateko Turismo arduraduna

"Debagoieneko ostalaritza arloak kalitatezko zerbitzua ematen duela iruditzen zaigu; bisitariak gustura sentitzeko prestatuta dago eskualdea. Gero eta bisitari gehiago erakartzen ahalegindu behar dugu. Aurten ere arrakastatsua izan da egitasmoa, iaz besteko parte hartzea egon da".

**AZPIEGITURAK**

# AP-1 hilaren 22an zabalduko dute osorik

Asteon Aretxabaleta eta Arrasate arteko saihesbideko lanekin hasi dira

**M.B.** > BERGARA

Gipuzkoako Bide Azpiegituretako diputatu Eneko Goiak asteon iragarri du AP-1 autobidea datorren egubakoitzean, maiatzak 22, zabalduko dela Eskoriatza eta Arrasate artean. Hau da, autobidea osorik zabaltzeko falta diren 6,4 kilometroak. Modu horretan, guztiz zabalik egongo da Eibartik Gasteizerainoko autobidea.

Goiak gogorarazi du tarte horretan hiru tunel –Gurutzetxiki (700 metro), Izurieta (260 metro) eta Apotzaga (330 metro)– eta bi zubi handi eraiki direla. Azken horiei dagokienez, Arbizelaikoak 408 metro eta Basagoitikoak 260 metroko luzera dute. Bide Azpiegituretako diputatuak bi zubi horien diseinua azpimarratu du.

Hilaren 22tik aurrera, Eibar eta Gasteiz artean dauden 46 kilometroak egiteko 25 minutu beharko dira.

**SAIHESBIDEA**

Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak joan den eguaztenean hasi zituen GI-627 errepidea konpontzeko lanak, Arrasate eta Aretxabaleta artean; 30. kilometro-puntutik 36,9. kilometro-puntura, hain zuzen.

Diputazioak bidearen zorua birgaituko du. Horretarako, 14.000 tona aglomeratu inguru zabalduko ditu zazpi kilometro dituen zatian. Horretaz gain, egiturak ere hobetuko ditu, hala nola zubiak, fabrika obrak, azpiko pasabideak eta drainatze lanak. Horiek egiteko aurrekontua 3,4 milioi euro da. Guipasa enpresak zortzi hilabete ditu lanak bukatzeko.





Argazkian, martitzenean egindako agerraldian egondako ordezkariak biharko ekitaldiko kartelekin. MIREIA BIKUÑA

**POLITIKA** > EUSKAL PRESOAK

# Jon Agirre presoaren egoera salatzeko ekitaldia bihar

Portaloira Topaguneak manifestazioa eta ekitaldia egingo ditu bihar Arrasaten, 18:30ean, plazan, Agirreren askatasuna eskatzeko

**MIREIA BIKUÑA** > ARRASATE

Portaloira Topaguneak Jon Agirre preso arrasatearrak bizi duen egoera salatzeko ekitaldia egingo du bihar Arrasaten. 18:30ean manifestazioa egingo dute Herriko Plazatik abiatuta, eta bukaeran ekitaldia egingo dute Amaia antzokian. "Agirrek 28 urte daramatza kartzelan. 2006. urtean bete zuen ezarri zioten zigorra, eta gaixotasun larria duten euskal preso politikoen zerrendan dagoen arren, Auzitegi Goreneko doktrina ezarriz, 30 urte bete arte eduki nahi dute kartzelan", esan zuen Portaloira Topaguneko Gaizka Azkaratek.

**ESKAERAK**

Ekitaldia aurkezteko agerraldian esan zuten Agirreren kasuak agerian uzten duela Espainiako espetxe politikaren aurpegirik "ankerrena". Horren harira, Portaloira Topaguneak "mendekuan oinarritutako" espetxe politika salatu gura du. "Sakabanaketarekin amaitzea, biziarteko zigorrarekin bukatzea eta gaixotasun larriak dituzten euskal preso politikoak askatzea eskatzen dugu", esan zuten plataformakoek.

**SINADURA BILKETA KANPAINA**

Martitzeneko agerraldian, bestalde, martxan duten sinadura bilketaren eta mozioaren gaineko azalpenak eman zituzten. Oraingoz 1.000 sinadura inguru batu dituzte eta hainbat eragileren atxikimendua lortu dute; besteak beste, LAB, ELA eta ESK sindikatuak, Lore Gazteak, Arrasateko Txistulariak, Antxintxika Triatloi taldea, Ttakun txalaparta taldea eta Mondra futbol taldeak. Oraindik sinadura ematen daiteke ohiko tokietan.

DATUA

**28**

URTE

Jon Agirre arrasatearrak 28 urte daramatza kartzelan. Zigorra beteta duen arren eta gaixotasun larria duen arren, kartzelan jarraitzen du.

ELKARTASUNA

## Bidezko merkataritza ezagutzera emateko ekimenak

**M.B.** > ARRASATE

Maiatzaren 9an Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna ospatu zuten Donostian. Horren harira, *Big bang!* kanpaina abiarazi dute herririk herri. Debagoieneko Bidezko Merkataritza Taldeak hainbat ekimen egingo ditu ibarrean (ikus beheko taula).

*Big bang!* kanpainaren helburua da bidezko merkataritza jendartean ezagutzera ematea, pobrezia ezabatzeko lankidetza tresna izan daitekeela erakutsita.

### Jarduerak

**Bihar, maiatzak 16**
Antzuola: bidezko merkataritza azoka. Herriko plazan.

**Maiatzaren 22tik 24ra**
Eskoriatza: Mundumira festa. GKEen mahaian egongo dira.

**Ekainak 6**
Arrasate: Elkartasun Eguna. Seber Altube plazan.



Astelehenean Arrasateko plazan bildu ziren hilketa salatzeko. TXOMIN MADINA

**EMANKUMEA** > INDARKERIA

# Arrasaten ere kontzentratu ziren Irungo hilketa salatzeko

Plazan bildu ziren hainbat herritar astelehenean, 'Emakumeei erasorik ez!' pankartarekin

**M.B.** > ARRASATE

Emakumeenganako Indarkeriaren Plataformak deituta elkarretaratzea egin zuten Arrasaten, Irungo emakumearen hilketa salatzeko. *Emakumeei erasorik ez!* leloa zeraman pankartaren atzean herritar ugari eta Arrasateko Udaleko hainbat zinegotzi bildu ziren astelehenean, Yasmin Zamira Rodriguezen erailketa gaitzesteko.

**USTEZKO HILTZAILEA, KARTZELAN**

Irungo emakumearen ustezko hiltzailea Martuteneko kartzelan sartu zuten astelehenean. Enrique San Clementeri Yasmin Zamiraren heriotza eta hildakoa laguntzera joandako pertsonari emandako labankadak egotzi dizkio epaileak. Juan Pablo Urtizbereak hobera egin du azken orduetan eta astelehenean utzi zuen Zainketa Intentsiboko Unitatea.

Gizarte laguntzarako Prestakuntza
kutxa Zabal Deba
UNED BERGARA

ALZHEIMER GAITZA DUTENENTZAT ZAINTZA BEREZIA

**HASIERA:** 2009ko irailak 3.
**EGUNAK:** astezkena, osteguna eta ostirala.
**ORDUTEGIA:** 17:00-21:00
**IRAUPENA:** 100 ordu (irala eta urria)
**EPEA:** 2009ko maiatzaren 15etik ekainaren 30era.
**PREZIOA:** 100 €. Metatu ezingo den %25eko deskontua izango dute (ziurtagiria aurkeztuz):
- Langabezian dauden EINen izena emandakoek.
- Kutxaren bezeroek.

**INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA**
Bergarako UNED. *Gizarte laguntzan Trebatzeko Eskola.*
Tel.: 943 76 90 33
Matrikula internet bidez egiteko: **www.uned.es/ca-bergara**

zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa

**Paco Gartzia** > PSE-EEko legebiltzarkidea

# "Debagoienak bi ordezkari ditu Legebiltzarrean, eta herritarrek igarri egingo dute"

**UBANE MADERA/LEIRE KORTABARRIA**
> ARRASATE

**PSE-EEko Paco Gartzia arrasatearra Eusko Legebiltzarreko kide izango da; eguaztenean zen legebiltzarkide akta jasotzekoa, eta atzo, eguena, Legebiltzarrean ematekoa. Orain arte Arrasaten zinegotzi, Gipuzkoan batzarkide eta PSE-EEko Gipuzkoako exekutibako kide izan da. Aro berri honen aurrean "ilusioz beteta" dagoela esan digu.**

**Legebiltzarkide izango zara. Pozik zaude?**

Bai, jakina; bizitzako aro berri bat hasten da, eta ilusio handiz hasten dut, baita Euskadin izan den aldaketa politikoagatik ere. Ea ze esperientzia berri datozen neuretako eta nire legebiltzar taldearendako.

**Noiz hasiko zara Legebiltzarrean lanean? Ze lan egingo duzun badakizu?**

Badirudi datorren astean hasiko naizela. Oraindik ez dakit ze lan emango didaten; batzordeak ez dira eratu, lanak ez dira banatu, eta hori egiten denean jakingo dut ze lan egitea tokatzen zaidan eta ze ardura izango dudan Legebiltzarrean.

**Orain dituzun karguak utzi egin beharko dituzu?**

Arrasateko eta Gipuzkoako exekutibako kideekin landuko dugu gai hori, denon artean hartuko dugu erabakia eta orduan jakinaraziko dut; Arrasateko eta probintziako taldekideek errespetu osoa merezi dute-eta.

Legeak uzten du kargu horiek bateratzen, baina herritarrek onena merezi dute, eta ikusi egin behar da non egiten duen bakoitzak lan onena herritarren hobe beharrerako.

**Zu legebiltzarkide izateak abantailarik ekarriko dio Arrasateri?**

Jakina; eta gogoratu behar da bi ordezkari ditugula Legebiltzarrean, Blanca Roncal ere badagoelako. Hura Legebiltzarrean dago, batez ere, Arrasateko Udalean 16 urtean egon delako, eta Arrasateko taldeak apustu egin genuen hura legebiltzarkide izan zedin.

Gure kanpaina garbia zen: Legebiltzarrean bi ordezkari izatea; eta Jaurlaritzara iristen baginen, zorionez gertatu den moduan, hor daukagu oso gertukoa den sailburu bat, Iñaki Arriola, Debabarrenekoa, Debagoiena oso ondo ezagutzen duena eta garraio, etxebizitza eta azpiegitura ardurak hartu dituena. Guk apustu garbia egin genuen garraio publikoaren alde, azpiegituren alde, eta orain horretan jarraituko dugu Legebiltzarrean eta sailburu berriari esker. Hortaz, hemengo herritarrek igarriko dute, bai, kudeaketa bat egongo dela eta hobekuntzak izango direla.

**Tranbiaren alde egin zenuten… Zer edo zer egingo duzu horren inguruan?**

Sailburuari esango diodan lehenengo gauza hauxe da: tranbia egiteke dagoela, eta bere ardura dela. EAJk guztiz engainatu gintuen, eta azkenean ez zuen ezertxo ere egin. Bada, herritarrei esan nahi diet Paco Gartziak tranbiaren alde borrokatuko duela, eta sailburuarekin egingo dut hori, laguna dut-eta.

**Debagoiena Euskadiko laugarren hiriburu izan dadin lan egingo duzu?**

Arrasateko alkate izateko nire burua aurkeztu nuen lehenengo aldian hori proposatu nuen, bai, eta orain Irunen bere egin dute, Irun Euskadiko laugarren hiriburu izan dadila, eta ni pozten naiz Irungoa bezalako udal garrantzitsu batek gure ideia hartu izanaz. Bai, horretarako lan egingo dut; eta horretarako, osasun azpiegiturak, tranbia, AHT, errepideak, garraio publikoa… behar dugu, eta Debagoiena isolamendutik ateratzea. Bai; Euskadiko laugarren hiriburu izateko moduan gaude.

**Legebiltzarrean etiketa berezirik eskatuko dizute?**

Ez dakit gorbatarik eraman behar den; ni oso gutxitan ikusiko ninduzuen gorbatarekin, eta ezinbestekoa ez baldin bada, ez dut eramango.



Paco Gartzia. GOIENKARIA

**"Garraio sailburuari esango diot tranbia egiteke dagoela; horren alde borrokatuko dut"**

**"Euskadiko laugarren hiriburu izan gaitezke, azpiegiturekin, garraio publikoarekin..."**

**"Legeak uzten du kargu publikoak bateratzen; ikusi egin behar da non egiten den lan onena"**

ASTELEHENEKO
Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

Harpidedunen txokoa
Maiatzeko zozketa

Sariak irabazteko
HARPIDETU!
Tel.: 943 08 10 50
*harpidetza@goiena.com*
Kuota: 40 euro

LIBURUAK
Umeentzat liburu sorta.
BIDALI AG LIBURUAK 5533 zkra

ZIRA
Euskal Kirol Federazioaren zira.
BIDALI ZIRA 5533 zkra.

MUNDUMIRA PACK
Mundumirako pack-a.
BIDALI AG MUNDUMIRA 5533 zkra.

LIBURUA
Bernardo Atxagaren "Markak" liburua.
BIDALI AG MARKAK 5533 zkra.

JOKOA
"AUSKALO" jokua +8 umeentzat.
BIDALI AG AUSKALO 5533 zkra.

SARI NAGUSIA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA



BELAONTZI BATEAN IRTEERA HONDARRIBIATIK

J.L Abuinen eskutik
J.L ABUIN / PUY BIDEBURU
25 urtetan teknika naturalak zure eskura jartzen
Mendia jauregia 639 02 47 14
S. Josepe, 10 943 77 01 33
Kiroldegia 943 77 16 77

SMSaren kostua: 0,60 euro + BEZa dei bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *harpidetza@goiena.com*




Jose Ramon Kortabarria (LAB), Patxi Zubizarreta (ELA) eta Paco Morales (ESK). LEIRE KORTABARRIA

**LANA** > GREBA OROKORRA

# Gutxienez 93 lantegi handitan deituko dute greba eguenean

ELA, LAB eta ESK sindikatuek –STEE, EHNE eta Hiru ere ordezkatuta– uste dute hilaren 21eko grebak arrakasta izango duela bailaran

**LEIRE KORTABARRIA** > ARRASATE

"Itxura ona" ikusten diete sindikatu deitzaileek maiatzaren 21eko greba orokor egunari, orain arte enpresa-batzordeen aldetik jaso duten erantzunari begira. Bailarako 93 enpresa garrantzitsuko –Stadler, Garay, Cegasa, Arcelor, Elay, Candy Hoover, Auzo Lagun, Ucem, Aita Menni, Recyde, Tesa…– ordezkari sindikalek greba deialdia egin eta batzarrak deituko dituzte enpresotan, eta kooperatibetan ere greba egingo duten itxaropena dute. Horrela jakinarazi zuten eguaztenean greba deialdia egin duten ELA, LAB eta ESK sindikatuetako Debagoieneko ordezkariek Arrasaten.

Gogorarazi zuten maiatzaren 21ean piketeak ibiliko direla 05:30ean, eta kale-agerraldia egingo dutela Arrasaten 18:30ean; sindikatuez gain, hainbat gizarte-eragile izango dira, "gizarteko zati handi bat delako kaltetua: gazteak, emakumeak…" STEE, EHNE eta Hiru sindikatuek ere bere egiten dute deialdia.

**"XANTAIARI AURRE"**

Greba egiteko hiru arrazoi nagusi eman zituzten sindikatuok.

Batetik, "patronalaren xantaiari aurre egitea" aipatu zuten: "15 urteotan, lan mundua prekarizatu dute gure kontura aberasteko. Orain, kaleratzeak, dirulaguntza eskaerak, lan erreforma… datoz, euren etekinei eusteko".

Bigarren arrazoi nagusi moduan, "politika publikoak aldatzeko" beharra aipatu zuten: agintariei "enplegua sortzea, fiskalitate zuzenagoa, gastu soziala eta giza prestazioak handitzea" eta antzeko neurriak "exijituko" dietela esan zuten.

Hirugarren arrazoia da "krisialdi honi aurre egiteko baliabide guztiak exijitzeko" beharra: "ekonomia, lan eta gizarte politikak Euskal Herrian bertan erabaki daitezen", laburtu zuten.

**CCOO ETA UGT**

CCOO eta UGT sindikatuek ez dute bat egin greba deialdiarekin, baina CCOOk kale-agerraldia deitu du biharko, zapatua, Bilbon, krisia langileengan izaten ari den eragina salatzeko.

**Eduardo Zubiaurre** > Adegiko presidentea

## "Giza-eragileon arteko harremanak zaildu egingo ditu grebak"

**GOIENKARIA** > ARRASATE

**Maiatzaren 21eko deialdia "tokiz kanpoko" ekintzatzat jo zuen Eduardo Zubiaurrek GOITBn egindako elkarrizketan.**



GOIENKARIA

**Zergatik pasa gara hazkundetik krisira, bat-batean?**

Geneukan hazkunde eredua jausi egin delako. Sisteman bazeuden burbuila batzuk –etxebizitza eta burtsaeta horiek leher egitean, ekonomia globalizatuta dagoenez, finantza-sistemak bizkortu egin du krisia. Finantza-sistema horrek espekulaziorako bideak eman zituen, erregulazio txikiarekin.

**Zein da erantzulea?**

Sistema horretan denok bizi izan gara: enpresak, norbanakoak... eta, norberak bere neurrian, denok hazkunde horretan parte hartu dugu, oparotasunaren zati bat oinarri sendo gabekoa izanik. Orain, denok gaude doikuntzak egin beharrean. Sindikatuek diote langileak ez direla erantzuleak, eta krisia ordaintzen ari direla.

Erantzukizunak mailakatu egin daitezke; enpresok gure proiektuak garatu ditugu testuinguru jakin baten, eta horrek ahalbidetu du enpresak hazi izana. Bakoitzak bere neurrian bizi izan gara, eta denok sartu gara ahal genuen baino kontsumo eta bizi-maila altuago baten.

**Zer diozu maiatzaren 21eko greba deialdiaz?**

Tokiz kanpoko ekintza da. Interes korporatiboak, arduragabekeria… egon daitezke atzean, baina lortuko duen gauza bakarra da giza-eragileen artean harremanak zailtzea. Tamalgarriena jarrera da. Sindikatuek eta enpresaburuok oraindik badaukagu hartu-emana, eta hainbat erakunderekin ere bai. Baina zoritxarrez, ez gutziekin: hemengo sindikatu nagusiak, ELAk duen jarrerak ez ditu gauzak errazten.

**etxeko leihotik**



Iban Arantzabal > 'iarantzabal@goiena.com'

## Athletic-Bartzelonak sortutako ingurumaria

Ez naiz futboltzalea, baina futbolak irentsi egin nau ni ere. Ospa egiterik nuen edo ez? Ba seguruenik bai, baina... Jokaldi teknikoek baino ingurumariak eman dit antentzioa: ETBk zelan eman duen partidua, *El Correo*-ren gehigarria, Interneten zer eta zelan agertuko zen... nire interesa hedabideek emandakoarekin lotua egon da.

Harritu nau *Marca*-k, esaterako: *La Real Federación Española de Fútbol tiene preparado un plan de actuación para que los acordes del himno Español suenen a un volumen muy superior de lo normal... ...dispararán los decibelios y protegeran la Marcha Real.*

**"Marca': dispararán los decibelios y protegerán la Marcha Real"**

Eta, hala ere, nahikoa dezibelio ez errealitatea ezkutatzeko! TVEk Bilboko irudiak eman behar txistuak ez entzuteko. ETBn, berriz, txistuak entzuten ziren ozen (hori baitzen zegoena) eta Pedro Mari Goikoetxea esataria isildu barik komentarioak egiten...

*Sustatu*-ko livebloggin bidez jarraitu nuen partidua eta ETB ikusten lagunekin. Futbola ez gustatzeko ondo. Internet bidez komentarioak zuzenean egiteak piztu zidan barruko harra, Goikoetxearen komentarioek lortu ez zutena. Seguruenik, Haritz Gallastegi balego ETBko esatari entzuten egongo nintzateke, ze emozio gehiagorekin eta txukun egingo lukeela seguru nago. Hurrengoan ia gazteek hartzen duten mikrofonoa eta, ondorioz, emozioa.

**> Multimedia** erakustaldia izan da partidu honetakoa ere. Paperak duen garrantzia ukatu barik: txistuak webguneetan, golak errepikatuta *youtube*-n, Ser kateko podcasta, telebistan ikusi ez genuen *We are nations of Europe, Good Bye Spain* pankarta handia...

**> Bizkaian** zoramena izan da: *El Correo*-k banatutako banderak balkoietan, 72 orriko gehigarriak, *Deia*-k azal osoa eskaini izana... Eta Gipuzkoan ere...: Espainiako Errege Kopa ikusteko pantaila handiak han eta hemen. Futbolak batu egiten ei gaitu-eta..

**LANA** > ENPLEGU TAILERRA

# Urriaren 1ean hasiko da Enplegu Tailerra

Izenemate epea zabalik dago ekain erdialdera arte, INEMeko bulegoetan

**L.K.** > ARRASATE

Debagoieneko Mankomunitateak eta INEMek batera antolatutako Enplegu Tailerrak badu hasiera data: urriaren 1a. Egun horretan hasiko da, hiru arlotan –sukaldaritzan, eraikin eta hiri-altzarien mantenuan edo eguzki-plaken instalazioan eta mantenuan– formazioa eta, tailerrak dirauen bitartean, lan egiteko aukera eskainiko duen ekimen hori. 32 lagunendako lekua dago, eta dagoeneko 200 baino gehiagok eman du izena, Mankomunitatearen datuen arabera; dena dela, izenemate epea zabalik dago ekain erdialdera arte, eta hautagai guztien artean aukeraketa-proba batzuk egingo dituzte.

Bestalde, Mankomunitatearen eskutik ere, hilaren 20an merkatariei zuzendutako jardunaldi bat izango da Arrasateko Kulturaten, 20:15-22:00, segurtasunaren gainekoa.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

# Iruña-Veleia

Korapillua estu-estu dago oindio. 2006an, Arabako lautadan egon zan hiri erromatarreko aurkikuntzak baztarrak harrotu zittuan. Beste material inportante batzuen artian, K.o. II-IV mendeko euskerazko berba eta esaldi ugari agertu zan. Mundu guztia zoratzen.

Gero, Batzorde Zientifiko bat eratu zeban Arabako Diputaziñuak benetakuak ziren ala ez konprobatzeko, eta 2008ko azaroan Batzorde horrek, edo bertako kide inportantienak behintzat, faltsuak zirela esan zeben. Diputaziñuak aztarnategia itxi zeban eta Eliseo Gil eta bere indusketa-taldea kalera bota eta auzibidian jarri zittuan.

2009ko urtarrillian argazkiak eta txostenak Interneten jarri zien azkenian, eta orduan hasi zan pelikula honen bigarren partia. Adituen txostenak irakurri eta agertzen dien mila argazkixak ikusi ondoren, asko izan die zalantzan geratu dienak. Edo zalantza baino harutzago joan direnak, neu tartian. Gaia sakon aztertu ondoren, benetakoak direla pentsatzen dot, beste askok bezela.

> **"Ni gehien harritu nabena izan da zein otzan onartu daben euskal gizartiak bertsio ofiziala"**

Zein dok/n tontoharro hau jakintsuak esan dabena dudan jartzeko, esango dau baten batek. Entenditzen dot. Baina ez litzake lehenengo aldixa izango adituak hanka leporaino sartzen dabena. Ez daukat hemen lekurik arrazoiak agertzeko, datozen egunetan argitaratuko dira Interneten.

Ni gehixen harritu nauena izan da zein otzan onartu daben euskal gizartiak bertsio ofiziala, zein isilik daren filologo eta arkeologoak, Interneten hainbeste informazio egonda iritzi propioa izateko.

Eta bittartian indusketa-talde oso bat langabezian, eta kartzela eta isun arriskuan, eta prestigio profesionala eta pertsonala lurperatuta. Eta euskal Ponpeia bat izan zeikien aztarnategia lur jota.

usteak uste

Mirian Biteri

# Badago zerbait ospatzeko?

Gaur, barikua, San Isidro eguna da. Baserritarren eguna. Egun potoloa aspaldian. Egun, ekimen xumeekin bada ere, gurean oraindik ere eguna ospatzen dihardute; tartean, Antzuolan eta Eskoriatzan. Baina badago zerbait ospatzerik? Baserriaz bizi direnen kopurua jaisten doa, horretaz bizi izatea gero eta zailagoa da-eta. Bizimodua gogorra da, denbora librerik uzten ez duena. Hori gutxi balitz, oztopoak baino ez dizkiete jartzen. Oztopoak baino, hobe laguntza gehiago ematea!

marrazkiz

Alex Ugalde




blog-top

# Lehendakariaren jainkoak

Imanol Murua Uria
www.berria.info/blogak/imanol

Lekutan gelditu da, azkenean, EAJren kanpaina arrakastatsuaren goiburua: *Ibarretxe inoiz baino gehiago*. Baina halakoxea da politika. Hauteskundeak irabazi egin ditu, baina Ajuria Eneko Jauregia galdu. Aro berriari ekingo dio Ibarretxek, eta aro berriari ekingo dio EAJk ere. Ibarretxeren ildoarekin ados ez zegoelako joan zen Josu Jon Imaz, lehendakariarekin nola edo hala konponduta orekak egiten jardun du geroztik Iñigo Urkulluk, eta, orain, 30 urteotan lehenengoz, EAJk buruzagitza bakarra izango du, EBBko presidentearena alegia, bi buruko eskema tradizionalik gabe gelditu baita Ajuria Enetik kanpo geldituta. Hemendik aurrera, lehendakariak gidatutako autobusari jarraitu beharrik gabe, EBBtik zehaztu ahal izango dute egin beharreko bidea. Iparra dute argi: kosta ahala kosta, lau urte barru Ajuria Enera itzuli. Eta lan nagusietako bat: Ibarretxek adina boto erakartzeko gauza izango den liderra eraiki. Kostako zaie.

# Ez ditut gustuko militarrak

Oxel Erostarbe
www.goiena.net/blogak/oxel

Gure Domingo Iturbe gaixua ETAko kidetzat hartu eta ondio kontrakoik esan ez dabenen buruantzako, anormala ei da lehenago Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Militarrak ez etorri izana lehendakarixan kargu hartzera.

Alemaniak Gerra Zibilian egindako bonbardaketia zala eta 1.997an eskatu zotzen barkamena gernikarrei. Españak ondio ez dau barkamenik eskatu. Aukera paregabia galdu zeban trikorniodun lagunakin etorritako generalak aurreko eguenian.

Zergatik gonbidatu ekitaldi zibil batera militarrak? Izan deixela Burgosetik beherakuak gustora laga eta eguneroko kontuetan hona begirako bidiari heltzeko.

koplak

Julen Iriondo

# Alabin alaban alabin bon ban

Ehiztari txarrak bezala
ez al da gertatu hala?
Agudoegi saldu duela
lehoiak hartzan azala.

Athletic ez da herrena
baina alde nabarmena
ahaztu zuten Barça dugula
munduko talde onena.

Pintatu zuten gabarra
ta ez zen idea txarra
ezer irabazterako pena
berriz margotu beharra.

Lainotan bidai eztia
bi hilabeteko orgia
ametsa kito, orain berriro
lanik eza ta krisia.

Auzokoen inbidia
txuri-urdinez jantzia
kopa altxatu ez duten arren
egin baitute handia.

Azken galdera bat doa
finalari buruzkoa
bateren batek entzun al zuen
Erresumako himnoa?

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako arduradunak** Leire Kortabarria (Herriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Edu Mendibil (Goienka2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Imanol Soriano **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martín, Itxaso Berezibar, Aintzane Muruamendiaraz **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa.

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.400 ale • **Difusioa:** 19.056 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Badaude izen batzuk neskendako eta mutilendako erabili izan direnak; adibidez, Aitziber. Gaur egun hori ezinezkoa litzateke; izan ere, Euskaltzaindiak arautu egin du izendegia eta nesken edo mutilen izenak daude. Euskaltzaindiaren arauez gain, badaude izenen gaineko legeak: adibidez, ezin da izen iraingarririk edo sexu nahasketa sor dezakeen izenik jarri.

**Mikel Gorrotxategi** > Euskaltzaindiko Onomastika batzordeko idazkaria

# "Sexu nahasketa sor dezaketen edo iraingarri diren izenak ezin dira jarri"

**U.MADERA/A.EZKIBEL** > BERGARA

**Mikel Gorrotxategi, Euskal Filologian lizentziaduna, Euskaltzaindiaren Onomastika batzordeko idazkaria da. Izenak arautzea da batzordearen lana: ortografikoki nola idatzi behar diren eta zein sexuri dagozkion erabakitzen dute, besteak beste.**

**Haur bati izena jartzerakoan arau batzuk jarraitu behar dira. Zeintzuk dira arauak?**

Bi eratako arauak daude: batzuk dira legeak ipintzen dituenak, eta horiek Parlamentuan erabakitzen dira; besteak, hizkuntzarekiko arauak dira. Legalak oso gutxi dira eta, gainera, gure legedia nahiko erraza eta esango nuke nahiko biguna dela Europako beste nazioekin konparatzen baldin badugu.

Ezin da iraingarri izan daitekeen izenik ezta sexu nahasketa sor dezakeen izenik jarri. Horiek dira muga bakarrak. Hizkuntza akademiak ezartzen dituen legeak dira izenak idatzi behar direla ortografikoki ondo.

**Arau horiek aspalditik daude ala arrazoi bategatik ipini dira azkeneko urteetan?**

Arauak betidanik egon dira. XVI. mendean, Trentoko Kontzilioan bataio liburua sortu zen, Elizaren erregistroa zena, eta hor arau batzuk ipini ziren. Neska izenek Santa izena izan behar zuten eta mutilek Santu izena. Gero, XIX. mendean erregistro zibila sortu zen Espainian. Hor kopiatu egin zuten Elizako erregistroa: ipini zuten ezin zela sexu nahasketa sortzen zuen izenik jarri, ezta izen iraingarririk ezta txikigarririk ere. Izenak oso-osorik ipini behar ziren.

Orain dela lau urte hori aldatu egin zen eta txikigarriak ipintzen hasi ziren.

**Euskaltzaindiaren kasuan, eguneratu egiten dituzue arauak?**

Arauak baino gehiago, izen kopurua da eguneratzen duguna. Arauak lehenagotik zeuden. Euskarak baditu izen batzuk oso tradizionalak direnak eta betidanik daudenak, baina egia da jendeak izen klasikoekin batera –Mikel, Aitor, Miren, Leire, Irati ere klasikoa da gaur-egun– beste batzuek gura dutela euren seme-alaba bakarra izatea. Orduan, jendeak pentsatu behar du ea izena egokia den edo ez. Begiratzen dugu euskararen aldetik zuzenak diren edo ez, eta zuzenak badira izendegira gehitzen ditugu.



Mikel Gorrotxategi, Onomastika batzordeko idazkaria.

AMAIA OKARIZ

**Nola jakinarazten duzue ze izen den egokia eta ze izen, ostera, ezin daitekeen jarri?**

Izen-zerrendak ditugu, ordezkaritzan eta baita webgunean ere. Dena den, beti esaten dut izen bat gure webgunean agertzen ez bada, guri dei bat egitea edo e-mail bat bidaltzea dela egokiena. Izan ere, jendeak liburuak erosten ditu eta liburuak daude, onak, txarrak eta oso txarrak. Gerta liteke izena erregistratzerakoan konturatzea pentsatutako izena ezin dela jarri. Eta hori gogorra eta tristea izaten da.

**Toponimian oinarritutako izenak jartzea ohikoa da. Horrelakoetan, badago araurik?**

Tradizionalki euskaraz Andre Mari izenak neskenak izan dira; Aitziber eta Izaskun, esaterako. Baina Andre Mari izen kopurua mugatua da; daudenak edo egon direnak dira, ez dago Andre Mari izen gehiagorik.

Geroago, euskaraz erabili izan da sistema bat *e*-z bukatzen diren izenak neskenak direla. Hori Sabino Aranak asmatu zuen orain dela 100 urte inguru. Hark asmatu eta euskaldunoi eskaini. Uste zen zaila izango zela izen horiek onartzea, baina jendeak bete-betean onartu zituen. Franco hil ondoren 25.000 euskal izen jarri dira *e*-z amaitzen direnak eta horietatik 24.700 neska izenak dira.

ARAUAK

**"XVI. mendean Trentoko Kontzilioan Eliza liburua sortu zen; han, izenak arautu zituzten"**

NESKA IZENAK

**"Sabino Aranak ezarri zuen 'e'-z amaitzen ziren izenak neska izenak zirela, orain 100 urte"**

ALDAERAK

**"Aldaera ortografikoak daude euskara beti bizi izan delako erregistroetatik kanpo"**

**Zergatik daude izen batzuk lehen neskenak eta orain mutilenak? Aitziber, Lur...**

Arrazoi ezberdinak daude. Aitziberren kasuan, 1976. urte arte euskal izenak debekatuta egon ziren. Baina 76. urtea baino 5-6 urte lehenago hasi ziren euskal izenak erabiltzen Andre Mariak baldin baziren edo epaileak onartzen bazituen. Bereziki Andre Mari izenekin ez zegoen eragozpenik, Jose Maria Satrustegi euskaltzain eta apaizak egiaztatzen zituelako.

Adibidez, Aitziber eta Idoia hari zor dizkiogu. Baina ez zegoen ohiturarik euskal izenak jartzeko. Kontuan hartu behar da II. Errepublika garaian izan ezik, Trentoko Kontziliotik debekatuta zeudela. Orduan, jendeak Aitziber –*er* bukaera– mutil izena zela uste zuen, eta Franco hil ondoren erregistroan ez zen aitzakiarik jartzen edozein izen jartzeko.

**Izenak idazterakoan badago araurik?**

Izen batzuek idazkera bat baino gehiago daukate, hori hizkuntza askotan gertatzen da. Bereizi behar dira idazkera bi edo hiru dutenak edo idazkera bakarra dutenak, baina *guay* delako beste idazkera baten ematen direnak: adibidez, Ion eta Ioseba. Hori nahiko arrunta da ekialdean, baina gaizki idaztea da –Jon eta Joseba idatzi behar da–. Hori esan zuen Euskaltzaindiak 1973an.

Peio eta Pelloren kasuan, biak daude ondo. Aldaera horiek ditugu euskara bizi izan delako beti erregistroetatik kanpo.

# Yamiled Giraldorena argitzeko

**Rosa Urtzelai Cabañes**
(Arrasateko emakumeenganako indarkeriaren aurkako plataforma)
Arrasate

Joan zen apirilaren 25ean, Yamiled Giraldo Quintero, 33 urtekoa, tiroka hil zuten Cordovillan, lanera zihoala. Haren semea, 14 urtekoa, krimenaren lekukoa izan zen.

Haizea legez zabaldu zen berria. Berrietako titularretan kautela handiz jaso zituzten gertatutakoak: biktima emakumea zen. Ikertzen hasi ziren, ikerketa bide guztiak zabalik, krimenaren zergatiaren berri jakiteko. Lehen hipotesiak agertu zituzten: emakume hegoamerikarraren hilketa ematen du ez dela genero indarkeriako kasu bat "era zorrotzean", Nafarroako Gobernuaren iturriek diotenaren arabera. Hasi dira esaten mendekua izan dela, kontu garbitze bat izan dela.

Emakumeak iragana du; hemerotekek diotenaren arabera, emakume kolonbiar hori emakumeen trafiko sare baten biktima izan zen 2001ean. 2003ko abenduan, Yamiled Giraldok deklaratu zuen lekuko moduan eta babesturik, Sunbillan dagoen alterneko klub bateko jabearen aurka, eta jabe horrek "2004ko maiatzean, 18 urteko kartzela zigorra izan zuen, hiru etorkin kolonbiarri sexu gehiegikeriak egiteagatik, prostituitzera behartu zituen-eta" (*Diario de Navarra*-n, 2004ko maiatzaren 11n). 2004ko ekainean, prozesatua Interpol-ek atxilotu zuen Kolonbian, hara ihes egin baitzuen, kartzelan behin-behingoz ez sartzeko, Nafarroako Auzitegiaren Hirugarren Atalak zigortua 2003an gertakari horiengatik; eta Espainiara estradítatu eta kartzelan sartu zuten (*Diario de Navarra*, 2004ko ekainaren 11n).

Lau bala zaurik hil zuten emakumea, norbaitek esan zuen ez zela izan genero indarkeriako kasu bat, era zorrotzean. Agian, emakumeen aurkako indarkerian kontzeptu hori erabiltzeak dakartza interpretazio zalantzazkoak, ezkutatu egiten da zeinek egiten duen indarkeria hori eta noren aurka egiten den. *Termino* erabiltzen dute emakumeen aurka egindako indarkeria aipatzeko, bikoteko harremanaren eremuan; baina indarkeria sexista honek gainditu egiten ditu etxeko eta familiako mugak. Emakumeen aurkako indarkeriaren adierazpenak aipatzen du, eta hala ulertu behar dugu, sexu arrazoiko edozein indarkeria egintza, hau da, emakumea izateagatik.

Yamiled-ek sexu gehiegikeriak salatu zituen, jazarri izana, lanean larderia, lan prekaritatea, tratu iraingarria eta laidogarria eta sexu ustiapena, azken batean, salatu zuen lan egiten zuen alterne klubeko jabeak berari eta beste kide batzuei eragiten zien indarkeria. Arriskatu zen salatzen eta litekeena da horregatik hil izana.

Ez dira igaro hilabete batzuk ordutik, Neira irakasleak Meritu Zibileko Gurutze Handia jaso zuen, bihurtu baita "emakumeen aurkako indarkeria dela-eta defentsa kolektiboaren sinboloa", Espainiako Gobernuaren presidenteorde Maria Teresa Fernandez de la Vega andreak adierazi bezala. Heroi bihurtu zuten.

Yamiled "ezin bizi zebilen" martxoaz geroztik, bere kontra eta senideen kontrako mehatxuak jasotzen hasi baitzen. Yamiled hil egin zuten; haren domina izan da bi tiro buruan, bat besoan eta bala zauri bat bularrean. Haren Gurutze Handia izan zen bizitza berri bati ekin nahi izana. Beldurtuta hil zen, babesik gabe, haren 14 urteko semea begira zuela.

Emakume ausarta izan zen, tratu txarren eragilea salatu baitzuen, dominak jasotzen ez dituzten emakume asko moduan, ausartak, eta ez dute jendearen errekonozimendurik jasotzen, ez eta hipokresia mediatikoaren aldareetara jasotzen ere.

# Korrika 16 eta Trikiti Eguna: eskerrik asko!

**Mari Paz Ugalde**
(Antzuolako Euskara eta Kultura zinegotzia)
Antzuola

Antzuolako Euskara eta Kultura batzordeak eskertu nahi du herritarren parte hartzea eta inplikazioa azkenaldi honetan izan diren bi ekintza garrantzitsutan: Korrika 16 eta Debagoieneko Trikiti Eguna.

Herritarren erantzuna ere ezin hobea, eta txalotzekoa izan da. Egun horietan lanean jardun duten herritarrak asko eta asko izan dira, eta garbi dago euren parte hartzea ezinbestekoa izan dela horrelako ekitaldiak aurrera ateratzeko.

Herria jendez beteta lanean zein parte hartzen ikusteak aurrera gogoz jarraitzeko indarra eta bultzada handitu egiten dute. Eskerrik asko, eta segi ezazue horrela, merezi du-eta.

# Eskerrak Arrasateko osasun zerbitzuei

**Agurtzane Artetxe**
Arrasate

Ageda Eizagirreren familiak, bere heriotzaren ondoren, eskerrak eman nahi lizkieke, alde batetik, anbulatorioko bere medikuak izan diren Josune Balda eta Marta Cobosi, bere pneumologoa izan den Iñaki Peñari eta, azken orduan, zaindu duten etxez etxeko ospitalizazioko talde osoari, eta beraien izenean Maitane Izagirre medikuari.

Benetan erakutsi dute botikarekin gaixoari laguntzeaz gain, berari eta familiari ere eskaintzen dioten laguntza oso garrantzitsua eta lagungarria dela horrelako egoera larriak gainditzeko. Hortaz, horrela jarraitu dezaten eskatuaz, eskerrik beroenak Agedaren familia osoaren izenean.

# Ahaztuenak eta kaltetuenak

**Iraitz Agirre Aranguren**
(Bilgune Feminista)
Arrasate

Krisi ekonomikoa ahotan darabilgun garai honetan eta maiatzaren 21eko greba orokorrerako deialdiaren harira, behin eta berriro prekarietatea bezalako hitzak entzuten ari gara sektore ezberdinetatik. Bilgune Feministatik, bai krisiak eta batez ere prekarietateak emakumeoi inori baino gehiago eragiten digula azpimarratu gura dugu.

Prekarietatea sistema kapitalistak jendartea esplotatu, zapaldu eta zatitzeko erabiltzen duen tresna da. Prekarietate ekonomikoak eskubideen mugatzea dakar zuzenean, lan baldintzen okertzea eta lan merkatuaren erregulazio gabezia sortzen dituelarik. Hiru elementu hauek hertsiki loturik daude emakumeongan sistemak sortzen dituen ondorioekin. Sistema kapitalistaren inguruko azterketa egiterakoak berezkoak zaizkion hiru elementu gogoan edukitzea ezinbestekoa zaigu; bere izaera patriarkala, sexuaren araberako lanaren banaketa eta eremu pribatutik eratorritako ekonomia murgildua.

Testuinguru hau aintzat hartuta pobreziak oraindik orain emakume aurpegia duela azpimarratzea garrantzitsu ikusten dugu. Bakarrik bizi diren emakumeak, familiazama handia dutenak, haurren zainketa eta enplegua partekatzeko aukerarik ez dutenak, etxebizitza bat lortzeko aukerarik ez dutenen errealitatea, oinarrizko errentarekin bizitzea beste erremediorik ez duten emakumeak, hein batean, beraien bizi proiektua duintasunez garatu ezin dezaketen emakumeak. Egungo krisiko ekonomikoaz berba egiten denean, estatistikoki gizonezkoak diharduten sektore industriala aipatzen da behin eta berriro, baina gainbehera horrek beste hamaika sektoreri ere eragiten die zuzenean, hala nola eta batez ere, emakumeoi. Testuinguru honetan kaltetuenak izaten jarraitzen dugu eta krisiaren eztabaidan, beste behin, ahaztuenak gara. Emakume izateagatik ez ditugu guztiok arazo hauek intentsitate berdinaz bizi, baina ukaezina da emakume garenok krisiaren ondorio orokorrak modu bertsuan jasaten ditugula.

Sistema patriarkalaren ideologiaren funtsa ez da aldatu. Kapitalismoak bere ustiapen ekonomikoa areagotze aldera sexuen arteko desberdintasuna indartzen jarraitzen du. jendarteari begira eginiko diskurtsoetan aldaketa burutu dutela saltzen diguten arren, diskurtsoaren esentzia ez da aldatu.

Horregatik Bilgune Feministak maiatzaren 21eko greba orokorrarekin bat egiten du eta jendarteari eta batez ere emakumeei, mobilizazioetan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dizuegu. Emakumeok kaltetuenak eta ahaztuenak garelako, maiatzaren 21ean denok kalera!

# Jesus Markaideri erantzuna

**Oihana Aranburu**
(Arrasateko Udaleko Gobernu Taldearen izenean)
Arrasate

Jesus Markaide jaunak, *Vacio Sanitario* izenburuarekin, maiatzaren 8ko GOIENKARIAn argitaratutako gutunari erantzunez, honakoa azaldu nahi dugu:

Arrasateko Udaleko bi langileren izenak behin eta berriro aipatuz eta beraiekiko errespetu falta nabarmena erabiliz, idatzitako gutuna irakurri ondoren, adierazi beharra daukagu, izenburuan aipatzen den kontzeptu teknikoaren esanahia ulertu ez ezik, era guztiz harrigarri eta onartezinean erabiltzen duela.

Are gehiago, Udaleko idatzietan adierazi zaionarekin zerikusirik ez duten interpretazioak (edo sasi-interpretazioak) egiten dituela.

Ez dela inondik ere onargarria esatea, izenburuko kontzeptuaren inguruan, balizko zalantzaren bat argitzeko eskaerei, erantzunik eman ez zaienik.

Ezta ere, oinarririk gabeko aurreiritzi merkeak egitea, Udalak hartu ez dituen era bateko nahiz besteko jarrerei buruz.

Udal honen aurrean, herritarrek izan ditzaketen desadostasunak konpontze aldera, beti asmatu izan ez badugu ere, borondate garbia behintzat azaldu dugula, bai Gobernu taldeko kideok, zein udal honetako langileek.

Dena dela, argi utzi nahi dugu Udaleko erabakien erantzukizuna ordezkari politikoena dela eta ez langileena. Bukatzeko, gutunaren egileari adierazi nahi diogu, gaiaren inguruan egon daitezkeen gora beherak argitzeko, ez daukagula eragozpenik, betiere, elkarri zor diogun begiruneari hutsik egin gabe.

# Jose Luis Elkororo etxean nahi dugu lehenbailehen

**Sebas Etxeberria**
(Oerlikon Balzers-Elayko langileen izenean)
Antzuola

Oerlikon Balzers-Elayko langileok Jose Luis Elkoro eta 18/98 makrosumarioan atxilotu eta espetxeratuak izan direnen askatasuna exijitzen dugu.

Euskal langileok aspaldi esan genion ezezkoa horrelako makrosumario edota euskal herriaren aurkako erasoei (egunkari itxierak, atxilotze masiboak, tortura kasuak...), honek euskal gizartearen bake nahiari oztopo besterik ez diolako egiten.

Horrela ba, Jose Luis eta beste espetxeratuak etxean nahi ditugu euren familia, lagun eta lankideekin.

Amaitzeko, bai Jose Luisi, bere emazte, seme-alaba eta familiako gainontzekoei gure elkartasuna ere adierazi nahi diegu.

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

**Barrenkalea 33**
**20570 BERGARA**

**Telefonoa:**
**943 25 05 05**

Faxa
**Faxa:**
**943 25 05 12**

**Posta elektronikoa:**
**goienkaria@goiena.com**


Furia
Gogoratzen?
Zatoz **kutxa**ra.
Une egokia duzu zeure
**Kutxa Aurreikuspen Plana**z
pentsatzeko.
zer nahi duzu bihar?
www.kutxa.net
kutxa


KIBUC GURE AMETSA
ALTZARIAK ETA OSAGARRIAK
WWW.KIBUC.COM
NIRE ETXEA ♥ DUT
AZPEITIAN GAUDE, ALTZARIAREN SORLEKUAN, ETA ARLO HONETAN 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU.
4.000 METRO KOADROTIK GORAKO GUZTIZ ERABERRITUTAKO ERAKUSKETA DUGU.
ESKATU ORDUA ETA GURE DEKORATZAILE PROFESIONALEN AHOLKULARITZA.
ESKATU PARKING ZERBITZU PRIBATUA.
KIBUC
GURE AMETSA
KIBUC
altzari eta osagarriak
Azkenean gure etxean
gureametsa@kibuc.com
Landeta Hiribidea, 1 - 20730 Azpeitia
Tel.: 943 15 16 81
KIBUC Gure Ametsa
altzari eta osagarriak
www.kibuc.com





**> BERGARA**
Udaberriko kontzertua egingo du bihar Musika Eskolak **> 21**





**> ARETXABALETA**
Dena gertu dago Otala Zelai egunerako, bihar, zapatua **> 24**





**> ARAMAIO**
Musika etxea egin nahi du Udalak Pedro Ignacio Barrutian **> 32**





**> LEINTZ GATZAGA**
Herriko proiektuak bertatik bertara ezagutu zituen Markel Olanok **> 33**


**ARETXABALETA** > ZERBITZUAK

# Ekainaren 1ean hasiko da zerbitzu ematen nagusien egoitza berria

**LEKUALDAKETA**
Gaur egungo egoitzako erabiltzaile eta langile guztiak egoitza berrira pasako dira

**TOKIAK**
170 lekuetatik 70 Foru Aldundiarekin kontzertatutakoak izango dira



Egoitzak badauka proiektuaren (irudi txikian) itxura handia dagoeneko, lanak bukatzear daude-eta.
JOSETXO ARANTZABAL - LKS

**LEIRE KORTABARRIA** > ARETXABALETA
Bi urte pasatxo hartu dituen proiektua bukatuta egongo da ekainaren 1ean: Aretxabaletako nagusien egoitza berria, orain arteko Urats Gain egoitza ordezkatu eta gaindituko duena, izan ere, Debagoien osoari zerbitzu emango dio, eta eskaintza askoz zabalagoa izango du. Egun horretan, Urats Gainen dauden 24 egoiliarrak egoitza berrira pasatuko dira.

Inaugurazio ekitaldia gero egingo dute, eta oraindik ez dago datarik, nahiz eta litekeena den uda ondoren egitea.

Egoitza kudeatuko duen GSR (Gestión de Servicios Residenciales) kooperatibaren esanetan, "Debagoienak hainbat mendekotasun mailarako dituen premiei erantzuna emango die egoitzak, eta bailarako arlo soziosanitarioan jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa da".

**MOTA ASKOTAKO BEHARRAK**
Egoitza berriak 170 lagunendako tokia izango du, eta mota askotako plazak eskainiko ditu: 67 plaza iraunkorrak izango dira, hiru tarifa motarekin: mendekotasuna dutenak, 63,23 euro eguneko; mendekotasun handia, 79,04; eta besteak, 51,93. Bestalde, 30 leku psikogeriatria sailekoak izango dira, eta 85,22 euro eguneko tarifa izango dute. Azkenik, aldi baterako bost plaza izango ditu egoitzak, premia askotariko erabiltzaileendako; horiek ere, eguneko 85,22 eurotan.

Horiek Foru Aldundiarekin kontzertatutako 102 plazak dira; horiez gain, beste 68 daude, pribatuak. Tarifa kontzertatuak eta pribatuak berberak dira.

Eguneko zentroa ere izango da, 50 lagunendako, erabilpen mota eta tarifa desberdinekin.

**KOOPERATIBA IZANGO DA**
Lantaldea 110 lagunek osatuko dute. Joan den asteko eguenean, Aretxabaletako Udalbatzak konpondu zuen Urats Gaineko 12 langileen egoera: egoitza berriko lantaldera pasatuko dira. 70 laguntzaile, 20 mantenu langile (sukaldari, garbitzaile…), zortzi erizain, bi mediku, eta arlo soziosanitarioko 10 langile izango dira.

Egoitza LKS Ingeniaritzan sortutako GSR kooperatibak kudeatuko du, eta kooperatiba izaera izango du egoitzak ere; hortaz, langileak bazkide kooperatibistak izango dira.

SUSTAPENA ETA KUDEAKETA

## Mondragon Taldearen apustu estrategikoa

Aretxabaletako egoitza Mondragon korporazioak, LKSIngeniaritzaren eta hor sortutako GSR enpresaren bidez, osasunaren arloan egindako proiektu estrategiko garrantzitsu bat da, korporazioak berak hala esanda. Foru Aldundiarekin hitzarmen bitartez sortu zen, baina GSRk kudeatuko du. Zentroaren sozietate sustatzailea GSRn sortutako RS Debagoiena Egoitza SA da; horren %60 Mondragon Taldearena da, eta %40, LKSrena. Denetara, Aretxabaletako egoitza egiteko inbertsioa 11 milioi eurokoa izan da. Korporazioaren asmoa da antzeko egoitzak sortzen eta kudeatzen jarraitzea.

**JAIAK**

## San Isidrotan, Musakola jaietan

U.M. > ARRASATE

Gaur, maiatzak 15, San Isidro eguna da, eta, baserritarren zaindariak agintzen duenari jarraituz, gaurtik domekara jai-egitarau oparoa prestatu dute musakolarrek.

Gaur, adibidez, aipagarria da erretiratuek Al-Andalus zentroan afaria egingo dutela (19:30) eta Madriguera eta Gorroto taldeek kontzertua joko dutela (23:00).

**URREZKO ASTOKILOAK**

Bihar, zapatua, berriz, Urrezko Astokiloak jarriko dituzte (13:30) eta egun osoan Txatxilipurdik gidatutako jolasak izango dira eskolako jolastokian. Aipatzeko modukoa da bihar gauerdian moda desfilea ere egingo dutela, "auzoko pertsonaia xelebreekin". Eta besterik aipatzearren, domekan gimnasia erritmiko saioa egingo dute (11:30) eta gauean, suzko erruberak.

Esandakoa, baina, halakoak eta gehiago iragarri dituzte musakolarrek.

**JENDARTEA** > ARRASATEKO IMMIGRAZIO PLANA

# Arrasatera datozen etorkinei egiten zaien harrera, aztergai

Maiatzaren 19an, Arrasateko Immigrazio Planaren bigarren batzarrean, 'Etorrera, harrera eta sare sozialak' landuko dituzte, 18:30ean

UBANE MADERA > ARRASATE

Jaioterritik beste herrialde batera bizi izatera joan beharra tokatzen denean, bigarren herrialde horretan jasotzen den harrera oso inportantea da pertsonarendako. Bada, justu, horixe da datorren martitzenean aztertu behar dutena Arrasateko Immigrazio Planaren bigarren batzarrean. Hitzordua da Kulturaten, Loramendi aretoan, 18:30ean.

Aurreneko batzarrean moduan, bigarren horretara gonbidatu dituzte ikastetxeetako ordezkariak, eragile sozialak, interesa daukaten herritarrak eta, jakina, etorkinak eurak. Aurreneko hitzorduan 50 bat lagunek parte hartu zuen.

**HARRERA HOBETU BEHARRA**

Oro har, Arrasaten bizi diren etorkinek uste dute egiten zaien harrera "hobetu beharra" dagoela; "etorkinek ahalegin handiagoa" egiten dutela uste dute batzuek, eta beste batzuek, "diskriminazioa" ere badela. Horrekin batera, uste dute "elkar ezagutzea" komenigarria dela, zenbait kasutan "jarrera aldaketa" ere bai, eta "sare sozialak" sortzea ere egoki ikusten dute.

Arrasateko bizilagunek, berriz, etorkinei harrera egiteko orduan faltan igartzen dute "etorkin kolektiboekin interlokuzio funtzioak egingo dituen elkartea edo antolaketa"; egoki ikusten dute "elkar ezagutzeko markoak antolatzea" eta baita etorkinek "hemengo ekimenetan parte hartzea" ere.

Hala dio, besteak beste, Prospektiker enpresak Arrasateko etorkinen gainean egin zuen diagnostiko txostenak. Eta puntu horiek landuko dituzte, besteak beste, martitzeneko batzarrean.

**GUZTIRA, SEI ARLO**

Arrasateko Immigrazio Planaren barruan egingo duten bigarren batzarra da oraingoa. Aurrenekoa joan den astean egin zuten. Maite Aizpirik, Ongizate Saileko teknikariak esandakoaren arabera, orduan zehaztu zituzten planaren barruan landu beharreko arloak pertsonen integrazioa ahalbidetzeko: harrera, gizarte integrazioa, lan integrazioa, prestakuntza eta hizkuntza. "Gero zehaztuko dugu gai bakoitzaren gainean egin beharrekoa", gaineratu du teknikariak.

## oharrak

HERRI ESKOLA

**> Herri Eskolako jaia**

Arrasate Herri Eskolako guraso elkarteak ikasturte amaierako jaia prestatu du maiatzaren 20rako, eguaztena. 17:00etan hasiko dira ekitaldiak, puzgarriekin; gero, 17:30etik 19:30era, Txatxilipurdirekin jolasak, tailerrak eta disko jaia egingo dituzte. Eta iragarri dute, baita ere, Euskal Eskola Publikoaren XVIII. jaiko materiala izango dela salgai.

BASERRITARRAK

**> Azoka, zapatuan**

Bihar, zapatua, estreinatuko dute Arrasateko Udalak eta baserritarrek elkarlanean antolatutako baserritarren azoka. 09:00etatik 14:00etara izango da, beraz, Arrasateko zazpi baserritarrek eta Jakionek ekarritako sasoiko produktuak erosteko aukera, Seber Altuben.

SENDABELARRAK

**> Bedoña auzoan**

Maiatzaren 30ean eta 31n egingo dute sendabelarren gaineko ikastaroa, Bedoña auzoan. Asko jota 20 lagunendako lekua izango da; prezioa da 10 euro eta izena emateko telefono honetara deitu behar da: 630 05 91 98

**JENDARTEA** > EMAKUMEA

# Emakumeekin lanerako gonbita, Ekin Emakumeak elkartetik

Astelehenerako (maiatzak 18) batzar irekia deitu dute, 18:30ean, Pablo Uranga kalean

U.M. > ARRASATE

Ekin Emakumeak elkartea bera, elkartearen lana zein kideak ezagutzera emateko, batetik, eta lanerako boluntarioak erakartzeko, bestetik, batzarra deitu dute astelehenerako. Deia irekia da, baina, bereziki, emakume euskaldunei begira eginda, emakumeekin eta euskaraz lan egiten duen elkartea da-eta Ekin: "Emakume guztiei dago zabalduta: etxekoandre, tituludunak… Guztiek dute zerbait aportatzeko", dio Maite Uribarrenek, elkarteko eragileak.

Izan ere, badago zeregina Ekin elkartean. Orain duten proiekturik handiena, adibidez, etorkinekin lantzen dutena da, eta kopuru esanguratsuak ditu bere baitan: "Lau urtean gabiltza etorkinei harrera eta formazio saioak ematen; aurten 65 lagunek parte hartu dute", dio Uribarrenek.

**EMAKUMEEN OSASUNA ETA BESTE**

Horrez gain, gai orokorrak ere lantzen dituzte Ekinen: emakumearen osasuna, emakumearen aisialdia, ingurune soziala… Eta, oro har, "emakumeei interesatzen zaizkien arloak gizarteratu" gura izaten dituzte. Orain, lan horretan parte hartzeko aukera emango dute.



Ekin elkartekoak eta elkartean ibili diren etorkinak, agur bazkarian. EKIN



**AZPIEGITURAK** > ARRASATEKO MENDEBALEKO SAIHESBIDEA

# Beste arazorik sortzen ez bada, 2010eko uztailerako zabalik egongo da saihesbidea

Lurra txarra izateak arazoak sortu ditu Olandixoko tunelean, baina lanak martxa onean doaz; Aldundiak ahalegin berezia egin du obra egiteko




Arrasatetik Aramaiorako noranzkoan Markulete industrialderako lehen irteeratik -ezkerretara- dago aterata argazkia. Irudian, lanak aurrera doazela ikusten da. J.B.

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Aspalditik datorren proiektua da Arrasateko mendebaleko saihesbidearena. Bada, azken orduko arazoren batek atzerapen berezirik sortu ezean, datorren urteko uztail aldean zabalduko dute. Hala, Aretxabaletatik Aramaiora joateko ez da Arrasatera sartu beharko.

2008ko uztailean hasi ziren lanak. Saihesbideak bi kilometro eskas –2.014 metro– izango ditu luzeran, baina herriko zirkulazioa nabarmen arinduko du. Aldundiak obra egiteko beharra ikusi zuen, eta Oskar Rekalde Aldundiko Errepide Saileko prentsa arduradunak zera jakinarazi du: "Tamaina handiko arazoari, tamaina handiko irtenbidea eman diogu". Aurrekontua ikusi besterik ez dago: 40 milioi euro bi kilometro eskas izango dituen saihesbidea egiteko.

**DATUA**

**40**

**MILIOI EURO**

40 milioi euro gastatuko dira guztira; 20 milioi euro kilometroko. Dirutza da, autobide baterako erabiltzen den antzeko kopurua.

**TUNELA, ZAILTASUN HANDIENA**

Hainbat elementu jasotzen ditu proiektuak: iparraldeko sarbidean, Aramaio errekaren gainetik doan zubia eta Markuleten eta Mugarrin egingo dituzten biribilguneak, besteak beste. Hala ere, Olandixoko tunela da saihesbidea egiteko zailtasun handiena, zalantza barik. Hori ez da berria; izan ere, Rekaldek jakinarazi duenez, "tunelak izaten dira halako obren zailtasun nagusiak". Olandixoko tunela egitea bereziki zaila izan da, inguruko lurra oso ezegonkorra delako. 800 metroko luzera izango du tunelak, eta Aldundiak, eskualde mailako errepidea izango dela kontuan hartuz, ahalegin berezia egin du obra horretan.

Izan ere, autobide bat egiteko baliabideak eta aurrekontua eskaini zaizkio tunelari. Rekaldek gaineratu duenez, "halako obra batentzat hainbeste bitarteko erabiltzea ez da batere ohikoa".

Ingelesa Frantsesa Alemana Txinera Italiera Gaztelera atzerritarrentzat

koma junior 10 urte zurekin



902 540 084
info@komalingua.com
www.komalingua.com

IRAILEAN HASTEN DIREN IKASTAROETARAKO MATRIKULA IREKITA DAGO.

Garrantzitsua: ziurta ezazu plaza bat izango duzula aurretiaz erreserba eginda!

Berria!
Umeak eskolatik jasotzeko zerbitzuari buruz informa zaitez.

IKASTARO TRINKOAK EKAINEAN, UZTAILEAN ETA ABUZTUAN.

Jolasen eta hainbat ekintzen bitartez ondo pasako duzu hizkuntzak ikasten.

Berria!
Aste baterako eta hamabostaldi baterako ikastaroak.

- Umeentzako ingeles ikastaroak.
- Helduentzako ikastaroak.
- Ikastaro trinkoak.
- Etxean bertan klaseak izateko aukera.
- Ikastaro bereziak oporraldian.
- Eskolaz kanpoko laguntza klaseak.
- Trinity azterketak egiteko prestakuntza.

TÜV CERT ISO 9001 Certificate: 01 100 072986
TRINITY COLLEGE LONDON Registered Examination Centre 39772
TÜV Rheinland UNE EN15038
10 urte zurekin

Koma Arrasate
Tf.: 943 71 26 31
Iturriotz 35-behea
20500 Arrasate (Gipuzkoa)

Koma Bilbao
Tf.: 94 444 86 79
Gregorio de la Revilla, 27-7. solairua
48010 Bilbao (Bizkaia)

Koma Irun
Tf.: 943 62 86 82
Señor de Aranzate, 14
20304 Irun (Gipuzkoa)

Koma Oñati
Tf.: 943 71 82 08
Olakua,7-behea
20560 Oñati (Gipuzkoa)

Koma Vitoria-Gasteiz
Tf.: 945 17 00 57
Sierra de Andia, 2-26D bulegoa
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Ingelesa Frantsesa Alemana Txinera Italiera Gaztelera atzerritarrentzat

# ZIGARROLAKO JAIAK 2009

## ARRASATE



**Maiatzak 15, egubakoitza, San Isidro eguna**

| | |
|---|---|
| **10:00** | **KANPAI ERREPIKA** eta etxafuegoak. |
| **10:15** | Haurrentzako **KIROL-JOKOAK** auzoko eskoletan. |
| **11:30** | **DANBORRADA**, San Frantzisko ikastolako umeekin. |
| **11:30** | **MEZA NAGUSIA** San Isidro elizan, ondoren **ABESBATZA** eta **LUNCH**a San Isidro elkartean. |
| **14:00** | Baserritarrek beraien zaindarien omenezko **BAZKARIA**. |
| **17:00** | **TXOKOLATADA** eta **MUSU MARGOKETA**. Jolasak: globoak txanponekin, zaku lasterketak… |
| **17:30** | **PINTXO DASTAKETA**, EKINek antolatuta herri eskolan. |
| **19:00** | **IKURRINA IGOTZEA**. Buruhandiak, kiliki eta gaitariekin batera. |
| **19:30** | Auzoko erretiratuen **JAI-AFARIA** Al-Andalus kultura zentroan. |
| **23:00** | **ROCK KONTZERTUA** San Antolin plazan: **LA MADRIGUERA** eta **GORROTO** taldeekin. San Isidro eliza ondoan **KAIXO** taldearekin **DANTZALDIA**. |

**Maiatzak 16, zapatua, Koadrilen eguna**

| | |
|---|---|
| **09:00** | Musakolako **II. BTT IRTEERA.** |
| **11:30–13:30** | **PUZGARRIAK** San Antolin ikastolan. |
| **12:00** | **UMEENDAKO ASTO JAIA** auzoko herri eskolan eta **HERRI TXIKITEOA**, gaitariek alaiturik. |
| **13:30** | **URREZKO ASTOKILOAK** eman eta jartzea. |
| **15:00** | **HERRI BAZKARIA** San Isidro eliza ondoan. |
| **16:00** | **XIV. XAKE IREKIA** San Antolin ikastolan. |
| **16:30-18:30** | **IRAJOSI EGITASMOA** San Antolineko jolastokian. |
| **17:00** | **HERRI KALEJIRA.** |
| **17:00-20:00** | **PUZGARRIAK** San Antolin ikastolan. |
| **18:00** | San Isidro **SOKATIRA SARI NAGUSIA.** |
| **19:00** | Arrasate eta Amurrioko musika eskoletako **BANDA TXIKIEN KONTZERTUA** Santa Teresa elizan. |
| **19:30** | **BURUHANDIAK.** |
| **23:00** | **ROCK KONTZERTUA: MUSKARIA** eta **LOST SOULS**. San Isidro eliza ondoan **KAIXO** taldearekin **DANTZALDIA.** |
| **00:00** | **MODA IKUSKIZUNA** auzoko pertsonaia xelebreenekin. |

**Maiatzak 17, domeka**

| | |
|---|---|
| **11:30–13:30** | **PUZGARRIAK.** |
| **11:30** | **GIMNASIA ERRITMIKO** erakustaldia Musakolako kiroldegian |
| **12:30** | **TXIKITEOA** txarangak alaituta. |
| **16:30** | **ARTISAUTZA** tailerra **ETA PLAZALAI EGITASMOA** San Antolineko jolastokian. |
| **18:30** | **KALEJIRA** txarangarekin betiko lekuetan. |
| **22:30** | **AZKEN TRAKA**, suzko erruberak, agurra eta amaiera. |

Virginia ile apaindegia • Gaindegi jatetxea • Maiatz ile apaindegia • Musakola elektrizitatea
Ziorla taberna • Musakola estankoa • Berogi okindegia • Estrella taberna • Txinato taberna
Iosu taberna • Basilio taberna • Meneta taberna • AGR Erreformak • Beberly taberna
Iluna taberna • Lirain ile apaindegia • Eguren arraindegia • Hiper Eroski kafetegia
Kortaberri harategia • Argi-Plastik • Jey Juliwer taberna • Berango
Goi Solutions • Urondo • Imanol iturgintza • AZK • Bereya elektrizitatea

**ONDO PASATU JAIETAN!**

**LITERATURA** > HISTORIA

# Morales de Toron gertatu zena kontatzen duen liburua

Jose Maria del Palacio aretxabaletarra da gaur aurkeztuko den liburuaren egileetako bat

**J.B.** > ARRASATE

*Matando sueños, sembrando miedos. Morales de Toro, 1936.* Izenburu luzea bezain esanguratsua dauka gaur Kulturaten (19:00) aurkeztuko den liburuak. II. Errepublika eta 36ko gerraren garaian kokatuta, Zamorako Morales de Toro herriak bizi izan zuen errepresio frankista gordina islatzen du. Egileen dokumentazio lan mardulaz gain, Morales de Toron frankistek erail zituzten 31 pertsonen –biztanleen %1,38– senideen testigantzak jasotzen ditu liburuak. Ez hori bakarrik: 31 eraildakoen fitxak ere azaltzen dira, senideek utzitako argazkiekin osatuta.

Morales de Toroko Udalak aurten onartu du eraildakoei omenaldia egitea; abuztuan egingo dute.

**EGILE BAT, ARETXABALETARRA**

Liburuaren egileak dira Jose Maria Palacios aretxabaletarra eta Morales de Toron jaiotako Candido Ruiz irakaslea.




Liburuaren azala.

> TXATXILIPURDI

### Zigarrolako jaietarako ere egitarau berezia prestatu dute Gazte Txokoetako arduradunek

San Andresko jaietan izandako arrakasta ikusita, Txatxilipurdi elkarteak Zigarrolako jaietarako ere egitarau berezia antolatzea pentsatu du. Hala, auzoko eta herriko gaztetxoek, jaietako egitarauaz gain, beste ekitaldi batzuk izango dituzte Musakolako gazte txokoan, jaiez are gehiago gozatu ahal izateko.

Gaur txokolate-jana egingo dute, urtero moduan, eta bihar helduko dira egitarauko ekitaldi garrantzitsuenak: izan ere, 10:30ean hasita, patata tortilla lehiaketa egingo dute. Gero, 12:30 aldera, balance bike zirkuitua egongo da.



Arrasate Musikaleko banda gazteak Amurrioko banda txikiarekin batera joko du Santa Teresa elizan. ARRASATE MUSIKAL

**MUSIKA** > ARRASATE MUSIKALEKO BANDA TXIKIA

# Arrasatek eta Amurriok musika elkartrukatuko dute bihar

Bi herrietako banda gazteek kontzertua egingo dute bihar, Zigarrolako jaien barruan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Arrasate Musikaleko banda txikiak eta Amurrioko Musika Eskolako banda gazteak musika elkartrukea egingo dute bihar. Kontzertua dagoeneko hasiak diren Zigarrolako jaien barruan antolatu dute. Bihar izango da, hilak 16, 19:00etan, Musakolako Santa Teresa elizan.

Emanaldi motz baina bizia izango da. Arrasateko banda gazteak joko du lehenengo; lau pieza interpretatuko dituzte: tartean John Kinyonen *Poco Bolero* eta Rob Aresen *Simply rock*. Gaizka Gaztelurrutiak zuzentzen dituen neska-mutilek "ikasten jarraitzea" dute helburu, baina horrek ez du esan nahi kalitatezko musika eskaintzeko gai ez direnik.

Herriko bandaren ostean, Amurrioko banda gazteak hartuko du lekukoa. Hiru abesti joko dituzte; besteak beste, James Brown handiaren *I feel good*. Eta bi banden arteko musika elkartrukea dela kontuan hartuta, bi taldeek batera joko dute Glorya Saynorren *I will survive* kantua. Horrela amaituko da emanaldia.

**TALDEKIDE ALDAKETA ASKO**

Taldekideei dagokienez, Arrasate Musikaleko bandak aldaketa asko izan ohi ditu urtean zehar. Hala ere, euren arrastoa uzten jarraitzen dute, esaterako, Musikaldian eta Aste Musikalean. Hortaz, 1994an abiatu zen proiektuak ez du gelditzeko itxurarik.

Bestalde, Amurrioko banda 1999an jaio zen, Andoni Brea musikagilearen eskutik. Egun, Ana Isabel Bravo eta Brea bera dira zuzendariak.












**ATLETISMOA** > EUSKADIKO TXAPELKETA

# Urrezko bi domina lortu dituzte atletek Anoetako txapelketan

Arrasate Atletismo Taldeko gazteek lan ona egin zuten joan den astean Anoetan jokatutako Euskadiko txapelketan: sei domina ekarri dituzte


Iñigo Uribarren eskuinean, brontzezko dominarekin. FERNANDO ZUFIRIA

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ARRASATE
Arrasate Atletismo Taldea egoera ezin hobean dagoela argi dago. Joan den aste bukaeran Anoetan jokatutako gazte mailako Euskadiko txapelketan emaitza bikainak lortu zituzten atleta arrasatearrek.

**URREZKO BI DOMINA**
Urrezko bi domina ekarri zituzten Arrasatera atletek. Lehenengoa Oihane Urtzelaik lortu zuen salto hirukoitzean: 10,94 metroko saltoa egin zuen Urtzelaik. Lore Marrek, ostera, pertika saltoan 3,45 metroko saltoa egin zuen. Esan behar da marka pertsonala lortu zuela Marrek; eta baita aurtengo Estatu mailako marka onena. Orain arteko bere marka 3,38 metro zen.

Pertika saltoan, Maialen Axpek 3,15eko saltoa egin zuen; horrekin, bigarren tokia, zilarrezko domina lortu zuen. Eta zilarrezko domina lortu zuen beste bat Jian Chen izan zen: luzera saltoan 6,05 metroko saltoa egin zuen arrasatear gazteak.

Josu Uribarren eta Iñigo Uribarrenek brontzezko dominak lortu zituzten. Josuk 12,31 metroko saltoa egin zuen. Iñigok, bestalde, 12,31 metroko saltoa egin zuen salto hirukoitzean.

**HURRENGOA, VALENTZIAN**
Domekan Valentzian lehiatuko dira Maialen Axpe, Lore Mar, Oihane Urtzelai eta Eukene Dorronsoro Arrasateko atletak Bidasoa Irun taldearekin. Pertika saltoan, salto hirukoitzean eta luzera saltoan lehiatuko dira, hurrenez hurren, Axpe, Mar eta Urtzelai. Dorronsorok 200 metroko lasterketa egingo du. Jonathan Perez Madrilen egongo da.

GIPUZKOAKO TXAPELKETA

## Gure ordezkariak dominekin itzuli dira

Arrasateko hiru ordezkari joan ziren joan zen aste bukaeran Tolosara, Gipuzkoako txapelketara, eta hirurak dominarekin itzuli ziren.

Salto hirukoitzean, Izar Gorroñogoitiak urrezko domina eskuratu zuen 10,05 metroko saltoa eginda. Maddi Garrok hirugarren egin zuen altuera saltoan: 1,30 metro. Eta Malen Ruiz de Azua ere hirugarrena izan zen 80 metroko hesi-lasterketan; 12,03 segundo egin zituen.

**BTT**

# Mendi bizikleta irteera Musakolan

Bihar, zapatua, izango da eta izena bertan eman beharko da

**A.E.** > ARRASATE
Mendi bizikleta irteera egingo dute bihar, Musakolako jai batzordeak antolatuta.

Goizeko bederatzietan hasiko da, Musakolako Legarra plazan, Ziar-Ola elkartearen aurrealdean. Izena bihar bertan eman behar da 08:00etatik 08:45era bitartean. 10 euro ordaindu behar da. Esan behar da segurua ez dela barne sartzen.

**BI IBILBIDE**
Beste batzuetan egin duten moduan, aurten ere bi ibilbide antolatu dute: 40 kilometrokoa eta 25 kilometrokoa.

Jatekoak eta edatekoak egongo dira ibilbidearen erdialdean. Amaieran *lunch*-a eta opariak emango dituzte antolatzaileek.

> MENDIA

## Mendi eski irteera antolatu du Besaidek, Posetsera

Besaide mendi elkarteak mendi eski irteera antolatu du aste bukaera honetarako Posets (Huesca) mendira.

Eta datorren aste bukaerarako mendi bizikleta irteera antolatu du Besaidek. Hain justu, maiatzaren 23an, zapatuan izango da. Antolatu duten irteera Landa, Albertia, Legutio eta Jarindo artekoa izango da. Parte hartu gura duenak maiatzaren 19an eta 20an eman beharko du izena Besaideko lokalean, 19:30etik 20:30era. Horretarako, Garibaiko lokalera joan beharko du edo 943 77 30 66 telefonora deitu.

## Zaldibar

**KOPAKO EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Abokajarro-Ekaitz Taberna | **5-7** |
| Paulaner Dribling-Dublin Irish Pub | **4-0** |

**LIGAKO FINAL-LAURDENAK**

| Maiatzak 16, zapatua | EPAILEAK |
|---|---|
| **11:00** Abokajarro-Paulaner | **Antolatzaileak** |
| **12:00** Dublin-McAwen Dauen | **Antolatza.** |

| Maiatzak 17, domeka | EPAILEAK |
|---|---|
| **12:00** HLB108-At. Celaya | **Antolatzaileak** |
| **13:00** Cipris-Lasagabaster | **Antolatza.** |

**SAILKAPENA A TALDEA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Paulaner Dribling | 0 | 0 |
| **2.** | Cipris | 0 | 0 |
| **3.** | Lasagabaster | 0 | 0 |
| **4.** | Abokajarro | 0 | 0 |

**SAILKAPENA B TALDEA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | McAwen Dauen | 0 | 0 |
| **2.** | AT Celaya | 0 | 0 |
| **3.** | HLB108 | 0 | 0 |
| **4.** | Dublin Irish Pub | 0 | 0 |

### Ekaitz taberna eta Paulaner Dribling, kopako finalera

Dagoeneko erabakita dago zeintzuek jokatuko duten Zaldibarko Kopa txapelketako finala: Ekaitz Taberna eta Paulaner Dribling taldeek, hain zuzen. Joan den astean jokatutako finalerdietan Ekaitz Taberna 5-7 nagusitu zitzaion Abokajarro taldeari; eta Paulaner Dribling taldeak 4-0 irabazi zion Dublin Irish Pub taldeari Kopako finalerdian.

### Final laurdenak hasiko dituzte aste bukaeran

Ligan onenak izan diren zortzi taldeek final laurdenak jokatutako dituzte. Lau taldez osatutako bi multzotan banatuta, denek denen aurka jokatu beharko dute. Gero talde bakoitzeko lehenengoak beste taldeko bigarrenaren aurka jokatu beharko du. Azkenik, irabazleek finala jokatuko dute ekainaren 20an.

tipi tapa
Umeentzako oinetakoak eta abar...
Otalora Lizentziatua 21- ARRASATE
Tel.: 943 79 67 78

SERRERIA ERRASTI S.L.
EGUR BILTEGIA
Taula aglomeratuak
D.M. melaminak
Mozte zerbitzua
Aurremarkoak eta aholtzak
Egurrezko enbalajeak
Tel. 943 79 01 61 - 651 70 79 96
Araba ibilbidea, 7
ARETXABALETA

Txitxinpe
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

UGARAN
Jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Monte taberna
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

**ZERBITZUAK**

# Ibargaraira eroango dute taxi geltokia

Taxilariek eskatuta onartu du Udalak aldaketa, haien erosotasunagatik

**M.B.** > BERGARA

Urte askoan Irizar kalean egon eta gero, laster kokaleku berria izango du taxien geltokiak. Hain justu, Ibargarai kalera eroango dute, Bankoa banketxearen parera. Enara Minguez Gobernazio zinegotziak esan duenez, taxilariek egindako eskaria izan da lekua aldatzeko arrazoia: "Aldapan egotea eragozpena da taxilariendako; aurrekoak alde egin eta taxia aurreratu behar dutenean, arrankatu egin behar izaten dute derrigorrez. Ez zaie eroso egiten". Kokaleku berriari, berriz, abantaila ugari ikusten dizkiote taxilariek: "Lauan dago, aterpea eta eserlekuak ditu, herri irteeran dago, autobus geltokia du ondoan eta zerbitzuen gunea da", dio Minguezek.

Zortzi aparkaleku egokituko dituzte kokaleku berrian, Irizarren duten kopuru bera. Bestalde, taxiek libre lagako duten lekuan herritarrendako 16 aparkaleku –diagonalean– egokituko dira.

Aldaketa egingo dute Ibargarain taxilariendako telefono zerbitzua jartzen dutenean.



Taxiendako kokaleku berria. M.B.



Herri bazkarian eguzkiak joz gero, guztia da beharrezkoa: kapela, eguzkitakoa, krema... GOIENKARIA

**PAZKOAK 09** > EGITARAUAREN AURRERAPENA

# Paella erraldoia herri bazkarirako Pazkoetan

'Kick boxing'-a, erremontea, hezitako txakurrak eta bits jaia dira berrikuntzetako batzuk

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Geroago eta gertuago daude Mendekoste jaiak –maiatzaren 29tik ekainaren 2ra– eta dagoeneko Udaleko Kultura Zerbitzuak prest du egitaraua.

Kultura Zerbitzuari dagokionez, ohiko ekitaldiez gain, hainbat berrikuntza izango dira. Batetik, erraldoien konpartsari dagokiona. Izan ere, protagonismoa hartuko dute erraldoiek aurtengo Pazkoetan: alde batetik, hilaren 23an hasi eta 30era arte, erraldoien erakusketa egongo da kultura etxean; bestetik, erraldoi konpartsak ate irekien jardunaldia egingo du Pazkoetako egubakoitzean, San Martin plazan. Hala, erraldoiak nola muntatzen dituzten, nola dantzatzen dituzten... erakutsiko diete herritarrei konpartsako kideek. Eta zapatuan, Navarcleseko (Katalunia) konpartsaren bisita jasotzearekin batera, izenik ez duten lau erraldoiendako aukeratu dituzten izenak emango dituzte ezagutzera, aurreratu ezin den oso modu politean.

**'KICK BOXING'-A ETA ERREMONTEA**

Beste berrikuntza bat da Seminarioan egokituko duten zezen-plazan zapatuan egongo den *kick boxing* saioa. Euskal Herriko eta Frantziako selekzioek jardungo dute buruz buru eta sei borrokaldi izango dira: bost gizonezkoenak eta bat emakumezkoena.

Erremontea ere egongo da, eta hori ere berria da herrian.Bi partidu ikusteko aukera egongo da; bata, gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kopako lehen partidua izango da.

**PAELLA ERRALDOIA**

Pazkoetako astelehenean, Koadrilen Eguneko bazkarian ere berrikuntza izango da aurten: San Martin plazan, jendaurrean prestatutako 500 lagunendako paella erraldoia egongo da menuan.

Udalak antolatutako egitarauaz gain, Txosna batzordeak ere hainbat ekitaldi antolatu ditu: zapatua euskal preso eta iheslariei eskainitako eguna izango da eta astelehena, AHTri ezetz esateko eguna.

## Blusa jantzi eta parte hartzeko dei egin dute

Udalak dei berezia egin nahi die herritarrei Mendekoste jaietarako: blusak jantzi eta parte har dezatela jaietan. "Jendearen parte-hartzea da jaiak borobil egiten dituena, eta, blusen kolore alaiekin baldin bada, are hobeto", diote Kultura Sailetik. Egitaraua egiteko orduan, adin guztiei zuzendutako ekitaldiak antolatzen saiatu dira eta hartu-emanetan jardun dute, besteak beste, Gazteria Kontseiluko eta San Joxepeko kideekin. Hala, gazteek eskatuta bits jaia egongo da, esaterako, eta helduen kasuan, astelehena ez da soilik Umeen Eguna izango, Helduen Eguna ere bai, eurendako propio antolatutako ekitaldiekin.

**bere ustez**



Jose Angel Mikeo

# Identitatea ardura nagusi

Irrikaz itxoiten egon ondoren bagoaz jakinez gobernu berria nola doan osatuz. Keinuen garaian gaude, egiten denak aurrekoari halako azpi kritika bat ere egin diezaiokeelako. Identitatea gaitzat ukatzeaz halako ardura izanik, identitate emaile diren ikurretarako joera sumatu dut gobernu berriaren lehen agerraldietan. Garrantzizkoak dira batzuk, Gernikako ekimenekoa esate baterako, eta bidezkoak beharbada, baina ikurretan ikur euskara da aipu hauteskundeak geroztik. Nik euskara natural sentitzen dut. Ez da kapritxo bat nik euskaraz berba egitea. Nire hizkuntza da. Euskararen berezko herrian nagoelakoan nago eta nirekin batera euskaldun direnak Erkide Autonomo honetatik kanpo ere badirela, euskaldunok Euskal Herria ez beste hitzik asmatu dugun lurralde horretan.

**"Nik euskara natural sentitzen dut. Ez da kapritxo bat nik euskaraz berba egitea"**

Sortutako kezka merezitakoa dela uste dut. Merituak eginak dituzte axolagabekeriaz euskal izaera kulturalaz eginiko adierazpenetan, bai EAEn eta baita Nafarroan. Ea gobernuan egoteak gure errealitatea osotasunean ikusi eta erantzukizun horrek bertakoa ez beste lekuetakoa ez den hizkuntza eta kulturarentzako arduraz jabetzeko balioko duen.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia





Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13

**INGURUMENA** > LANDARETZA

# Landare exotiko inbaditzaileak errotik kendu nahi dituzte

Udalak kanpaina abiaraziko du datorren astean landareok kentzeko. Oso azkar zabaltzen dira eta bertoko ekosisteman nabarmen eragiten dute

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

Udaleko Ingurumen zerbitzuak landare exotiko inbaditzaileak errotik kentzeko kanpaina jarriko du abian datorren astean. Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin egingo du hori.

Hain justu, desagerrarazi nahi dituzte plumeroa (*Cortaderia selloana*), sasi akazia (*Robinia pseudoacacia*) eta buddelia (*Buddelia davidii*).

Akazia eta buddelia balio handiko lursail publikoetatik kentzen saiatuko dira, babesteko interes handia duten lekuetatik; esaterako, San Martzialetik. Plumeroaren kasuan, ez dagoenez hain hedatuta, –batik bat baserri eremuetan dago– herri osoan kentzen saiatuko dira.



Plumeroa. GOIENKARIA

**LANDARE INBADITZAILEAK**

Landareok duten edertasunagatik apaingarri gisa hasi ziren jartzen lorategietan, baina hemengo baldintzetara ohitu, eta lorategiz kanpoko inguruak kolonizatzera pasa dira. Gehienetan hutsik dauden lurzoruak hartzen dituzte eta produzitzen duten hazi kopuruagatik eta hazteko daukaten gaitasunagatik azkar zabaltzen dira. Horrek bertoko paisaian eta ekosistemetan dauka eragina, landaretza naturala desplazatzen duelako eta faunarentzat ere kaltegarriak direlako.

**HERBIZIDAREKIN HILKO DITUZTE**

Landareok errotik kentzeko herbizidak erabiliko dituzte. Plumeroaren kasuan, herbizida –glifosatoa %3an– zuzenean aplikatuko zaio landareari hostoetan. Buddelia eta akazien kasuan berriz, enbor sendoa baldin badaukate, herbizidaz betetako kapsulak injektatuko zaizkie. Bietan ala bietan landarea sikatu egingo da eta hildako hosto eta enborrak lekutik erretiratu egin beharko dira. Metodo horiek ez ei diete berriz hazten uzten landareei; hala eta guztiz ere, horren jarraipena egitea ezinbestekoa izango da, Udaletik jakinarazi dutenez.

**HERRITARREI DEIA**

Plumeroak dituzten baserri asko dago herrian eta baserritarrek dagoeneko badakite kendu egingo dituztela datozen egunotan. Hala eta guztiz ere, norbaitek bere lurretan halako landareak baldin baditu jakinarazteko eskatu dute Udaletik, behar den bezala landarea errotik kendu ahal izateko eta izurrite izatera iritsi ez dadin. Horretarako deitu 943 77 91 75 zenbakira.

## oharrak

HAUTESKUNDEAK

**> Europako Parlamenturako posta bidez bozkatzeko bulegoa**

Alderdi sozialistak Bidekurutzeta 23n duen bulegoa egunero egongo da zabalik 11:00-12:00 eta 16:00-20:00 ordutegian.

IKASTAROA

**> Neska-mutikoendako pintura ikastaroak Beart elkartearekin**

Astelehenetik egubakoitzera izango da, 10:00-12:00, ekainaren 29tik uztailaren 24ra. Prezioa 55 euro dira. Izenematea da hilaren 22ra arte. (Mayra: 653 71 53 82).

MUSIKA ESKOLA

**> Matrikulazio epea zabaldu du Musika Eskolak**

Musika eskolak 2009-10 ikasturterako matrikula epea zabaldu du. Aurre hizkuntza musikala, hizkuntza musikala, helduen hizkuntza musikala, instrumentuak... ikasteko aukera egongo da. Izena emateko eta informazio gehiagorako jo Musika Eskolara edo deiru 943 76 57 80 zenbakira 15:30-19:30 ordutegian.

HITZALDIA

**> Consuelo Santamaria psikologoaren hitzaldia, bihar**

*Krisia; pertsonengan duen eragina. Aurre egiteko estrategiak* delako hitzaldia egingo du. Hitzaldi hori ekitaldi zabalago baten baitan egongo da. Hain justu, Caritasek etorkinendako antolatzen duen gerokultura ikastaroen itxiera ekitaldi eta diploma banatzearekin. 17:00etatik aurrera, Sierbetan.

> EUSKAL PRESOAK

### Jose Migel Gaztelu Algeciraseko espetxera eroan dute asteon eta garbitasun grebari ekin dio

Jose Miguel Gaztelu presoa Algeciraseko espetxera trasladatu dutela azaldu dute presoaren gertukuek. Asteon aldatu dutela aurreratu dute. Cadizeko Puerto II espetxetik eroan dute Algeciraserakora, Botafuego espetxera: "Lehen urrun bazegoen, orain are urrunago eroan dute, horrek familia eta lagunendako dakarren guztiarekin", aurreratu dute.

Horrekin batera, gehitu dute Gazteluk bat egin duela Algeciraseko kartzelako euskal presoek apirilaren 29an ekin zioten garbitasun grebari. Presook bizi baldintza hobeak eskatzeko ekin zioten protestaldiari.



Udaberria - uda
Mirari
JANTZIDENDA
Martoko 34 Bergara 943 76 23 93
Neurriak 38tik 60ra

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# Udaberriko kontzertua, Musika Eskolaren urteurreneko ekitaldi nagusia

Kontzertua bihar, zapatua, 19:30ean egingo dute Udal Pilotalekuan, eta ikasleekin batera, herriko hainbat musika taldek eta abesbatzek parte hartuko dute



Argazkian, iazko udaberriko kontzertuaren une bat. MUSIKA ESKOLA

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

Musika Eskolaren 25. urteurreneko azken ekitaldi nagusia bihar egingo dute: 21. udaberriko kontzertua. Musika Eskolako taldeekin batera, herriko beste hainbat talde eta abesbatza igoko dira taula gainera; hain justu ere, Alai taldeak, Aritzeta Abesbatzak, Bergarako Orfeoiak, Gabero Abesbatzak, San Joxepe Abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoak eta Udal Txistulari Bandak parte hartuko dute.

Emanaldia 19:30ean hasiko dute, eta aurretik Udal Txistulari Bandak eta Trikiti Taldeak kalejira egingo dute kalerik kale. Emanaldia bukatu ondoren afaria egingo dute Pilotalekuan. Parte hartzeko txartelak salgai dituzte Musika Eskolan bertan. "Kontzertu berezia izango da, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditugu. Emanaldiaren ondoren afaria egingo dugu, eta, txartela erosita, nahi duen guztiak har dezake parte. Lan handia egin dugu kontzertua prestatzen eta emaitza ona izango dela espero dugu", esan digu Musika Eskolako zuzendari Marije Ugaldek.

**25. URTEURRENEKO KANTUA**

Udaberriko kontzertuan oso ezagunak diren kantuak joko dituzte talde guztiek, baina bat berezia izango da: hain zuzen, Bergarako Orkestra Sinfonikoko eta Udal Musika Bandako zuzendari Alfredo Gonzalezek 25. urteurrenerako konposatutako abestia. Bergarako futbol taldeko entrenatzaile Manu Diazek idatzi du letra. Musika Eskolako ikasleek eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak bat egingo dute kantu berria abesteko. Horren aurretik Musika Eskolako martxa abestuko dute Alberto Laskurainen zuzendaritzapean. Bestalde, Mikel Laboaren *Txoria txori* kantuaren bertsioa egingo dute kontzertuan parte hartuko duten abesbatzek eta Musika Eskolako instrumentu taldeak. Alain Sanchok egin du Laboaren bertsioa.

**EGITARAUA**

Egitarauaren arabera, Musika Eskolako hainbat taldek hasiko dute kontzertua: hain zuzen ere, suzuki eta trikiti taldeek eta hasiberrien abesbatzak. Ondoren, Gabero Abesbatza igoko da taula gainera. Txistu Taldeak egingo duen saioaren ondoren, Alai musika taldeak, Akordeoi Orkestrak, Aritzeta Abesbatzak, Musika Eskolako Haurren Abesbatzak eta Orkestrak egingo dute euren emanaldia.

Udaberriko kontzertuaren azken zatian, Bergarako Orfeoiak, Musika Eskolako Gazte Bandak eta San Joxepe Abesbatzak abestuko dute.




MIREIA BIKUÑA

**Marije Ugalde** > Musika Eskolako zuzendaria

## "Oso pozik gaude herritarrek emandako erantzunarekin"

**M.B.** > BERGARA

**Ikasturte intentsua izaten ari da Musika Eskolako irakasleendako eta ikasleendako. 25. urteurrenaren aitzakian hainbat ekitaldi antolatu dituzte.**

**Lan asko egin duzue urria ezkero, baina antolatutako ekitaldi guztiak bikain irten dira.**

Bai, egia da. Ikasturte intentsua izan da guztiondako, baina gure lanak emaitza oso onak izan ditu, eta oso pozik gaude herritarren erantzunarekin.

**Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren kontzertua, *Miserableak* musikala, udaberriko kontzertua...**

Egia esan, ekitaldi potoloak egin ditugu. Urrian hasi ginen Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, eta oraindik ez dugu bukatu. 25. urteurreneko liburua bukatzea falta zaigu. Musika Eskolaren ibilbidea laburtuko digu; zuzendari izandakoen hitzak eta argazki zaharrak sartuko ditugu, besteak beste.

**Musika Eskolak beste 25 urterako bizitza izango du?**

Nik uste dut baietz. Egun, 500 ikasle inguru ditugu. Hasierako urtean 12 irakasle ziren eta egun, 27 gaude. Dena den, aurrera egiteko proposamen berriak egin behar ditugu. Hurrengo ikasturtean organo ikastaroa eman nahi dugu, eta aurrera begira dantza klasiko eskolak ere bai.

EDEL
TAPIZ DENDA
*Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena*
Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.
Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.
Bidekurutzeta 14 BERGARA

PESCADERIA JOXAN ARRAINDEGIA
Orain Super Amaran ere!!
Ibargarai 24 Bergara
Tel.: 943 76 70 29

ARANE
KRISTALDEGIA
Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

**PILOTA** > HERRI ARTEKO TXAPELKETA ETA BERGARA HIRIA

# Bergarak gaur jokatuko du Azkoitian joanekoa

Andoaingo pilotariei irabazita, Bergara herri arteko txapelketako final-laurdenetan da dagoeneko, eta gaur jokatuko dute joanekoa



Alberdi, Lemoneau, Mendizabal (Antzuola) eta Merino, martitzenean. X.U.

**XABIER URTZELAI** > BERGARA

Herri arteko txapelketan aurrera egiteko Bergarako mutilek azkoitiarrei irabazi beharko diete, haiek dira-eta hurrengo kontrarioa: "Kanporaketa oso parekatuta dagoela uste dut. Gainera, Bergarako eta Azkoitiko pilotalekuak nahiko antzerakoak dira, eta alde horretatik ez dut uste pilotalekuak kanporaketan eraginik izango duenik. Andoainen kontra, esaterako, pilotalekuak erabat ezberdinak ziren, baina oraingoan ez. Hori bai, harmailetan egongo diren ikusleen animuek beti egingo dute etxeko pilotarien alde", adierazi du Reyes Azkoitiak.

Bergarako ordezkariak gaur, egubakoitza, jantziko dira zuriz, 22:00etan hasiko duten jaialdian: "Normalean beti gustatzen zaigu itzuliko partiduak etxean jokatzea. Kontua da Azkoitian emaitza on baten bila joan behar dugula, azkoitiarrek ez dezatela etxean abantaila handirik lortu".

**BERGARA HIRIA, AURRERA**

Bestalde, Bergara Hiriak aurrera jarraitzen du, eta datorren martitzenean jokatuko dituzte lehenengo finalerdiak (19:30ean hasita). Kanporaketa horretan, 23 urtez azpikoetan Kinak eta Peñasek Epelderen eta Zubidiren kontra jokatuko dute eta senior mailan Idoate eta Keralt eta Perez eta Larrinaga izango dira aurrez aurre.

**MENDIZABALEK, AURRERA**

Martitzenean jokatu zituzten kanporaketetan, 23 urtez azpikoetan Apezetxeak eta Arzelusek 22-18 hartu zituzten mendean Aurtenetxe eta Perez. Eta, seniorretan, berriz, Aitor Mendizabal antzuolarrak kanporaketa gainditu zuen, Merinorekin batera Lemaneau eta Merinori 22-19 irabazita.

Antzuolakoa pilotalekuetatik urrun ibili da denbora batez, eskuan ebakuntza egin zioten-eta. Baina martitzenean erakutsi zuen oso ondo errekuperatzen dabilela, pilotari *txispaz* ematen ziolako eta defentsa lan handia egin zuelako. Iparraldekoak oso indartsu hasi ziren (4-9), baina Mendizabal eta Merino gauza izan ziren horri buelta emateko.

## Bergarako kadete mailako neskek irabazi dute liga

Joan den asteburuan lortu zuten kadete mailako Bergarako neskek txapeldunen fasean nagusitzea.

Azken jardunaldian Ilintxako neskak izan zituzten aurrean (5-2), eta Bergarak (39) derrigorrez behar zuen garaipena, sailkapenean atzetik zetorren Beasain (37) gain-gainean zuen-eta. *Pope*-ren neskak urduri zelairatu ziren, baina berehala erakutsi zuten futbolean gehiago zirela. Ane Vicente (2), Maite Aranzabal (2) eta Maialen Arregi (1) izan ziren golegileak.



JAVI VICENTE

> ESKUBALOIA

### Bergararen eta Arrasateren arteko derbia kopan

Domeka eguerdian senior mailako derbia jokatuko dute Bergarak eta Ford Mugarri Arrasatek Labegaraietan (12:30).

Bi talde horiek dagoeneko sailkatuta daude hurrengo faserako, eta multzo bakoitzeko lehenengo bi taldeek jokatuko dituzte finalerdiak. Derbi ederra izan daiteke, Orgazen eta Muniategiren mutilek oraindik ez dute-eta norgehiagokarik galdu. Hain zuzen ere, Bergara orain dago denboraldiko momenturik onenean.

> FUTBOLA

### Ekainaren 3an hasiko dute udako futbol txapelketa

Bergara Kirol Elkarteak antolatzen duen udako futbol txapelketak inoiz baino arrakasta handiagoa izan du, talde mordoak eman dute-eta izena. Emakumezkoetan, esaterako, 16 talde izango dira.

Gizonezkoen txapelketan. berriz, bederatzi talde izango dira eta beteranoen kategorian, zortzi talde. Antolatzaileak pozik agertu dira txapelketak izan duen harrerarekin. Orain, jokatzen hastea baino ez da geratzen, ekainaren 3an hasita.

> ARETO FUTBOLA

### Labegaraietako kopa txapelketa hasiko dute asteburuan

Aste bukaeran jokatuko dira Labegaraietako kopa txapelketako lehenengo jardunaldiko lehiak.

Domekan izango dira partiduak Labegaraietan: 16:00etan, Akabaoak-Internacional; 17:00etan, Los Latinos-Los Blus; 17:00etan –kanpoan–, Niu Tim-Belengua Taberna; 18:00etan, Monte Taberna-Carboneros; 19:00etan, Komando Piperrak-Zigalikatis; eta 20:00etan, Irubide Taberna-Irish Pub.

trinmer telecomunicaciones
tdt televisión digital terrestre
Bergaran ere badago
Lurreko Telebista Digitala!
Kontsulta iezaguzu eta soluzio onena eskainiko dizugu, ez itxaron gehiago eta alda zaitez TB digitalera.
TRINMER 20 urte antenetan
LTDerako aurrekontuak. Protokoloa eta Boletina barne
TRINMER Telekomunikazioen instalatzaile ofiziala 1305
Egogain Kalea 2-Bac 20600 EIBAR
Tel.: 943 12 73 50 – 943 10 89 43 | Faxa: 943 20 73 60
*antenas@trinmer.com* | *www.trinmer.com*

TELEIXA BILTEGIAK
Eraikuntza materialak
Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

**kanpotarrak bergaran**

**Maria Lorenzen** > Umeak zaintzen ditu Danimarkakoa, Elosun bizi da

# "Lentejak eta paella lehen aldiz jan ditut; gustatu egin zaizkit"

**MIREIA BIKUÑA** > BERGARA

**Iaz, urrian etorri zen Danimarkatik Maria Lorenzen *au pair* lanak egitera. Elosu auzoko baserri baten bizi da eta bi mutiko zaintzen ditu. Hasierako egunetan hizkuntzarekin zituen arazoak konpontzeko Helduen Heziketa Eskolan hasi zen espainola ikasten. Maila ona lortu duela egiaztatu dugu.**

2008ko udan bukatu zituen ikasketak. Jatetxe baten lanean hasi zen, baina bidaiatzeko gogoa zuen. Lana alde batera utzi barik, biak bateratzea erabaki zuen eta *au pair* (umeak zaindu) lana egitea erabaki zuen.

Urrian heldu zen Bergarara. 7 eta 10 urteko bi mutiko zaintzen ditu goizetan eta Elosu auzoko baserri baten bizi da. Hasieran ingelesez egiten zuen berba umeekin, baina espainola ikasi behar zuela konturatu zen. "Lehen 15 egunak oso gogorrak izan ziren. Ez nuen ezer ulertzen, eta ez nuen inor ezagutzen. Konturatu nintzen gutxienez espainola ikasi behar nuela", esan digu Lorenzenek. Helduen Heziketa Eskolan hasi zen eta han egin zituen lehen lagunak. Euskaraz oso gutxi hitz egiten duela aitortu digu.


Maria Lorenzen.

**"Negua oso luzea egin zait; sekula ez dut horrenbeste elur ikusi"**

**EGURALDIA ETA JANARIA**

Negua oso luzea egin zaio: "Ez dut inoiz horrenbeste elur jarraian egiten ikusi. Askotan geratu gara baserritik ezin irtenda. Ni bizi naizen herrian hotz egiten du, baina elurra, oso gutxi".

Janariarekin arazorik ez duela izan esan digu, eta ezagutzen ez zuen jaki bat faltan igarriko du Bergaratik alde egiten duenean: lentejak. "Batez ere lentejak eta paella gustatzen zaizkit. Jaki goxoak dira eta gustura jaten ditut; baina, oro har, ez dut arazorik izan janariarekin".

**URRIAN, FRANTZIARA**

Bergarako lanak bukatu ondoren, Frantziara joango da beste urtebetez Danimarkako familia baten umeak zaintzera. Oraingoz etxera bueltatzeko asmorik ez duela esan digu: "Oso gustura nabil nire kontura. Oraingoz aurtengorako eta datorren urterako planak egin ditut. Guztia nik pentsatu moduan irteten bazait, lau urte barru itzuliko naiz etxera".

**txaloak eta txistuak**


MIREIA BIKUÑA

# Amillaga kaleko espaloia noiz konponduko dute?

Irakurle batek deitu digu Amillaga kaleko espaloiaren egoeraz berba egiteko. "Lotsagarria da espaloiaren egoera. Tarte batzuetan zuloak daude eta baldosak apurtuta daude. Noiz konponduko dute?". Udal ordezkariek esan digute Amillaga kalea berrantolatzeko eta konpontzeko proiektua idazteko asmoa dutela.




Animaliek etxeko txikienen ikusmina pizten dute urtero. MIRARI ALTUBE

**JAIAK** > OTALA ZELAI EGUNA

# Urteroko ekitaldiez gozatu ahalko dute etzi aretxabaletarrek

## Krosa, paella lehiaketa, sagardo festa, herri bazkaria eta dantzaldia daude, besteak beste

**MIRIAN BITERI** > BERGARA
Otala Zelaiko egitaraua berrikuntza barik dator aurten. Berrikuntzarik ez, baina ekimenez josita. Betiko moduan, eguna haurrendako eta gazteendako lasterketarekin hasiko da, 10:00etan. Benjaminek, alebinek, infantilek eta kadeteek hartuko dute parte. Bakoitzaren adinera egokitutako ibilbidea izango dute horiek.

Ordubete geroago, herri krosari emango diote hasiera. Otala Zelain bertan hasi eta helmuga ere han izango du. Urkuluko urtegiari buelta bakarra emango diote korrikalariek. Guztira, zortzi kilometrotik gora izango du lasterketak. Izena domekan bertan, 09:30ean, eman beharko dute parte-hartzaileek. 12:00etan, berriz, sari banaketa egingo dute.

**PAELLA LEHIAKETA**
Urtero bezala, 12:30ean, animaliekin jokoak hasiko dira eta 13:00etan, Leizarra musika eskolako trikitilariek zelaiak girotuko dituzte. Bitartean, paella lehiaketa egingo dute. Antolatzaileek arroza, olioa, kipula, gatza, koloratzailea eta berakatza banatuko dituzte, eta gainontzeko osagaiak parte-hartzaileek jarriko dituzte. Gainera, epaimahaiaren lana errazteko, lehiatu behar dutenak bi taldetan banatuko dira. Talde bakoitzeko irabazleek 100 euro irabaziko dituzte; bigarrenek, 70; eta hirugarrenek, 50 euro. Eguraldi txarra egiten badu lehiaketa bertan behera geratuko dela jakinarazi dute antolatzaileek.

Bazkaldu aurretik, sagardo festa ederra ere egingo dute. Horretan, trikitilariez gain, bertsolariak ere izango dira han kantuan. 14:30ean, berriz, herri bazkariaren txanda iritsiko da. Antolatzaileek mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte eta bazkaria eroatea norberaren esku geratuko da.

**MUSIKA ETA DANTZAK**
Lasai egoteko astirik barik, 15:30ean, Zurgai taldearekin herri kirolak hasiko dira eta jarraian, Txinparta musika taldeak dantzaldiari hasiera emango dio. 18:00etan, Loramendi dantza taldearen eskutik dantza ikuskizuna egongo da eta hori amaitzean, Txinpartak dantzaldiarekin jarraituko du.

Antolatzaileek jakinarazi dute, azkenik, eguraldi txarra egiten badu jaia Iturrigorri frontoian egingo dela.

### Otala Zelai eguna 09

**10:00** Otala Zelain haurrendako lasterketak.
**10:00** Aretxabaletako txistulariekin diana.
**11:00** 31. herri krosa: Otala zelaitik aterata, Urkulu urtegiari itzulia.
**12:00** Sari banaketa.
**12:30** Animaliekin jokoak.
**13:00** Herriko Leizarra musika eskolako trikitilarien emanaldia.
**13:00** Paella lehiaketa.
**13:00** Sagardo festa.
**14:30** Herri bazkaria.
**15:30** Zurgai taldearekin herri kirolak.
**16:00** Dantzaldia Txinparta taldearekin.
**18:00** Loramendi dantza taldearen eskutik dantza saioa.
**19:00** Dantzaldia Txinparta taldearekin.

**EUSKARA** > EUSKARAREN EGUNA

# Amaiera ederra emango diote bihar Euskararen Asteari

## Oskorrik kontzertua eskainiko du 17:30ean herriko plazan, Euskararen Egunaren harira

**M.B.** > ARETXABALETA
Loramendi Euskara Elkarteak Euskararen Astearekin dihardu. Martitzenean Arelarre antzerki taldeak egindako emanaldiaren eta Euskal Herrian Euskaraz elkartearen eskutik Aretxabaletako euskararen egoeraren gaineko atzoko tertuliaren ostean, bihar, zapatua, egun nagusia ospatuko dute herrian: Euskararen Eguna.

Horretarako, egitarau zabala prestatu du Loramendik. Ekimenak 11:00etan hasiko dira, herriko trikitilariekin. Ordubete geroago, inguruko baserrietako gazta dastatu ahalko da. Bitartean, *herri kirol* triki-poteoa egingo dute bazkalordura arte. Babak izango dituzte herriko plazan bazkaltzera geratzen direnek. Jarraian, herriko onenak aukeratzeko probei ekingo diete aretxabaletarrek.

**OSKORRIREN EMANALDIA**
Arratsaldean musika eta dantzak nagusituko dira. 17:30ean, Oskorrik kontzertua eskainiko du plazan; The Pub Ibiltariaren kantuak entzun ahalko dira. 19:30ean, larrin-dantzaren txanda izango da Duranan. Hori amaitzean, poteoa hasiko da. Eguna behar bezala amaitzeko, afari-merienda egongo da udaletxe zaharreko atarian.


Eguerdian egingo dute gazta dastatzea. M.A.

### Euskararen Eguneko egitaraua

11:00: Herriko trikitilariekin kalejira egongo da herriko kaleetan.
12:00: Gazta dastatzea.
12:00: *Herri kirol* triki-poteoa hasiko da eguerdian.
14:00: Baba jana hasiko da herriko plazan.
17:30: Oskorrik kontzertua eskainiko du herriko plazan. *The Pub Ibiltaria* aurkeztuko du.
19:30: Larrin-dantza Durana kalean. Gaitariek ere parte hartuko dute. Larrin-dantza amaitzean poteoa egitea aurreikusi dute, trikitilariz eta bertsolariz lagunduta. Amaitzeko, afari-merienda egongo da.

MAPFRE
DESKONTU BEREZIAK
AUTO, ETXEBIZITZA ETA BIZITZA ASEGURUETAN
INFORMA ZAITEZ!
Errekabarren 3 ARETXABALETA
Tel.: 943 77 11 76 / Faxa: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net



Mutiko gazteak futbol txapelketa baten. M.A.

**BERBALDIA** > ESKOLA KIROLA

# Eskola kirola hausnarketa-gai KAITen eskutik

Kirol hastapenaren gainean jardungo dute martitzenean, Arkupen, hainbat adituk

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Kirol arlorako iritzi taldeak –KAIT–, Aretxabaletako Udalaren laguntzarekin, eskola kirolaren eta kirol hastapenaren gaineko berbaldia antolatu du. Martitzenean da, Arkupen (18:30-20:30) eta hainbat aditu elkartuko dira.

**HAINBAT IKUSPEGI ETA EREDU**

Berbaldia gidatuko dutenak hiru lagun izango dira: Beñat Amenabar –EHUko irakaslea eta Jaurlaritzak egindako Eskola Kirolaren Liburu Zuriaren egileetako bat–; Pablo Murias –Kirol teknikaria eta eskola kirolean aditua–; eta Gari Fullaondo –Lezamako metodologia arduraduna–. Kait taldeko idazkari den Asier Muxika Aretxabaletako Kirol teknikariak azaldu du askotan izaten dela eztabaida kirol espezializazioaren gainean: "Txikitatik kirol bakarrean jarduteare n alde daude batzuk eta kirol ezberdinak ezagutu eta bakoitzaren balioak lantzearen alde besteak". Hala, bada, ikuspegi eta eredu ezberdinen gainean jardungo dute eta berbaldia irekia da: "Guraso, kirol teknikari, ume eta gazteekin jarduten duten begirale, irakasle…", dio Muxikak.

### Egitaraua

**Maiatzak 19, martitzena**

18:30ak, ongietorria.

18:35ak, *Gaur egungo mapa*, azterketa kritikoa. Beñat Amenabar (EHU, KAIT).

18:55ak, *Modalitate bakarrean oinarritutako hastapena klub gunean*; abantailak eta kezkak. Gari Fullaondo (Athletic Club).

19:15ak, *Kirolanitz hastapena eskola gunean*; abantailak eta kezkak. Pablo Murias (Kirol Management, KAIT).

19:35ak, eztabaida eta ondorioak. Moderatzailea: Unai Asurmendi (Bergarako kirol teknikaria, KAIT).

> IKUSKIZUNA

## Pirritx eta Porrotx pailazoak gaur herriko plazan

Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek *Piratak* ikuskizuna eskainiko dute gaur, hilak 15, herriko plazan (17:00). Kultura Sailak antolatu du –debalde da–, eta hala, domekan egingo duten Otala Zelai eguNari ongietorria egingo diote.

Negu giroa iragarrita dago gaurko, baina hotz egin edo euria egin, ikuskizuna plazan izango dela jakinarazi dute Kultura Saileko arduradunek: "Momentu honetan ez daukagu-eta ikuskizunak behar duen oholtza beste inon sartzeko modurik".

> FUTBOLA

## Autobusa antolatu du UDAk Tolosaren aurkako partidurako

Tolosan jokatuko du bihar UDAko preferente mailako taldeak, eta herritarren babesa izan dezaten Igor Gordobilen mutilek, autobusa antolatu du UDAko zuzendaritzak. Txartelak hiru tabernatan daude salgai: Orly, Gurea eta Dorletan. Eskuratzeko azken eguna gaur da (18:00ak aurretik), 2 euro ordainduta.

Partidu garrantzitsua da, UDA puntu bakarra lortuz gero datorren denboraldian hirugarren mailan egongo da-eta.

> ELKARTASUNA

## Bidezko merkataritzako denda bihar Duranan

Hiruatx elkarteak bidezko merkataritzako denda jarriko du bihar, maiatzak 16, Durana kalean –goiz partean–. Urtero legez, Euskararen Eguna aprobetxatuko du bidezko merkataritza bidez ekoiztutako produktuak herritarrei eskaintzeko.

Maiatzaren 9an izan zen Bidezko Merkataritzaren Nazioarteko Eguna eta pobreziaren, klima aldaketaren eta finantza krisiaren aurka egitea dute helburu aurten.

**AURKEZPENA** > GERRA KONTUEN LIBURUA

# Gerrako kontuak, liburuan jasota

Morales de Toro herrian gertatutakoak jaso dituzte; tartean, Aretxabaletan bizi diren batzuen testigantzak daude

**M.A.** > ARETXABALETA

*Matando sueños, sembrando miedos. Morales de Toro, 1936…* liburua aurkeztuko dute bihar Arkupen (11:30), eta ondoren, gerra sasoian Morales de Toro herrian (Zamora) gertatutakoen gainean jardungo dute elkartutakoek.

**MORALES DE TOROKOAK GUREAN**

Aretxabaletan jaiotako Jose Maria del Palacio Alonsok idatzi du liburua, Morales de Torоko Candido Ruiz Gonzalez irakaslearekin batera. Hain zuzen, Del Palacio hasi zen, aurre-erretiratutakoan, Zamorako herrian gerra sasoian gertatutakoak aztertzen: "Konturatu nintzen ez zegoela ezer jasota sasoi hartakoa eta galdezka eta elkarrizketak egiten hasi nintzen", dio idazleak. Orduan Candido Ruiz irakasle eta historialariarekin jarri zen harremanetan, eta bien artean osatu dute liburua.

Aste Santuan Morales de Toron bertan aurkeztu zuten liburua eta orain gurean egingo dute: gaur Arrasaten eta bihar Aretxabaletan. Horren zergatia argitu digu Del Palaciok: "Handik etorritako edo hango arbasoak dituzten jendetza dagoelako Debagoieneko bi herriotan". Horien artean dago 1936an Morales de Toroko alkate izan zenaren arreba, Aretxabaletan bizi dena.

**31 HILDAKO 1936AN**

1936an, gerra hasi eta gutxira, 31 lagun hil zituzten Zamorako herri txikian; horietatik 18 inolako epaiketa barik eta gainerako 13ak, epaitu ondoren –nahiz eta lauri bakarrik ezarri heriotza zigorra–: "Askok ez dituzte kontu horiek gogorarazi gura, baina hildakoek eta haien senideek justizia eskatzen dute eta egindako kaltea nolabait konpontzea", dio Del Palaciok. Eta gaineratu du: "Zein mundutatik datorren ez dakienak nora doan ere ez daki".

**LIBURUAK SALGAI**

Liburuaren aurkezpen ekitaldian hainbat lagun elkartuko dira: Jose del Teso –jatorriz Morales herrikoa–; Jose Ramon Intxauspe –Moralesko biztanleen etorrera Aretxabaletara aztertuko du–; Candido Ruiz idazlea –Morales herriaren gainean jardungo du– eta Jose Maria del Palacio –diktaduraren eragina giza kontzientzian aipatuko du.

Liburuak salgai daude Arkupen, 10 euroren truke.

**argazki zaharra**



## Erretiroaren urtea ospatzen

1944an jaiotako kintoak dira argazkikoak. Eta kinto horiek, gizon eta emakume, erretiroaren urtea ospatuko dute aurten, maiatzaren 30ean, hain zuzen: meza Agustindarren santutegian (12:30) eta bazkaria Taberna Berri jatetxean (14:30).

Izena hilaren 25erako eman behar da Taberna Berrin, 10 euro aurreratuta. Argibide gehiago gura izanez gero Juan Mari Errastiri deitu: 943 79 30 55 eta 629 41 42 95.

**Argazkia:** Juan Mari Errasti.
**Testua:** Juan Mari Errasti.

PIENSOS UNZUE S.A.
FELIX PAGALDAY
Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

# OTALAZELAI EGUNA 09

## Aretxabaletan, 2009ko maiatzaren 17an

**• 10:00 •**
Otala Zelain **haurrentzako LASTERKETAK**.
Izena emateak 9:30etik aurrera.

**• 10:00 •**
Aretxabaletako txistulariekin **DIANA**.

**• 11:00 •**
**XXXI. HERRI KROSSA** Otala Zelaitik aterata Urkulu urtegiari itzulia.
Izena emateak bertan.

**• 11:00 •**
**SARI BANAKETA.**



**• 12:30 •**
**ANIMALIEKIN JOKUAK.**

**• 13:00 •**
Aretxabaletako Leizarra musika eskolako **trikitilariak**.

**• 13:00 •**
**PAELLA LEHIAKETA:** Antolatzaileek arroza, olioa, tipula, gatza, kolorantea eta berakatza jarriko dituzte, gainontzeko osagaiak partehartzaileek jarri beharko dituzte. Epaimahaiaren lana errazteko, partehartzaileak bi taldetan banatuko dira.

| SARIAK | |
|---|---|
| **A TALDEA** | |
| 1. Saria | 700 € |
| 2. Saria | 70 € |
| 3. Saria | 50 € |
| **B TALDEA** | |
| 1. Saria | 100 € |
| 2. Saria | 70 € |
| 3. Saria | 50 € |

**Izen emarea:**
Arkupe Kultur Etxea.
5€

Eguraldi txarra eginez gero, txapelketa hau bertan behera geldituko da eta izena eman dutenei dirua bueltatuko zaie.

**• 13:00 •**
**SAGARDO FESTA**. Trikitilariak, berteolanak....

**• 14:30 •**
**BAZKARI HERRIKOIA**. Antolatzaileek mahaiak eta aulkiak ipinikodituzteeta bazkaria norberak eraman beharko du.

**• 15:30 •**
**ZURGAI** taldearekin **herri kirolak.**

**• 16:00 •**
**DANTZALDIA** Txinparta taldearekin.

**• 18:00 •**
Loramendi dantza taldearen eskutik **DANTZA SAIOA.**

**• 19:00 •**
**DANTZALDIA** Txinparta taldearekin.

Eguraldi txarra eginez gero,
jaia ITURRIGORRI frontoian ospatuko da.





OTALAZELAI EGUNA 09

Aretxabaletan,
2009ko
maiatzaren
17an

antolatzailea
Aretxabaletako Udala

**ETXEBIZITZAK** > ZOZKETA

# San Martingo etxeak egokitu zaizkienek 15 egun dituzte agiri guztiak aurkezteko

Arrazoi garrantzitsu barik etxeari uko egiten diotenek hiru urtean ezin izango dute beste zozketetan parte hartu; arrazoia ekonomikoa bada, zigorra urtebetekoa izango da

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Gehienak aurpegi tristearekin irten ziren kiroldegitik; baina banaka batzuk, 43 hain justu ere, etxebizitza berriarekin itzuli ziren etxera. Haiek dira San Martinen egiten diharduten babes ofizialeko lehen etxeetako jabeak. Ezinduen kupoko bi etxeak ez zituzten zozketatu, eskaerarik ez zegoelako. Horren harira, Udalak bi etxe horiek kupo orokorreko eskatzaileen artean emateko baimena eskatu dio Etxebideri. Eskaera onartuz gero, zozketa bukaeran osatu zuten ordezkoen zerrendako lehenengo biek eskuratuko lukete etxe bana.



Herritar ugari bildu zen kiroldegiko pilotalekuan zozketa ikusteko. MIREIA BIKUÑA

## Zozketaren emaitzak

| ADJUDIKAZIODUNAK | ETXEBIZITZA* | ADJUDIKAZIODUNAK | ETXEBIZITZA* |
|---|---|---|---|
| Orueta Junco, Iñaki | 1-behe-A | Barrena Arriaran, Iñaki | 2-1-D |
| Irizar Altzelai, Jaione | 1-behe-B | Lopez Telleria, Joseba | 2-1-E |
| Arlanzon Leon Maria Montserrat | 1-behe-C | Berrocal Garcia, Sheila | 2-2-A |
| Ibabe Graña, Julen | 1-behe-D | Ganuza Yaniz, Yohana | 2-2-B |
| Laskurain Markuleta, Iker | 1-behe-E | Camison Rodriguez, Felipe | 2-2-C |
| Zumalde Aurrekoetxea, Egoitz | 1-1-A | Fernandez Egaña, Luis Maria | 2-2-D |
| Gende Ramirez, Patricia | 1-1-B | Lizarralde Usandizaga, Haritz | 2-2-E |
| Martin Ramos, Jonathan | 1-1-C | Judez Lasheras, Ainhoa | 3-behe-A |
| Marcos Diez, Sonia | 1-1-D | Martin Rodriguez, Alejandro | |
| Niño Hernandez, Ruth | 1-2-A | Hidalgo Machio, Maria Jose | 3-behe-B |
| Garcia Porcel, Raul | 1-2-B | Vazquez Garcia, Alvaro | 3-behe-C |
| Lertxundi Aranburu, Ibai | 1-2-C | Santos Bikuña, Asier | 3-behe-D |
| Palomero Garcia, Maria Dolores | 1-2-D | Luis Urtzelai, Joseba | 3-behe-E |
| Ortiz De Mendibil Agirre, Gorka | | Garmendia Guzman, Ainhoa | 3-1-A |
| Astigarraga Natividad, Amaia | 1-2-E | Kortabarria Korkostegi, Ana | 3-1-B |
| Palacios Anduaga, Iñigo | 2-behe-A | Corcostegui Oianguren, Olatz | 3-1-C |
| Zabarte Guridi, Ana Maria | 2-behe-B | Guridi Fernandez, Karmele | 3-1-D |
| Ferreriro Intza, Xabier | 2-behe-C | Guridi Aranburu, Hibai | 3-2-A |
| Gomez Fernandez, Lorea | 2-behe-D | Zurutuza Anduaga, Egoitz | 3-2-B |
| Arias Cervantes, Blanca Regina | 2-behe-E | Ezquibel Galdos, Iñigo | 3-2-C |
| Biain Regueiro, Maider | 2-1-A | Garcia Fernandez, Yolanda Maria | 3-2-D |
| Bernal Julian, Santiago | 2-1-B | Madina Aranburu, Joseba | 3-2-E |
| Daroca Delgado, Eduardo | 2-1-C | *Ataria-Solairua-Atea | |

**AGIRI GUZTIAK**

Zozketa bukatu ondoren, etxebizitza egokitu zitzaienek dokumentazioa jaso zuten. Etxeen sustatzaileek esan zieten 15 eguneko epea zutela agiri guztiak aurkezteko.

**UKO EGINEZ GERO, ZIGORRA**

Eguazteneko zozketan etxea egokitu, eta behar besteko arrazo barik etxeari uko egiten dioten eskatzaileek ezin izango dute hiru urtean zozketa gehiagotan parte hartu. Dena den, egun bizi dugun krisi ekonomomikoaren ondorioz –hipoteka-kredituk ez dutelako edo langabezian daudelako– uko egiten dutenek urtebete bakarrik itxaron beharko dute hurrengo zozketan parte hartu ahal izateko.

**HURRENGO ZOZKETAK**

San Martingo etxeak eman ondoren, zozketa berrietarako datak zehaztu zituen alkateak: ekainaren 12an Ugarkalde auzoko 5. eta 6. zenbakietan 40 etxe zozketatuko dituzte; eta uztailean beste 12 etxe Kasablanka iparrean (Urbieta baserriaren ondoan). Bi horietan Etxebideko zerrenda bera erabiliko dute. Gainera, esan zuen irail eta urri aldera beste 116 etxe zozketatuko dituztela: 76 San Martinen eta 40 Ugarkalden.

**Asier Arregi** > Irakaslea

# "Indar makinak modu seguruan nola erabili ikasiko dugu"



Asier Arregi, kiroldegiko gimnasioan. MIREIA BIKUÑA

**M.B.** > OÑATI

**Kiroldegiko gimnasioko indar makinak modu egokian erabiltzen ikasteko ikastaroa egingo dute maiatzaren 18tik ekainaren 20ra arte. Asier Arregi izango da irakaslea.**

**Zergatik erabaki duzue halako ikastaroa egitea?**

Gimnasiora euren kontura etortzen diren askok ez dakitelako makinak ondo erabiltzen. Ikastaroaren helburu nagusia da indarra lantzeko makinak modu seguruan erabiltzen ikastea. Oro har, fitness gelan dauden makina guztien erabilera landuko dugu.

**Nolako ikastaroa izango da?**

Lehenengo hiru saioetan makinen erabilerak landuko ditugu. Gainera, posterretan eta tauletan agertzen diren ariketak nola egin behar dituzten azalduko dut. Ikastaroan parte hartzen duten guztiei egin beharreko ariketen fitxategia emango diegu. Hurrengo sei saioetan, fitxan jasotako ariketak osatu eta erabiltzaileei jarraipena egingo diegu. Hamar pertsona onartuko ditugu, gehienez, talde bakoitzeko.

**Nortzuek parte har dezakete ikastaroan?**

Kiroldegiko gimnasioa erabiltzen duten guztiendako ikastaroa egin nahi dugu; alegia, 16 urtetik gorakoendako. Aukera ona da makinak modu seguruan erabiltzen ikasteko. Hortaz, erabiltzaile guztiak animatuko nituzke. Gure asmoa da bi talde osatzea: astelehenetan eta eguaztenetan 15:30ean eta 20:15ean. Zortzi orduko ikastaroa egin gura dugu.

**Interesa dutenek non eman dezakete izena?**

Kiroldegiko bulegotik pasa beharko dute izena emateko edo informazioa eskatzeko. Prezioari dagokionez, kiroldegiko bazkideek 25 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 35 euro.

**JAIAK**

# San Isidro jaiak gaurtik domekara

**M.B.** > OÑATI

Kasablankan guztia gertu dute San Isidro jaiak ospatzeko. Gaur, 18:00etan hasiko dituzte ospakizunak Isidrotxo basurdearen jaitsierarekin. Ondoren, musika eskolako ikasleen doinuekin txorimaloak irtengo dira. 21:00etan rock-metal jaialdia egingo dute. Zapatuan, besteak beste, haur jolasak, aurpegia margotzeko tailerra, auzo afaria eta Manu Iztuetarekin erromeria egingo dituzte.

Domekan, 12:00etan egingo duten mezaren ondoren, musika eskolako ikasleek kalejira egingo dute. 13:00etan bertso jaialdia egingo dute eta 14:00etan auzotarrek eskainitako luncha.

**Lorentxo Altube** > Musika tresnen bildumagilea

# "Egindako musika tresnen atzetik, dokumentazio lan handia dago"

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

**Lorentxo Altube arrasatearra musikaria eta Euskal Herriko musika tresnen bildumazalea da. Azken 25 urteotan egindako tresnak Ibarraundi museoan izango ditu erakusgai datorren astetik aurrera. Mundumiraren egitarauaren barruan antolatu dute Altuberen erakusketa, Pascal Dione artista senegaldarraren lanekin batera.**



Lorentxo Altube musika tresna bildumazale arrasatearra, erakusketari azken ukituak ematen. MIRIAN BITERI

**Zer ikusiko dute datorren astetik aurrera Ibarraundira joaten direnek?**

Euskal Herriko musika tresnak. Guztira, hamahiru mota ikus daitezke museoko lehen solairuan dagoen aretoan; tartean, txalaparta, alboka, txirula, txanbela, ttun-ttuna eta tobera.

**Noiz hasi zinen tresnak egiten?**

Orain dela 25 urte inguru. Hasieran, perkusioarekin hasi nintzen; txalapartarekin, hain zuzen. Horren ondotik, haizezkoarekin jarraitu nuen, albokarekin; eta gero, harizko harpak egiteari ekin nion. Soinu tresna garrantzitsuenak horiek dira, nire ustez.

**Nolatan zaletasun hori?**

Esan bezala, txalaparta izan zen lehena. Semeak Bilbon ikasi zuen jotzen eta hona etorri zenean, laguntzak eman zizkioten zelan jotzen zen erakusteko. Orduan txalaparta bat edo bi egitea pentsatuta banuen ere, jende askok eman zuen izena ikastaro horietarako Arrasaten.

Domeka goizetan mendira joaten hasi nintzen orduan, eta, modu horretan, askotariko egurrak topatu nituen, oholak eta makilak egiteko. Azken horren harira, makilen torneatzea uretan egiten nuen. Egurra tratatu ostean, sailkapena egin nuen, bakoitzaren tonua eta dezibelioak neurtuz.

**Eta horrekin amaitzean, Euskal Herriko beste musika tresna batekin hasi zinen: alboka...**

Hala da. Durangaldean eta Txorierrin asko jotzen zen. Historiak dio Arrasaten ere, 1435. urtean, panderoarekin batera jotzen zela. Albokarekin amaitu ostean, gainontzekoekin hasi nintzen. Artisautza lanak egiteaz gain, tresnak ere berritu ditut.

> **"Ttun-ttunerako Iparraldera joan nintzen maskaradak eta pastoralak ikustera"**
>
> **"Nire helburu nagusia beti izan da gauza zaharrak ez daitezela ahaztu"**

**Dokumentazio lana, beraz, oso garrantzitsua da...**

Bai. Txalaparta ezagutzen banuen ere, soinuan-eta asko sakondu nuen. Albokarako liburuetan begiratu nuen eta ttun-ttunerako, berriz, Iparraldera joan nintzen askotan maskaradak eta pastoralak ikustera. Gainontzeko tresnekin antzera ibili nintzen.

**Zein da zure tresna kuttunena?**

Txalaparta, bereziena da. Horretan gauza asko sakondu behar dira: askotariko tinbre, soinu eta materialak daude.

**Musika tresnez gain, esan bezala, baserriko makineriaren alorrean ere ibili zara...**

Hala da. Baserriko tresneria asko topatu eta berritu ditut. Guztira, 200 tresna inguru bildu ditut, horiekin erakustaldiak egiteko. Nire asmo nagusia beti izan da gauza zaharrak ez daitezela ahaztu. Euskal Herri osotik pasa naiz horrekin.

**Zure bildumaren zati handi bat Eskoriatzan dago bilduta azkenaldian. Zergatik?**

Arrasaten neukan bilduma guztia oso polita ipinita, Etxaluze baserrian. Baina baserria bota egin behar izan zen, orain eraikitzen diharduten zaharren egoitza egiteko. Nora eroan ez neukan eta Eskoriatzakoek lokala eskaini zidaten, erakusketa moduan jarraitu ahal izateko.

Orain, Mundumirarako, musika tresnen gaineko material guztia jarri dut ikusgai. Interesa duenak museoan aurkituko nau maiatzaren 22tik 24ra bitartean.

---

**KIROLA** > INTXAURTXUETA KIROLDEGIA

## Bihar, zapatua, itxita egongo da goiz osoan igerilekua, eskola kirola dagoelako

M.B. > ESKORIATZA

Herriko igerilekua itxita egongo da bihar, zapatua, goizean, eskola kirola dela-eta. Guztira, Lehen Hezkuntzako 80 haur inguru ibiliko dira jolasean igerilekuan, 10:30etik 12:30era. Kiroldegitik jakinarazi dute zapatu arratsaldean ohiko ordutegian egongo dela zabalik, 14:30etik 20:30era bitartean.

**KANPOKOA, EKAINAREN 13AN**

Bestalde, iragarri dute kanpoko igerilekua ekainaren 13an irekiko dela. Orduan, udako ordutegia izango dute barruko igerilekuan. Hori iristen den bitartean, baina, hona hemen gaur egungo ordutegiak: astelehenetik barikura, 08:00etatik 21:00etara; zapatuetan, 09:30etik 12:30era eta 14:30etik 20:30era; eta domeka eta jaiegunetan, 09:30etik 13:00etara.

---

> AISIALDIA

## Txomin Txapel eguna ospatzeko egitarau zabala gertatu dute gaur, barikua, Huhezi unibertsitatean

Gaur, barikua, Txomin Txapel eguna ospatuko dute Huheziko fakultatean. Eguerdian, Txomin Txapelen jaitsiera egingo dute eta ordubete beranduago, triki-poteoa hasiko dute ikasleek. 14:30ean, berriz, bazkari herrikoia antolatu dute unibertsitatean. Antolatzaileek jakinarazi dute, horren harira, bazkarirako txartelak salgai daudela fakultateko kafetegian.

Arratsaldea ere ekimenez josita dator. 16:00etan, jolasak aurreikusi dituzte eta 18:30ean, aldiz, manifestazioa egingo dute herriko kaleetatik; hori amaitzean, ekitaldia ere izango dute. 20:00etan, batukada potearen txanda iritsiko da eta eguna behar bezala amaitzeko, kontzertuak eta dantzaldia egongo dira.



Joan den urtean, 40 baserritar eta erretiratutik gora bildu ziren eguerdian Aingeru Guardako ermitan, San Isidro eguna ospatzeko. ARANTZAZU EZKIBEL

**JAIA** > SAN ISIDRO EGUNA

# Baserritarrek meza eta bazkariarekin ospatuko dute eguna

Azken urteotan bezala, 12:00etan elizkizuna dute Aingeru Guardan eta Egokienan bazkalduko dute

**MIRIAN BITERI** > ESKORIATZA

Eguneroko lan gogorrak albo batera uzteko aukera izango dute aurten ere herriko baserritarrek. Jaiegunetako arropa jantzi eta euren eguna, San Isidro eguna, behar bezala ospatu ahalko dute gaur, barikua.

Egitarau xumea gertatu dute horretarako. Lehenik eta behin, eguerdian meza egingo dute, azken urteotan moduan, Aingeru Guarda ermitan. Baserritarrez gain, herriko erretiratu asko joaten da urtero hara.

Jarraian, herrirantz abiatuko dira eta hango tabernetan tragotxoa hartu ostean, 14:00 aldera bazkaltzera joango dira. Egokiena elkartean egin dute aurten ere hitzordua. Ederto bazkalduko dute han eta, bide batez, hainbeste ardura eragiten dituen bizimoduaz luze eztabaidatuko dute, ziurrenik, Egokiena elkartean; jai giroa albo batera utzi barik.

**25 LAGUN INGURU**

Aurten, 25 lagun inguru espero dituzte hitzordu horretan. Urtero joaten direnek adierazi dute urtetik urtera kopuru hori jaitsi egiten dela. Horren harira, gogorarazi dute herriko baserrietan oraindik jende asko bizi bada ere, baserriko lana egitetik bizi diren eskoriatzarrak gero eta gutxiago direla.

Aspaldi egun handia zen San Isidrorena herrian. Nagusienek meza San Pedro parrokian egiteaz gain, dantzaldia ere egoten zela gogorarazi dute. Hainbat urtez eguna ospatu barik egon ostean, erretiratu talde batek Udalaren laguntzarekin Aingeru Guarda ermita berritu zuenean, meza han egitea erabaki zen eta azken urteotan han egin izan da.



Aurten ere 1929. urtean jaiotako eskoriatzarrak bilduko dira. GOIENKARIA

**OSPAKIZUNA** > KINTADA

# 1929an jaiotako eskoriatzarrek bazkaria egingo dute bihar

Hamasei lagun elkartuko dira aurten; Otzeta jatetxean bazkaldu ostean, 19:00etan meza dute

**M.B.** > ESKORIATZA

Bihar, zapatua, hitzordu berezia dute Eskoriatzako 50. urteko kintoek (1929an jaiotako eskoriatzarrek). Aspaldiko ohiturari jarraituz, bazkaria izango dute aurten ere. Egun osoko ospakizuna egingo dute, zilarrezko ezteiak egingo dutelako.

Eguerdian, Otzeta jatetxean bazkalduko dute. Aspaldiko bizipenak gogora ekartzeko aukera izango dute. Etxera erretiratu aurretik, herriko San Pedro parrokian meza izango dute, 19:00etan.

**EMAKUMEAK ANTOLATZAILEAK**

Azken urteotan bezala, hamasei bat lagun elkartuko dira. Emakumeak izan dira bilkura hori antolatzeaz arduratu direnak.

> IKASTAROA

## Munduko dantzen gaineko ikastaroa egongo da bihar arratsaldean herriko kultura etxean

Bihar, zapatua, munduko dantza ezagunenak ikasteko aukera egongo da berriro Eskoriatzan. Patxi Montero dantza irakasleak saio bakarra eskainiko du arratsaldean, 17:30etik 20:30era, kultura etxean. Ikastaro horrek bost euro balioko du.

Edonori zabalik egongo da ikastaroa. Horren harira, antolatzaileak jakinarazi du parte-hartzaileek ez dutela aurretik inolako esperientziarik izan behar. Munduko eta, bereziki, Europako dantza errazenak eta ezagunenak zein Errusiako dantzak zelan dantzatu behar diren erakutsiko die. Horretarako, dantza bat praktikatzen hasi aurretik, dantzaren pauso guztiak erakusten dizkiela azaldu du.

## oharrak

IZENEMATEA

**> Kulunka haurreskolan izena eman daiteke gaur arte**

Gaur, barikua, amaitzen da datorren ikasturteari begira Kulunka haurreskolan 0 eta 2 urte bitarteko umeak apuntatzeko epea.

UMEAK

**> Gaur amaitzen da udaleku irekietan apuntatzeko epea**

Uztailaren 6tik 24ra egingo diren udaleku irekietan parte hartzeko izena emateko epea gaur amaitzen da. 1997 eta 2005. urteen artean jaiotakoek parte hartu ahal izango dute. Bestalde, udaleku horietarako begiraleak ere behar dituzte. Bihar arte dute dokumentazioa Tortolis ludotekan aurkezteko aukera.

KIROLA

**> Areto-futboleko partiduak daude bihar Intxaurtxuetan**

Areto-futboleko lehen partidua 16:00etan hasiko da Intxaurtxuetan. Gazten mailan, eskoriatzarrek azpeitiarrak izango dituzte aurrean. Jarraian, 18:00etan, erregionaleko lehen mailan jokatzen direnena egongo da. Eskoriatza San Martin taldekoen kontra lehiatuko da.

ONA TXARTELA

**> Eguazten eta eguen arratsaldeetan lor daiteke Ona txartela**

Maiatzean ere Ona txartela eskuratzeko aukera egongo da Udal Liburutegian. Interesa dutenek eguaztenetan edo eguenetan joan beharko dute hara, 16:30etik 20:00etara bitartean.

JAIAK > SAN ISIDRO

# Artisauak, ganadua, musika eta bertsoak izango dira bihar azokan

Pilotaleku inguruan ardiak, behiak, behorrak eta astoak ipiniko dituzte

Kukumarroak egingo dituzte umeek zein adinekoek lehiaketarako

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

San Isidro eguna maiatzaren 15ean izanik, hilaren 16an, zapatuan, azoka izango da, urtetako ohiturari jarraituz.

Goizean barrena, 09:00etatik 14:00etara bitartean, pilotaleku inguruan ganadu azoka egingo dute. Ardiak, behiak, behorrak eta astoak ipiniko dituzte ikusgai herriko ganaduzaleek; besteak beste, Idalatorre, Lizarriturri, Altzeta, Iribar eta Lamaño gainekoa baserrietakoek eta Irumendi elkartekoek.

**GAZTA ETA ARTISAU LANAK**

Ordu berean, plazan, produktuen salmenta izango da. Herriko baserri bakarra izango da azokako ordezkari: Anbu, hain zuzen ere. Gainontzean, batik bat gazta eta artisau produktuak ipiniko dituzte salgai kanpotik etorritakoek.

Bestalde, Anelkar elkartasun taldeko kideek bidezko merkataritza produktuekin postu bat ipiniko dute azokan. Azukrea, txokolatea, kafea, gailetak... eta halako jakiak; edariak; bitxi, poltsa, zapi eta antzerako osagarriak; etxea janzteko osagarriak; eta argazki albumak salduko dituzte. Artisau lanak ere; horiek ere, Arrasateko Harreman dendan salgai izaten direnak.

**SARI BANAKETAK**

Hori goiz guztian barrena, baina tartean beste ekitaldirik ere izango da. 10:30etik aurrera Trekutz elkartean salda banatuko dute; 11:00etan meza izango da; eta 12:00etan txistulariak eta trikitilariak irtengo dira kaleko giroa alaitzera.

Ordu berean, Antzuolako Txokoak argazki lehiaketako sariak banatuko dituzte Olaranen eta lehiaketako argazkiak ikusgai izango dira 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 20:30era bitartean zapatuan eta domekan.

Kukumarro lehiaketako sari banaketa egingo dute 12:30ean; eta azkenik, 13:00etan Agin Rezola eta Urko Egaña bertsolarien saioa izango da.

San Isidro egunaren aitzakian nekazaritza eta artisau giroan ibiltzeko aukera izango dute herriko baserritarrek zein kaletarrek zapatuan.



Aurreko ibilaldietan parte hartu dutenak ere elkartu nahi dituzte. GOIENKARIA

MENDIA > MUGARRIEN IBILBIDEA

## Deskarga eta Aizpurutxo arteko ibilaldia domekan

Mugarrien ibilaldietan parte hartu dutenendako bazkaria izango da

I.A. > ANTZUOLA

Udalak eta Arrolak antolatuta, maiatzaren 17an mugarrien hirugarren ibilbidea egingo dute. 09:00etan Sagastin irten eta Deskargara autoz joanda, hiru ordu eta erdi edo lau orduko ibilaldia egingo dute.

Ibilbidean hauek ikusiko dituzte: Deskargako mugarria; Boton gaina eta landutako mugarri berezia; Txintxaleku gaina, Trekutz-Irimo bidean; Larregi harrobia eta ingurua; Bazterriña, Ursalto, Ondamendi eta Pikunieta baserriak eta Trekutz.

Ondoren, orain arte mugarrien ibilbideetan parte hartu duten guztiendako bazkaria izango da. Paella dastatzeko aukera edukiko dute Meakan. Antzuolako eta Urretxuko 80 lagun inguru espero dituzte.



GOIENKARIA

## 'Patxiko Txerren' liburuxkaren aurkezpena

Zapatuan egin zuten liburutegian Patxiko Txerren Ipuingintzako ekitaldia. Apika taldearen emanaldiaren ondoren, lehenengo mailatik seigarrenera bitarteko umeen ipuin aukeratuekin osatutako liburua aurkeztu zuten. Maila bakoitzetik ipuin bat aukeratu eta sei lanekin osatu dute liburua. Argazkian lanen egileak ageri dira Apika taldekoekin: ondorengo hauek dira: Laia Altube Lorda; Olaia Jimenez Flores; Iñigo Aranburu Ruiz; Toheed Tariq; Santiago Rosales Abreu; eta Leire Iparragirre Larrañaga.

## oharrak

HITZALDIA

**> Tibeteko preso politikoa**

Eskoriatzan maiatzaren 22an, 23an eta 24an egingo duten Mundumira jaialdiaren harira, martitzenean, 19:00etan, hitzaldia izango da Olaranen.

Tibetetik etorritako 70 urteko monje budista batek egingo du berba *Un tiempo, tres vidas* izenburupean. Tibeteko lehenengo preso politikoa da eta bizi izandako egoeren berri emango du; bere lehengo bizimodua, preso egon zenekoa eta orain, errefuxiatu moduan bizi dituenak. Euren eskubideen alde egiteagatik hainbat tibetarrek jasandako sufrimendua agerian uzten duen *Budas en el exilio* dokumentala emango dute gero.

ERRETIRATUAK

**> Hitzaldia eta irteera**

Antzuolako erretiratuek eta Bizikasik antolatuta hitzaldia izango da eguenean, maiatzaren 21ean, 17:30ean, erretiratuen egoitzan. Fernando Viciosak etxeko istripuen arriskuen gainean jardungo du.

Bestalde, erretiratuek maiatzaren 27rako Zumaiara egun erdiko irteera antolatu dute. 15:00etan Antzuolatik irten, Zumaiara joan eta gidari batekin alde zaharra eta arrantzaleen kofradia bisitatuko dituzte eta ondoren merienda egingo dute Loiolan. Izena emateko maiatzaren 19an eta 20an 16:00etatik 18:00etara bitartean joan behar da elkartera eta 11 euro ordaindu.

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

zabalo
IGELTSEROTZA
Jose Luis Zabalo
Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. eta faxa:
943 76 60 89
ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**TASAK** > ZABORRAK

# Bigarren seihilabeteko zaborren gaineko tasak %17,86 igo dituzte

## Urtarrilean %10eko igoera egin ondoren, uztailetik aurrera zabor tasen tarifa arrunta 9,52 euro izango da

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Azken udalbatzarrean gehiengoz onartu zuten, EAJ-EAko zinegotzien aurkako botoekin eta gainontzekoen aldekoekin, Debagoieneko Mankomunitateak proposatutako hiri hondakinak jaso, garraiatu eta kudeatzeko tasen igoera, %17,86koa, bigarren seihilekorako.

Urtarrilean tasen igoera %10ekoa izan zen eta, ondorioz, iaz hiru hilabeteko kuota tarifa arruntetan 7,35 euro bazen, aurten 8,08 euro izatera pasa da. Hori, lehen sei hilabeteetan; izan ere, bigarrenerako proposatu duten igoerarekin, kuota 9,52 euro izango da.



Mankomunitateak egingo du bide publikoko bilketa. IRATI AGIRREAZALDEGI

**SUPERABITAREKIN ORDAINDU**

EAJ-EAko zinegotziek, gehiegizkoa iritzita, aurkako botoa eman zioten urtarrileko %10eko igoerari eta oraingoan ere aurka bozkatu dute.

Patxi Basauri zinegotziak udalbatzarrean esan zuenez, "Debagoieneko Mankomumitateak kreditu baten bitartez-edo aurre egin beharko lioke igoerari. Baina egin ez duenez, eta igoera horrek Udalarendako 8.624 euroko kostua izango duenez, proposatzen duguna da iaz Udalak urtea superabitarekin itxi zuenez, kopuru horretako diru zati bat zabor tasen igoerari aurre egiteko baliatzea. Krisi egoeran gaudela ikusita Udalak ez duela ondo jokatu uste dugu".

**GIPUZKOAKO ZABOR POLITIKA**

Oxel Erostarbe alkateak, berriz, hauxe esan zuen: "Elgetan EAJ-EAk proposamen hori egitea aintzat hartzekoa da, baina kontua ez da Elgetakoa ezta Debagoieneko Mankomunitatekoa ere, Gipuzkoakoa baizik. Gipuzkoan badakigu zein dagoen agintean eta zein zabor politika bultzatzen duen".

Tasak igotzearen arrazoia da Mankomunitateak bide publikoko bilketak eta garbiguneen kudeaketa egin arren uztailetik aurrera Gipuzkoako Hondakinen Kontsorzioa arduratuko dela gainontzekoaz eta 125,74 euro kobratuko dizkiola Mankomunitateari tona metriko bakoitzeko.

## bere ustez



Alberto Telleria

### Liberaziño eguna

Harrittu egin ninduan aprilaren 24an abertzaliak eta errepublikanuak egun señalau horretan, Salbador kalian gora ikusi nittuanian. Hori egunoi beti lotu izan dot batzuen zelebraziñuakin eta bestien ezintasunarekin. Oin, hemendik aurrera, salaketiarekin lotuko dot; herrixan pasautako gogoeta penatuen liberaziñuarekin; zelabaitteko amorruaren liberaziñuarekin; lasaittasunaren eta patxadiaren liberaziñuarekin…

Hala ta be, nago liberaziñua ez dala erabatekua izango, orduko zenbait emakumek sufridutakua – sufrimentu fisikua, horren ondorioz psikologikua…– kontuan ez bada hartzen eta jakinaren ganian lagatzen. Gerra kontuak entzun dittutenian, ez dot sekulan holakorik entzun. Lehenengoz, Antoni Telleriak aittatu eban jente aurrian, neuk dakittetela behintzat; Petra Agirreazaldegik ez eban horretarako aukerarik izan, akaso gogorik bez; isilpian edo etxian gordetzeko autuak ziren ziurrenera (ikus. *Kontzejupetik* 121 zki-xan. 29. o. agertutako erretratua).

**"Barkamena birtude bat ei da, baiña barkatzeko egi danak azaldu bihar dira"**

Barkamena birtude bat ei da, baiña barkatzeko egi danak azaldu bihar dira, mahai gaiñeratu, harra barruan geratu ez dein. Denporiak, batzutan, ez dau dana ahaztu eragitten.

## 88 urteko gizona hilda, kamioiak harrapatuta

Domingo Iturbe kalean gertatu zen ezbeharra, atzo, eguena, 10:50ak aldera. Ertzaintzak emandako datuen arabera, 88 urteko gizonezkoa Renault-300 markako kamioi batek harrapatu zuen eta bertaratu ziren osasun zerbitzuek ezin izan zuten ezer egin. Bertan hil zen F.M.A. gizonezkoa.

Ertzaintza Domingo Iturben gertatutakoa ikertzen ari zen atzo eguerdian, erredakzioa ixteko orduan.


MIREN ARREGI

## oharrak

KIROLA

**> Mendi bizikleta irteera**

Domekarako, maiatzaren 17rako, mendi bizikleta irteera antolatu du Egoki kirol taldeak. 16 urtetik gorako herritarrendako izango da. Herriko plazatik 08:30ean irtengo dira txirrindulariak eta zailtasun ertaineko ibilbidea egitea da asmoa; baina antolatzaileek esan digute izena ematen duten zaleen arabera egokitu ahal izango dela.

ERRETIRATUAK

**> Podologoa eta irteera**

Podologoaren maiatzeko kontsulta hilaren 21ean izango da, 15:00etan hasita. Ordua hartzeko Nati Arrietari deitu behar zaio (943 76 80 77). Bestalde, erretiratuendako egun erdiko irteera antolatu dute maiatzaren 27rako Abadiñoko Gaztelu auzora. Joan nahi dutenek Pedro Mari Uberari eman behar diote izena hilaren 24a baino lehen.

## frontenis txapelketa

### Finalak, ekainaren 6an

Frontenis txapelketako finalak aste bukaera honetan ziren jokatzekoak, baina frontoiko konponketak direla eta finalistaren batek ezin duelako, atzeratu egin dituzte. Hortaz, ekainaren 6an, zapatuan, jokatuko dira, 18:30ean hasita. Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko partiduak lehenengo eta finalak gero.

**PARTIDUAK (Ekainaren 6an, 18:30ean hasita)**

Asier Morales-Asier Osoro/Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren
Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa/Nagore Morales-Janire Lazkano
Odei Zenitagoia-Mikel Beretxinaga/Eñaut Arantzeta-Aritz Gallastegi
Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera/Idoia Serna-Nagore Ojanguren

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Asier Morales-Asier Osoro/Eñaut Arantzeta-Aritz Gallastegi | 7-25 |
| Josu Arantzabal-Eneko Ojanguren/Eñaut Arantzeta-Aritz Gallastegi | 19-25 |
| Mireia Berriozabal-Rebeka Ubera/Nagore Morales-Janire Lazkano | 25-19 |
| Idoia Serna-Nagore Ojanguren/Idoia Elkoro-Garbiñe Sarasketa | 25-13 |

**AZPIEGITURAK**

# 400 kw-ko linea elektrikoa, herrian

## Ingurumen Ministerioaren eskutitza jaso du Udalak asteon

**A.B.** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak eskutitz bat jaso zuen astelehenean Espainiako Ingurumen Ministeriotik. Bertan azaltzen da Aramaio zeharkatuko duen 400 kilowatteko linea elektrikoa sartu nahi dutela; Oleta auzotik sartuko litzateke Aramaiora eta Suña auzoan irten, herria zeharkatuz. Gueñestik (Bizkaia) Ezkio-Isasora (Gipuzkoa) joango den linea elektrikoa da.

Ingurumen Ministerioak aurkeztutako proiektuaren arabera, 46 metro inguruko zutabeak eraiki beharko dira eta 40 metro inguruko zabalera izango duen bidea egingo da, linea elektrikoa bertan sartzeko.

Aramaioko Udalak ezustean hartu du berria, eskutitz horren bitartez izan duteeta, lehenengo aldiz, proiektu horren berri. Asier Agirre alkateak azaldu du proiektua "zorakeria" iruditzen zaiola. Eta gaineratu du, hasteko eta behin, Ministerioari informazio gehiago exijituko diotela.

**KULTURA** > MUSIKA

# Udalak musika etxea ipini nahi du martxan

## Herritarrek osatutako fundazio bat sortu nahi da musika etxea kudeatzeko; Udalaren asmoa da herritarren inplikazioa handia izatea proiektuan



A. BARRUSO

Musika etxea Pedro Ignacio Barrutia kalean kokatuko da.

**ARRITXU BARRUSO** > ARAMAIO

Aramaioko Udalak musika etxea sortu nahi du. Musika eskola beharrean, musika etxe ipini nahi izan diote izena; izan ere, ez da eskolak emateko bakarrik erabiliko. Izenak dioen moduan, musikarekin lotutako ekimenak eta ekintzak batuko dituen etxea izango da. "Herrian musikarekin lotutako elkarte eta talde dezente ditugu eta nahi duguna da musika etxean horien guztien bilgunea izatea. Musika eskola funtzioa ere izango du, noski, Aramaioko gaztetxoek lehenengo urteetan, behitzat, musika ikasketak Aramaion egin ditzaten, Arrasatera joan beharrik izan gabe", azaldu du Asier Agirre alkateak.

Proiektu honen asmoa da gazteek oinarrizko ikasketak Aramaion bertan egin ahal izatea eta, gero, espezialitatea egitera Arrasatera joatea. Eraikina zein izango den ere erabaki du Udalak, Pedro Ignacio Barrutia kalean egiten ari diren babes ofizialeko etxebizitzen azpian dagoen lokalean kokatuko da.

**FUNDAZIOA**

Musika etxeak, gainera, beste berezitasun bat izango du. Ez da Udalarena izango, asmoa da fundazio bat sortzea eta hark kudeatzea. Batzorde bat sortuko da eta batzorde horrek hartuko ditu erabakiak. "Gura duguna da musika etxea herritarrena izatea eta herritarrek kudeatzea. Udalak, noski, batzorde horretan ordezkaritza izango du, oraindik zehaztu gabe dagoena, baina, ardura gehiena herritarrena izango da", azaldu du alkateak. Fundazio horretako kide izateko kuota bat ordaindu beharko da.Udalak aste batzuk barru bilera irekia egingo du herritarrei proiektuaren berri emateko.

**ERAKUSKETA**

# Gay eta lesbianen egoera munduan

## 'Romeo & Romeo Julieta & Julieta' erakusketa ikusgai aste bukaeran

**A.B.** > ARAMAIO

Lesbitoria Gaysteiz elkarteak gay, lesbiana eta transexualek munduko herrialde desberdinetan bizi duten egoera azaldu nahi du *Romeo & Romeo Julieta & Julieta* erakusketarekin. Elkarteko kideek azaldu dute gutxi gorabehera munduko 80 herrialdetan gay, lesbiana edo transexuala izatea delitua dela, eta zenbaitetan heriotza zigorra ere ezartzen zaiela. Hain justu ere, horixe da elkarte horrek salatu nahi duena. Maiatzaren 17an, gainera, homofobia eta transfobiaren kontrako nazioarteko eguna ospatuko da, eta hori da erakusketa egitearen beste arrazoia. Aste bukaeran, Aramaioko osoko bilkuren aretoan egongo da ikusgai.

**UDALA**

# Udaleko lau lanpostutan aldaketak egon dira

**A.B.** > ARAMAIO

Udaletxean baja asko izan dituzte denbora laburrean, baina dagoeneko bete dituzte hutsik geratu ziren lau lanpostuak.

Aurrerantzean, Udaleko idazkari lanetan Larraitz Sanzberrok jardungo du; orain arte Arrasateko Udalean ibili da lanean, Administrazio Orokorreko teknikari. Kontu-hartzailea ere berria da: Amagoia Zubillaga du izena eta aramaioarra da. Arkitekto postua, berriz, Egoitz Mendizabal bilbotarrak beteko du. Aramaioko eta Otxandioko udaletan egingo du lan. Azkenik, aparejadore berria: Oier Ezkerra dauka izena eta gasteiztarra da.



AIZPEA AJURIAGERRA

## Gureia auzoko ziburu berrietan, umeak pozik

Gureia auzoko umeek bereziki gustura hartu zuten pasa den aste bukaeran egindako eguraldi polita; izan ere, ziburu berriak ipini dituzte auzoan eta horiek estreinatzeko desiratzen zeuden auzoko txikitxoenak. Udalak bi ziburu eman dizkie Gureiako auzotarrei eta auzo-lanean ipini dituzte ziburuok. Astean zehar muntaketa lanetan ibili ziren aste bukaerarako lana bukatuta izateko. Auzotarrek argazki hori bidali digute eta azaldu dute, horrela, eskerrak eman nahi dizkiotela Udalari umeendako opari hori egitearren.

> BIDAIEN DIAPORAMAK

### Hilaren 21eko hitzaldia atzeratu egingo dute

Maiatzerako *Bidaien gaineko diaporamak* izeneko programa antolatu dute eta eguenero bidaien gaineko hitzaldiak eskainiko dituzte. Maiatzaren 21erako aurreikusitako hitzaldia, baina, atzeratu egingo dute, greba orokorrerako sindikatuek egindako deialdia dela-eta.

Hori horrela, Xabier Aranbururen *Afrikako hegoaldeko animaliak* hitzaldia ekainaren 4an izango da, 19:00etan, kultura etxean.

> KULTURA

### Kanpai-jotze eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Ibarran

Ibarran, zapatuan, kanpai doinuak entzungo dira behin eta berriz; kanpai-jotze eguna ospatuko dute.

11:00etan Patxo Fernandezek hitzaldia egingo du Aramaioko kanpaien historiaren gainean. 11:45ean, berriz, Arientzako kanpai-jole eskolako kideek orain arte egindako lanaren gaineko azalpenak entzungo dituzte. Amaitzeko, San Martin parrokiako kanpaiak joko dituzte.




Foru Aldundiko eta Leintz Gatzagako ordezkariak, gatz museoa bisitatzen.
TXOMIN MADINA

**BISITA** > MARKEL OLANO HERRIAN

# Herriko proiektuen berri eman diote diputatu nagusiari

Landa Garapenerako diputatu Rafael Uribarren izan du lagun Olanok bisitan

Landagipuzkoa egitasmora aurkeztu dituzten proiektuak ontzat eman ditu

**T. MADINA/M. ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA
Astelehen goizean izan zen Markel Olano diputatu nagusia Gatzagan. Eusebio Villar alkatea buru zuen udal ordezkari taldeak egin zion ongietorria eta herriko proiektuen berri eman zioten Olanori eta harekin batera etorri zen Rafael Uribarren Landa Garapeneko diputatuari.

**PILOTALEKUA ESTALTZEA, ONARTUTA**
Batzarra egin zuten lehenengo guztiek udaletxean eta herrirako dituzten proiektu eta asmoen berri eman zien alkateak. Jakinaren gainean zeuden, baina, diputatu nagusia zein Landa Garapenekoa; izan ere, Landagipuzkoa 32 egitasmora aurkeztu dituzte proiektu horiek dirulaguntza jasotzeko ahaleginetan. Hiru dira Udalak aurkeztutako proiektuak: hainbat baserritako bide sarrerak egokitzea; pilotalekua estaltzea eta Gatzagainera ura eroatea.

Lehenengo biak dagoeneko onartuta ditu Aldundiak eta baserrietako sarbideak egokitzen dagoeneko hasita daude; Gatzagainen, hain zuzen. Hirugarrenak, uraren kontuak, oraindik ez du baiezkorik jaso, baina, Olanoren esanetan, "asmoa da proiektuarekin aurrera egitea".

**TURISMOA INDARTU**
Landagipuzkoa 32ra aurkeztutako asmoez gain, beste proiektu batzuen berri eman zien alkateak; besteak beste, turismoa indartzeko eta 1986ko herriko arau subsidiarioa aldatzeko asmoak. Proiektuen finantzazioaz ere jardun zuten eta Olanok esan zuen proiektuak partekatuak direla; hau da, zati garrantzitsuena Aldundiak jarri arren Udalak ere egin behar duela ekarpena. Herriko arazoei erantzuteko ilusioa ikusi duela gaineratu zuen.

Bai Olanok, bai Uribarrenek gatz museoa eta Dorletako santutegia bertatik bertara ezagutzeko aukera izan zuten, museoko arduradun Aitziber Gorosabelen azalpenak lagun.

ESANAK

**"Proiektuak partekatuak dira; gehientsuena Aldundiak jarriko du baina Udalak ere egin behar du ekarpena"**

**Markel Olano** > Diputatu nagusia

**TASAK**

## Ura eta estolderia ordaintzeko epea

Ekainaren 2ra bitartean ordaindu behar dituzte bi tasak udaletxean

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA
2009ko lehenengo hiruhilabeteko edateko uraren eta estolderia zerbitzuaren tasaren errolda onartu du Udalak eta ordaintzeko epea zabalik dago. Ekainaren 2a bitartean ordaindu beharko dituzte aipatutako tasak gatzagarrek, udaletxeko zerga bilketa bulegoan –ordainagiri helbideratuen kasuan izan ezik–.

Herritarren bat ez balego ados tasa ordaintzearekin, hilabeteko epea dauka erreklamazioa aurkezteko udaletxean. Eta ordaindu ezean, prozedura exekutiboaren bitartez eskatuko diote dirua zordunari.

> INTERNET

### Haizea Odria begiralea gaur dago KZgunean

Gaur, hilak 15, KZguneko begirale Haizea Odria izango da Gatzagan (16:00-20:00 da ordutegia). Ez du ikastarorik egingo, baina herritarrek Internеten gainean dituzten zalantzak argitzen saiatuko da. Gainera, IT txartela eskuratzeko non egin daitezkeen azterketak eta Ona txartela egiteko zer behar den jakinaraziko die gatzagarrei.

URONDO
Elektrizitatea
* Elektragaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Proiektuak
* Argiztapena
* Bobinaketak
Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

**FUTBOLA** > PREFERENTEA

# 23 urteren ondoren, UDAk Tolosan du hirugarren mailara igotzeko hitzordua

Zapatuan (18:30), Aretxabaletako futbol jokalariak hirugarren mailara igotzeko asmoz zelairatuko dira Berazubi futbol zelaira



*Piru* zapatuko partikuko bigarren zatian, Igartuak egindako erdiraketa buruz errematatzen. JOSETXO ARANTZABAL

**XABIER URTZELAI** > ARETXABALETA

Aretxabaletak (67) Tolosan lor dezake zapatuan hirugarren mailara igotzeko beharrezkoa duen puntua. UDAkoek gertu daukate helburua, eta helburua lortzen laguntzeko klubak autobus bat antolatu du zale aretxabaletarrak Berazubin egon daitezen. Autoz ere zale asko eta asko joango dira Tolosara, preferentean talde gutxik izaten ditu-eta Aretxabaletak beste jarraitzaile.

Eta horrekin batera, bada beste arrazoi bat jokalariak gertutik jarraitzeko; izan ere, 23 urte igaro dira UDAk azkenekoz hirugarren mailarako txartela eskuratu zuenetik (1985-1986 denboraldian).

**KONTRARIO GOGORRA**

Joan den astean Aretxabaletak ondo bete zuen helburua (2-1), baina Astigarragako Mundarro (30) ez da Tolosa (58). Tolosa bigarren dago sailkapenean, eta haiek ere asko dute jokoan; gutxiren buruan egongo da UDA harrapatzea, baina bigarren postuagatik lehia handia izan behar da azken jardunaldira arte, eta hiru final horiei begira tolosarrek dute abantaila. Hala ere, zapatuko partidua irabaztea ezinbestekoa da Tolosarendako, gertu, oso gertu dituztelako Pasaia (57), Hernani (56) eta Aloña Mendi (56).

Horrenbestez, UDAk baino garaipen premia handiagoa izango du bihar Tolosak; horregatik, ez luke zentzurik izango Aretxabaletako mutilak tolosarrak baino urduriago zelairatzea.

**KONTUZ ALOÑA MENDIREKIN**

Tolosar batek baino gehiagok pentsatuko du hori, seguruenik. Josu Zubiaren mutilek Hernani hankaz gora utzi zuten joan den astean (0-2), eta liga amaitu arte oñatiarrek gutxi dute galtzeko eta dena irabazteko. Taldeko lanean dago euren indarra, eta baita otsailean dena galdutzat ematetik berriro ere ilusionatzera pasatu direla. Domekan Trintxerpe izango dute aurrean, joan den astean Mondrari min egin zion taldea. Pasaitarrek, baina, dagoeneko ez dute ezer jokoan, eta Aloña orain da arriskutsua.

**LAGUN GIRORIK EZ MOJATEGIN**

Zapatuan Mondrak (32) Euskalduna (32) hartuko du Mojategin. Eta, neurri handian, denboraldi osoko lana egongo da partidu horretan jokoan. Jaitsiera postuan dagoen EHU Vasconiak (30) ez du amorerik eman gura, eta horrek gorago dauden taldeei larritasuna eragiten die. Eta bai, Mondra da egoera horretan dagoen taldeetako bat.

PROTAGONISTEKIN BERBETAN



**Gorka Iturbe**
UDAko atzelaria

"Denboraldia luzeegia egin ez dadin hobe da behar dugun puntua lehenbailehen eskuratu eta urtea lasai amaitzea. Bihar Tolosara jende asko joaten bada animatzera, taldeak eskertuko du hori, kanpoan ere babesa izatea".



**Iban Espinosa**
UDAko aurrelaria

"Orain arte moduan topera irteten bagara, Tolosa ez da kontrario izango. Hasierako hamaikakoa bakarrik ez, hara joango garen 20 jokalariak orain arteko konfiantzarekin bagoaz, eta zaleen laguntza badugu, lortuko dugu helburua".



**Igor Gordobil**
Entrenatzailea

"Zaila izango da, Tolosa joaneko partiduan asko gustatu zitzaidan. Lehenengo zatian gu baino hobeak izan ziren, nahiz eta bigarrenean guk egin gola. Guk gure jokoa egin behar dugu, eta lasai eta irabaztera irten".



**Iban Astola**
UDAko atzelaria

"Jokalariondako oso partidu polita izango da, polita eta gauzak ikastekoa. Ez dugu urduri jartzeko arrazoirik, lasai zelairatu beharko genuke. Eta bai, igoera etxean lortzea polita litzateke, baina nik gurago dut lehenbailehen igo".



**Haritz Igartua**
UDAko kapitaina

Urte asko dira UDA ez dela hirugarren mailan egon, eta merezi du azken esfortzua egitea. Zaila izango da, Tolosak etxean jokatzen duelako, baina lortzen badugu, oso egun polita izango da; zaleen bultzada beharko dugu.

UDA, 3. mailatik puntu bakarrera!

**HARMAILATIK**
TOLOSA-UDA partidua luze eta zabal GOITB-n.
Astelehenean, 22:15ean
Martitzenean, 18:05ean

Goitb Goiena Telebista
Ikustekoa!



> FUTBOLA

### Debagoieneko taldeek aste gutxi barru jasoko dute Realak eman ez zien dirulaguntza

Diputazioak martitzenean onartu zuen Gipuzkoako futbol taldeei 600.000 euro emango dien dekretua. Klubek iaz jaso behar zuten diru kopuru hori (Debagoieneko klubendako 49.000 euro ziren), baina Iñaki Badiolaren zuzendaritzak erabaki zuen oinarrizko futbolaren alde eman beharreko diru hori ez banatzea.

Hala, klubek Diputazioak emandago dirulaguntzarekin konformatu behar izan zuten, eta horrekin 2008/09 denboraldiari aurre egin. Orain, baina, Diputazioak onartu egin du Realak beretako gorde zuen diru kopuru hura ere ematea. Aste gutxi barru izango dute ibarreko taldeek zor zaien dirulaguntza.

> GIMNASIA ERRITMIKOA

### Gipuzkoako A mailako txapelketa Bergaran eta Arrasateko gimnastak Espainiako txapelketan

Zapatuan egingo dute Labegaraietan Gipuzkoako A mailako eskola arteko txapelketa. Gimnastak goiz eta arratsalde lehiatuko dira, 10:30ean hasita. Guztira 70 gimnasta inguru izango dira, eta ibarreko ordezkarien artean Ariznoa elkarteko Nora Blanco, Jone Olabarria, Sonia Gonzalez, Maider Cabo, Ainara Gonzalez, Cristina Etxeberria, Ane Miren Mugurutza, Jennifer Pineda, Onintza Legorburu, Amaia Irastortza eta Ainize Lizarralde izango dira.

Arrasateko ordezkari moduan lehiatuko dira, berriz, Ane Ormaetxea, Ane Miren Errazkin, Eider Etxebarria, Nerea Otxoa, Olatz Fernandez, Paula San Miguel, Aintzane Rodriguez eta Ainhoa Delgado. Horrekin batera, Arrasate Dragoiko aerobikeko taldea Granadan izango da asteburuan, Espainiako txapelketan parte hartzen.



Yerai Varela Otala Zelaiko helmuga gurutzatzen. GOIENKARIA

> ATLETISMOA

### Domekan egingo dute Otala Zelai krosaren 31. edizioa, eta nagusien proba 11:00etan izango da

Domekan ospatuko duten Otala Zelai egunaren barruan atletismoak berebiziko protagonismoa izango du, goizean goizetik adin ezberdinetako neska-mutikoendako lasterketak egingo dituzteeta. Hitzordu nagusia, baina, 11:00etan izango da, orduan egingo dute-eta nagusien 31. Otala Zelai krosa.

10:00etan hasi eta 10:30 bitartean benjamin, alebin, infantil eta kadete mailako lasterketak egingo dituzte. Eta ondoren etorriko da nagusien proba. Krosak 8.4010 metro izango ditu, Otala Zelain egongo da irteera puntua eta helmuga, eta lasterkariek itzuli bat eman beharko diote Urkuluko urtegiari. Izenematea egunean bertan egin daiteke (5 euro), edota 943 71 26 28 telefono zenbakian.



Mondragon Unibertsitateko mutilak, joan den zapatuko partidua hasi aurretik, Zurbanoren aginduak entzuten. X.U.

**SASKIBALOIA** > LEHENENGO MAILA, JAITSIERA FASEA

# Aste barruko sorpresa: MUk Tolosan irabazten badu, mailari eutsiko dio

Joan den zapatuan UPNAri hiru puntugatik bakarrik irabazi izanak kondenatu egiten zuen MU; baina, behingoagatik, zortea aldeko izan dute

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Joan den asteburuan, nahiz eta UPNAri 89-86 irabazi, MUko mutilak burumakur erretiratu ziren aldagelara. Ez zuten helburua bete, nafarrak sailkapenean aurreratzeko bost puntuko aldeagatik irabazi behar zutelako. Emaitza horrek derrigortu egiten zituen azken jardunaldian mirariaren zain egotera: UPNAk Suelbaten kontra etxean galtzea.

Baina miraria joan den asteburuan bertan gertatu zen, beste kantxetan izandako sorpresei esker MUk oraindik bizirik jarraitzen duelako. Aste barruan Ointxekoek webgunean onartu duten moduan (*www.ointxe.com*), pazientzia eta aspirina bat behar dira gertatu diren karanbola guztiak ulertzeko, eta ez gara horretan sartuko. Gauza bakarra dago argi: MUk zapatu arratsaldean –partidu guztiak jokatuko dituzte ordu berean, 18:00etan– Tolosako Bide Bide Ibiza mendean hartzen badu, zuri-moreek datorren urtean nazional mailan jarraituko dute.

**TOLOSAK EZ DU EZER JOKOAN**

Albiste pozgarri hori jasota, MUko mutilek Tolosan izango dute azken aukera, eta azken partiduan, gainera. MUk jaitsiera fasean bederatzi partiduetatik zazpi irabazi ditu, eta, hala ere, gorriak eta bi ikusten ari dira kategoriari eusteko.

Tolosak ez du ezer jokoan, eta, gainera, azken jardunaldi horri jai kutsua eman diote, hainbat taldekidek utzi egingo dute-eta saskibaloia. Jai kutsu horretatik aldendu egin beharko du MUk: "Aukera berri hau derrigor aprobetxatu behar dugu, eta gogor kantxaratu, ez dakigu-eta Tolosak ze asmo duen. Ezin gara joan hara pentsatzen partidua irabazita dagoela, adierazi du Kintanak.

ION leihoak
PVC, ALUMINIOA ETA POLIURETANOA
• LEIHOAK • HORMA ARMAIRUAK
• ATEAK • ZOLUAK
K21 KALITATEA
20500 ARRASATE **Erakustoki eta lantoki berria**
Debagoiena industrialdea. Telleria kalea 4, 11.atea. P.K.172
Tel.: **943 79 11 35** Faxa: **943 77 31 20**
01003 GASTEIZ
Olaguibel 51
Tel./Faxa: **945 26 71 73**

**Posta elektronikoa: ion.a@euskalnet.net • www.ventaion.com**



Bihar nahiko lan izango du Iñigo Biainek taula azpian. GOIENKARIA

**SASKIBALOIA** > LAUKO FINALA ORDIZIAN

# Liga autonomikora igotzeko lehia gogorra izango da

## Aloña Mendik Ordiziaren aurka jokatuko du bihar, 18:00etan, Majori kiroldegian

**JASONE ZABALA** > BERGARA

Xabi Igartuak zuzentzen duen senior mailako saskibaloi taldeak hirugarren tokian amaitu du lehen maila probintzialeko liga erregularra, eta, orain, liga autonomikora igotzeko lauko finala jokatuko du asteburuan Ordiziako Majori kiroldegian.

Aurkari zaila izango du Aloñak finalerdian, etxeko taldearen aurka jokatuko du bihar (18:30). Xabi Igartua entrenatzailearen ustez: "Partidua zaila izango da, baina joko aldetik momentu onean heltzen gara eta irabazi egin dezakegula uste dut".

**FINALA, DOMEKAN**

Finala, berriz, domeka goizean jokatuko da. Bigarren finalerdia Beiztinberri eta La Salle taldeek jokatuko dute. Aloña Mendiko saskibaloi saileko zuzendaritzak dei egin die zaleei Ordiziara taldea animatzera joateko.

**TXIRRINDULARITZA**

# Bihar, gazte mailako igoera Oñatin

**J.Z.** > BERGARA

Bihar jokatuko da gazte mailako Arantzazuko 40. igoera. Proba 16:30ean hasiko da, eta guztira 9,3 kilometroko igoera gogorra izango da.

Pedro Irurtzun Aloña Mendiko txirrindularitza saileko presidenteak adierazi digunez, guztira 90 txirrindulari inguruk hartuko dute parte: "Gehienak gizpuzkoarrak izango dira, baina Bizkaia eta Arabatik ere etorriko dira". Debagoienetik, berriz, Oñatiko Aloña Ulma, Bergarako Sumofic eta Aretxabaletako JMA taldeek hartuko dute parte.

**IGOERAREN HISTORIA**

Igoerako errekorra Unai Osak ezarri zuen 1993. urtean (22 minutu eta 27 segundo). Joan de urtean, berriz, Jon Urtizberea donostiarrak gutxigatik ez zuen errekorra hobetu (22 minutu eta 31 segundo). Historian oñatiar bakarra izan da probaren irabazle: Jose Antonio Mur; hark 1969an irabazi zuen.

## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Bigarren maila**
Reala-Albacete
Zapatua. 18:30. Anoeta.

Alaves-Eibar
Zapatua. 18:30. Mendizorro.

**Gazte mailako Euskal Kopa**
Aretxabaleta-Barakaldo
Zapatua. 17:30. Ibarra.

**Preferente maila**
Tolosa-Aretxabaleta
Zapatua. 18:30. Berazubi.

Mondra-Euskalduna
Zapatua. 16:30. Mojategi.

Aloña Mendi-Trintxerpe
Domeka. 16:30. Azkoagin.

**Lehen erregionala**
Antzuola-Bergara
Zapatua. 18:30. Azkoagain.

BTLS-Mutriku
Zapatua. 18:00. Ipintza.

Aretxabaleta B- Mondra B
Domeka. 17:30. Ibarra.

Bergara-Lagun Onak
Zapatua. 16:30. Agorrosin.

**Bigarren erregion. Igoera**
Bergara B- Martutene B
Zapatua. 15:45. Ipintza.

**Ohorezko mailako gazteak, Kopa eta jaitsiera**
Idiazabal-Aloña Mendi
Zapatua. 11:00. Arizkorreta.

**Lehen mailako gazteak, igoera fasea**
Amara Berri--Mondra
Zapatua. 17:30. Martutene.

**Ohorezko mailako kadeteak, igoera fasea**
Ordizia-Bergara
Zapatua. 12:00. Altamira.

Aretxabalaeta-Kostkas
Zapatua. 12:00. Ibarra.

**Ohorezko mailako kadeteak. Kopa eta jaitsi.**
Arrasate-Eibar B
Domeka. 12:00. Mojategi.

Añorga-Aloña Mendi
Zapatua. 12:00. Rezola.

**Lehenengo kadeteak, igoera**
Aretxabaleta B-Behobia
Zapatua. 10:15. Ibarra.

**Emakumezkoen igoera fasea**
Mondra-Gasteiz Cup
Domeka. 17:30. Mojategi.

**SASKIBALOIA**

**Lehenengo maila. Jaitsiera fasea**
Bide bide Ibiza-MU
Zapatua. 18:00. Usabal.

**Gizonezko seniorrak, lauko finala**
Ordizia-Aloña Mendi
Zapatua. 18:30. Majori.

Beiztinberri-La Salle
Zapatua. 16:00. Majori.

Finala
Domeka. 11:30. Majori.

**Gipuzkoako gazteak, gizonezkoak**
Aloña Mendi-Erroibide Irun
Zapatua. 11:45. Zubikoa.

Take Tolosa-Transbretaña BK
Zapatua. 16:00. Usabal.

**Gipuzkoako gazteak, emakumezkoak**
Añorga-Soraluce BKE
Zapatua. 16:00. Benta berri.

**ESKUBALOIA**

**Gipuzkoako Kopa. Senior emakumezkoak**
Verkol Aloña-Leizaran
Domeka. 12:00. Usabal.

**Gipuzkoako Kopa. Senior gizonezkoak**
Soraluce BKE-Arrasate
Domeka. 12:30. Labegaraiet.
Aloña Mendi-Alkorta Forging
Zapatua. 17:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako Kopa. Gazte gizonezkoak**
Pulpo-Arrasat Chap.
Zapatua. 17:00. Lubaki.

Aloña Mendi-Arrate
Domeka. 12:00. Zubikoa.

**Gipuzkoako Kopa. Kadete gizonezkoak**
Pulpo-Aloña
Domeka. 12:00. Lubaki.

**Gipuzkoako Kopa. Gazte emakumezkoak**
Verkol Aloña-Com. Elgoibar
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

Ereintza-Chapime Arrasate
Zapatua. 17:30. Errenteria.

**PILOTA**

**Herri Arteko Txapelketa**
Azkoitia-Bergara
Kadete maila
Gazte maila
Nagusi maila
Gaur. 22:00. Gurea Pilotalek.

**Udaberri Txapelketa**
Eskoriatza-Ilunpe (Kadete)
Eskoriatza-Goierri (Gazteak)
Eskoriatza-Bergara (Nagusi)
Gaur. 19:00. UDAL pilotalek.






**> EUSKARA** Iruñea-Veleiako idatziak benetakoak direla dio Elexpuruk **> 38**



**> ZINEMA** Mariasun Pagoaga, 'Axun eta Maite' filmeko protagonista **> 39**

**> ALEX PLAZA** Txikitatik zuen argi sukaldaritza munduarekin izan nahi zuela lotura. Hainbat lekutan lanean ibili ostean, uztea erabaki zuen, diseinu mekanikoa eta ingeniaritza ikasteko **> 42**



# 'Gatan katuka eta beste' erakusketa

Azken urteotan Gatan (Almeria) egindako argazkiak bildu ditu Jose Mari Galanek Nahikariko erakusketan

"Gata geografikotik nolabait urrundu eta nik bizi izan dudan Gata erakutsi nahi izan dut; nire perspektiba azaldu, azken baten", dio







Tabakoko metalezko kaxetan jarritako irudi bat (goian); kamera estenopeikarekin ateratakoa (erdian) eta beste muntaia bat.

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Basaurikoa sortzez, Bergarako semetzat har dezakegu Jose Mari Galan. 1984-85 ikasturtean etorri zen Bergarara, Ipintza institutura filosofia eskolak ematera, eta hemen jarraitzen du. Argazkilaritza da haren zaletasunetako bat eta egunotan *Gatan katuka eta beste* izenburuko erakusketa jarri du ikusgai Nahikari tabernan. Aurretik gutxitan erakutsi ditu argazkiak jendaurrean: 1990eko hamarkadaren erdialdean *Errealitate hautsia* argazki erakusketa egin zuen Getxoko eta Bergarako kultura etxeetan eta azkena orain dela urte gutxi batzuk, *Azur* ezagunarekin batera, Infernukua tabernan.

*Infer* itxi zutenetik, Nahikari bihurtu da Jose Mari Galanen *aterpea*, eta bertan erakusketa egitea proposatu ziotenean, baietza egoki ikusi zuen: "Giro honetan sortutako eta bultzatutako erakusketa izan da eta eskertzekoa da horrelako *herri-galeriak* izatea, hilero-hilero norbaiti bere lana erakusteko aukera ematen diotenak".

**GATAREKIN TXUNDITUTA**

Azken urteotan Gatan (Almeria) egindako argazkiak bildu ditu Galanek. "Badira bospasei urte hara joaten hasi nintzena. Iparraldean bizi garenontzat batez ere oso toki berezia da, duen argiagatik beste planeta bat ematen duelako. Material askotxo neukan eta horri nolabaiteko bukaera emateko erakusketa egitea pentsatu nuen, Gata geografikotik nolabait urrunduz eta nik bizi izan dudan Gata erakutsiz, nire perspektiba azalduz. Uda partean ateratako argazkiak dira, eta, Gatako irudiez gain, beste hiru irudi daude: Portugaleteko zubiarena; olatu batena (Zumaian ateratakoa) eta Bergarako, Gorlako beste bat, Gatako paisaian integra zitekeena".

Guztira, 31 argazki daude, horietako zazpi Chesterfield tabako markako metalezko kaxetan jarrita (goiko argazkian) eta beste hiru bat kamera estenopeikoarekin, objektiborik gabeko kamerarekin ateratakoak. Horrez gain, Ricoh, Hassel eta Leica kamerak erabili ditu Galanek. Formatu txikiko koloretako argazkiak dira, "argazki-filmarekin, ez kamera digitalekin ateratakoak", zehazten du Galanek. "Paper metalizatuan errebelatu ditugu eta Kiñuri eskerrak eman beharrean nago, emandako laguntzagatik. Komertzio txikien garrantzia eta gertutasuna horrelakoetan igartzen da", dio. Muntaiak dira nagusi: "Errealismotik urruntzeko, serie modukoak egin nahi izan ditut, argazkien bitartez, sortutako fikziozko paisaiekin, zerbait kontaktu nahian". Erakusketa Pazkoak arte ikusgai izango da.

## Argazkigintza, musika eta irakurketa gustuko dituen irakaslea

Azken 25 urteotan Bergarako Ipintza institutuan filosofia irakaslea da Jose Mari Galan, eta argazkilaritzako irakasle ere izana da bertan. Argazkigintzan bere kabuz hasi zen gaztetan, eta Bartzelonako Manel Ubeda eta Gijongo Alejandro Braña irakasleak ezagutzeak aldarazi egin zion argazkigintzari buruzko ikuskera. Haien eraginez, argazkia bisualizatzeko, argitan neurtzeko eta positibatzeko metodoa erabat aldatu zuela dio Galanek. Era berean, azken boladan berriro ere argazkiak ateratzeari ekin diola esaten du.



Jose Mari Galan, Nahikarin. E.M..

**MUSIKA ETA IRAKURKETA**

Musikazale amorratua, han eta hemen izaten diren kontzertuetan ikus dezakegu, kamera barik orduan. "Kamerarekin bazoaz, ez dago musikaz gozatzerik. Baina badauzkat aspaldiko kontzertuetan ateratako argazkiak: Lords of The New Church, Johnny Thunders... eta beste hainbat". Nahikarin jarri duen erakusketaren soinu-banda McEnroe Getxoko taldearena litzateke. Talde horrekin liluratuta dabil aspaldian, eta Bilbon izan zen zapatuan, haien kontzertuan. Urtetako materiala negatiboetan ondo sailkatuta dauka eta Galanen binilo bilduma ere ez da makala.

Irakurketa da haren beste zaletasunetako bat. Nagusiki entseguak eta nobelak irakurtzen dituela aitortzen digu: Peter Sloterdijk, Martin Amis, Philip Roth eta iaz hil zen John Updikeren lanen irakurketarekin murgilduta dabil egunotan.

**ONDAREA** > EUSKARA

# Iruñea-Veleiako idatziak benetakoak direla dio Elexpuruk

Bergarako Juan Martin Elexpuru filologoak euskara aztertu du, eta beste aditu batzuek beste alor batzuk; aztarnategia berriro zabaltzea gura dute



Elexpuru, berak sortutako blogeko argazki bat erakusten. I.BARANDIARAN

**IKER BARANDIARAN** > ARRASATE

Bergarako filologo Juan Martin Elexpuruk txosten zabala idatzi du Iruñea-Veleiako aurkikuntzen gainean. Aurkitutako hitz eta esaldiak bakarrik aztertu ditu Elexpuruk; hau da, euskara bakarrik hartu du aintzat. Hala ere, arkeologia, latina eta bestelako alorrak beste aditu batzuek aztertu dituzte; eta guztiak, Elexpuru barne, koordinatuta daude.

**URTARRILA EZKERO LANEAN**

Iruñea-Veleiako aztarnategia itxi eta hango ardura zeukan enpresa bota zutenetik, inork ez du zalantzan jarri han aurkitutakoa. Hori da Elexpururen kezka nagusia. Hala, urtarrilean *Alava.net* webgunean aurkikuntzen gaineko argazkiak eta aldekoen eta kontrakoen txostenak argitaratu zituztenean, buru-belarri jarri zen Elexpuru aurkikuntzetan agertutako euskarazko hitz eta esaldiak aztertzen.

Hori guztia aztertuta, Elexpuruk uste du idatzi horiek benetakoak direla, eta "oso zalantza gutxirekin", gainera: "Bizitza arrunteko gauzak agertzen dira, koloreak, komunitate kristiano bat egon zen aztarnak...".

ESANAK

**"Tesi ofizialak oso onartuta daude, inork ez ditu zalantzan jarri gura; baina, guztia aztertu ostean, kontrakoa uste dugu"**

**Juan Martin Elexpuru** > Filologoa

**EGIAZTATZE LAN ESKASA**

Are gehiago, Elexpuruk uste du aurkikuntzen hasierako emaitzak ezeztatu zituen batzorde zientifikoak oso argumentu "arinak" erabili zituela: "Ez dakit zergatik, baina ez dute askorik ikertu; euren argudioak bertan behera bota daitezke erraz".

Uberako filologoak euskarazko 170 bat hitz aurkitu ditu hango zeramika eta bestelakoetan: "Hainbat errepikatuta daude; hortaz, 70 bat-edo izango dira desberdinak; eta guztira, 15 bat esaldi. Kristo osteko II., III. eta IV. mendeetako halako aurkikuntzak oso garrantzitsuak dira, orain arte euskarazko lehenengo esaldiak X. mendean kokatzen ziren-eta".

Aztarnategia zabaltzea gura dute, Iruñea-Veleia "euskal Ponpeia izan daitekeelako".

**BLOGA 'GOIENA.NET'-EN**

Landutako txostena gaur ipini du sarean: *goiena.net/blogak/elexpuru*. Helburua da interaktibitatea eta eztabaida sortzea, "inork ez duelako Iruñea-Veleiaren gainean berba egiten; badirudi estalita eta ahaztuta dagoela.

**HILAREN 23AN, BERBALDIA**

Gai horrekin lotuta, maiatzaren 23an berbaldia egingo dute Langraitzen Elexpuruk eta Euskal Herrian bizi den Belgikako Koen Van Driessen geologoak, Euskararen jatorriaren gainean egingo dituzten jardunaldietan.



**ZINEMA** > 'AXUN ETA MAITE'

# "Ez zait ezer kostatu Maite pertsonaiaren larruan jartzea"

Mariasun Pagoaga arrasatearra izango da 'Axun eta Maite' filmeko protagonistetako bat

Jose Mari Goenaga eta Jon Garañoren filmak bi emakumeren maitasun harremana jorratuko du

**G. ARANA/E. MENDIBIL** > ARRASATE
Mariasun Pagoaga arrasatearra izango da *Axun eta Maite* (izenburua behin betikoa ez izan arren) filmeko protagonistetako bat. Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño zuzendariek bi emakume adinduren arteko maitasun harremana jorratuko dute. Zizurkilgo Irola baserrian oraingo astean hasi dira filmatzen eta datozen asteotan Asteasun, Donostiako Santa Klara uhartean eta Gipuzkoako beste hainbat tokitan jardungo dute grabazio lanetan.

Pagoaga Arrasateko Doke antzerki taldeko kidea da eta martxoan deitu zuten *casting*-erako: "Taldeko lau lagun izan ginen probak egiten, eta, egia esan, primeran pasatu genuen Moriarti produkzio-etxeak Pasai San Pedron duen egoitzan. Handik egun batzuetara niri deitu zidaten eta Aste Santuaren ostean hasi ginen entseguekin. Itziar Doke taldeko zuzendariak ere poz handia hartu zuen".

Esan bezala, homosexualtasuna jorratuko du filmak. Axun eta Maite 70 urtetik gorako emakumeak dira, giro diferentean bizi izandakoak. Erietxean ezagutuko dute elkar, haien familiakoak zaintzen dihardutela. Maitek betidanik izan du argi bere jarrera sexuala, baina Axunendako sentsazio berriak izango dira harreman horrek ekarriko dizkionak... Mariasun Pagoagaren hitzetan: "Ez zait ezer kostatu Maiteren larruan jartzea. Pertsonaian sartu naiz arazo barik, ondo. Grabazioan dagoen giro onak ere lagunduko zuen. Primeran zaintzen gaituzte eta lantaldeko guztien artean primerako giroa dago". Antzerkian aurretik egindako lana baliagarria izan zaiola dio Pagoagak: "Doke taldean gimnasia egiten dugu; ahoskera eta arnas hartzeak landu eta horrelakoak egiteko ohitura daukagu eszenatokian jardun aurretik; zinemako lana, aldiz, batbatekoa da. Testua ikasi eta bota. Baina gustura ari gara. Igerian, gidatzen, bizikletan ibiltzen eta pianoa jotzen jakin behar nuela esan zidaten eta pianoarekin esperientziarik ez izan arren, banabil Tchaikovskiren pieza batekin entseatzen dagoeneko...".



Mariasun Pagoaga, Doke antzerki taldeko entsegu baten. IKER BARANDIARAN

**ZINEMALDIAN?**
Jose Mari Goenaga filmeko zuzendarietako batek *Lucio* filma zuzendu zuen Aitor Arregi oñatiarrarekin batera. Garaño, berriz, *Dragon House* eta *Sahara Marathon* dokumentalen egilea da. Moriarti eta Irusoin produkzio-etxeen ekoizpen berriaren filmaketa ekainaren 20rako bukatu nahi dute: "Zinemaldian estreinatu nahiko genuke, baina larri ibiliko gara garaiz bukatzeko. Iritsiko ez bagina, 2010eko udaberrian egingo genuke estreinaldia, ziurrenik".

Mariasun Pagoaga eta Itziar Aizpurua (*Martin* telesaila) protagonistekin batera, Ane Gabarain, Jose Ramon Argoitia, Patricia Lopez eta Zorion Egileor aktoreak dira taldean.

**MUSIKA**

## Oskorriren 'The Pub Ibiltaria' Aretxabaletan

Loramendi Euskara Elkartearen eskutik zapatuan Herriko Plazan, 17:30ean

**E.M.** > BERGARA
Loramendi Euskara Elkarteak antolatuta, Oskorriren *The Pub Ibiltaria* ikuskizuna izango da bihar, zapatua, Aretxabaletako plazan, 17:30ean.

Tradizioaren alde xarmangarrien bila Oskorrik proiektu berri bati ekin zion, bere 25. urtebetetzea zela eta. Horrela, Euskal Herrian zehar kantu erdi ahaztuak berreskuratu eta egungo kulturan barneratzeko modurik zuzenenaren bila sortu zen *The Pub Ibiltaria*. Iazko apirilean *The Pub Ibiltaria* bildumako 12. CDa aurkeztu zuten. Besteak beste, *Boneta eta txapela*, *Peru gurea Londresen*, *Basoilarrak*, *Aita San Migel Iurretako* eta *Jose Mondrauek dauko* kantuak batu dituzte bertan.

**PARTE HARTZEA ZABALIK**
Euskal kulturarekiko eta musikarekiko grinak elkartuz kontzertu ahaztezinak sortzea du helburu ikuskizunak. Oskorriko partaideekin batera edozein instrumentu jo edo kantatzen duen jendeak har dezake parte bihar.

**ELKARTASUNA**

## 'De saldo' erakusketa Oñatiko kultur etxean

**E. M.** > OÑATI
Argentina, Txile, Venezuela, Brasil eta Kubako hamaika artistaren lanak batzen dituen De saldo erakusketa zabalik dago Oñatiko kultur etxean, maiatzaren 20ra arte.

**ARTELANAK, PREZIO ONEAN**
Erosleendako eskuragarri eta artista beraiendako errentagarri diren prezioetan arte lanak eskuratzeko aukera izango dute kultur etxera hurbiltzen direnek. Biziraupenarekin lotzen dugu askotan artista latinamerikarrak; ikuspuntu horrekin jokatuz sortu da *De saldo*.

Esan bezala, erakusketa hilaren 20ra arte ikusgai izango da, astelehenetik domekara 18:30etik 20:30era bitartean.

ULMA

ULMA C y E, Koop. E.
Oñati

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**DEIA**

**Eguna:** 2009ko maiatzaren 22a.
**Ordua:** 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena.
**Tokia:** Zubikoa Polikiroldegia - Oñati.

**GAI ZERRENDA**

1. Aurreko aktak onartzeari buruzko txostena eta Batzar Nagusi honen akta onartzeko bazkideak izendatzea.
2. 2008ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea, eta 2009ko gestio plana berrestea.
3. ULMA Taldeari buruzko txostena.
4. 2008ko ekitaldiko kontuak aztertzea eta, hala badagokio, onartzea.
5. Emaitzak banatzea.
6. Bihurketa faktoreari buruzko erabakia berrestea.
7. 2008ko interesak kapitalizatzea.
8. Heziketako eta Kooperatiba Sustapeneko eta interes publikoko beste xede batzuetarako ekarpenaren (H.K.S.E.) erabilera.
9. Egituraz gaindiko erakundeekin zerikusia duten gaiak.
10. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak.
11. Mendeko ekarpen finantzarioen jaulkipena.
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea.
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea.
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea.
15. Galderak eta eskaerak.

*Oñati, 2009ko maiatza*
*KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA*

OHARRA: Bazkide guztiei gogorarazten zaie kanpo auditoriak aztertutako urteko kontuak, emaitzak banatzeko proposamena eta gestio txostena egoitza sozialean eskura dituztela Batzar Nagusira bitartean aztertu ahal izateko.

LKS

LKS INGENIERIA, KOOP. E

**OHIKO BATZAR NAGUSIA**

**DEIALDIA**

**Eguna:** 2009ko maiatzaren 22an.
**Ordua:** Lehenengo deialdia 10:00etan eta bigarrena 10:30ean.
**Tokia:** Gesalibar auzoko Aita Menni Ospitaleko Ekitaldi Aretoa (Arrasate).

**GAI ZERRENDA**

1 - 2008ko maiatzaren 23ko Ohiko Batzar Nagusiko Aktaren onespenari buruzko txostena.
2 - Aktaren onespenerako bazkideak izendatzea.
3 - 2008ko ekitaldiko urteko kontuak eta Gestio Txostena aztertu eta onartzea.
4 - Soberakin erabilgarrien banaketa.
5 - Heziketa eta Kooperatia Sustapenerako Fondoa banatzea.
6 - Ekonomi Erregimeneko Estatutu Xedapenak.
- Ekarpenak
- Kapitalerako ordainketa
- Kapitalerako ekarpenen eguneratzea
7- Estatutu Sozialaren aldaketak onartzeko proposamena
8- Barne Araudiaren aldaketak onartzeko proposamena.
9- Kontseilu Errektorearen Estatutu-berriztapena.
10- Kontseilu Sozialaren Estatutu berriztapena.
11- Ingeniaritzaren eta Zerbitzuen Dibisio koop. Elk.ri buruzko txostena.
12- MONDRAGON kooperatibari buruzko informazioa.
13- Galderak eta eskaerak.

*Arrasaten, 2009ko apirilaren 2an.*
*Kontseilu Errektoreko Lehendakaria.*

OHARRA: Bazkide guztiek jaso dute Estatutu Sozialak aldatzeko proposamenaren testu osoa, Justifikazio Txostena eta Ohiko Batzar Orokorrak hartu beharreko erabakien proposamena ere.

# IRAGARKI SAILKATUAK

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu. Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**943 25 05 05**

**sailkatuak@goiena.com edo www.goiena.net-en**

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**
**- ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU.**
**- LOKALA SALDU/ALOKATU.**
**- GARAJEA SALDU/ALOKATU.**
**- MOTORRA SALDU.**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 18 € (BEZ BARNE).**

**PROFESIONALEN IRAGARKIAK (MODULOA)**
**MODULU 1: GOIENKARIA-N EDO ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 23 € (BEZ BARNE).**
**GOIENKARIA-N + ASTELEHENEKO GOIENKARIA-N 31 € (BEZ BARNE).**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aretxabaleta.** 72 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Aukera ona. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Eraikitzen ari den duplexa salgai. Bitartekorik gabe. Bruesa eraikuntzak. *www.bruesa.com.* Prezio negoziagarria. 626 60 11 07.

**Bergara.** 80 metro koadroko etxebizitza salgai Koldo Eleizalden. Hiru logela, sukaldea, jangela-egongela, bi komun, trastelekua eta garajea. Oso eguzkitsua. Aukera ona. 600 90 45 58.

**Bergara.** Erdigunean. Bi logela, sukaldea, egongela, bainugela eta trastelekua. Guztiz berritua. 177.000 euro. 618 44 38 44.

**Oñati.** 70 metro koadroko etxebizitza salgai Kale-Zaharrean. 6 urteko eraikin berria, igogailuarekin. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna eta trastelekua, argi patioan. 652 70 12 49.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza Bidebarrietan. Terraza, hiru logela, sukalde-egongela, bi komun, trastelekua eta estudioa komunarekin. Eguzkitsua eta ondo zaindua. 670 26 58 39

**Oñati.** Etxebizitza salgai Bidebarrieta kalean. 2002ko eraikina. Bi logela, sukaldea, bainua eta egongela. Guztira 68 metro koadro. Gainera 10 metroko terraza toldoarekin etxebizitzaren atzealdean. 20 metroko garaje itxia. 617 20 60 06.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Bi logelako etxebizitza ematen da errentan Zarugalde kalean. 656 75 00 94.

**Bergara.** Etxebizitza erdigunean. Etxebizitza osoa edo gelaka. Hiru logela, bi bainugela, egongela eta sukaldea. Jantzia. Igogailuarekin. Egoera onean. *www.euskalnet.net/aguirre*. 630 60 47 75 edo 943 79 51 70.

**Conil de la Frontera.** Cadiz. Apartamentua ematen da errentan udako denboraldirako. Sei pertsonentzat egokia: bi logela eta ohe sofa. 656 74 78 10.

**Deba.** Apartamentua ematen da errentan udako denboraldirako. Hamabostaldika edo denboraldi osorako. Garajearekin. 688 80 34 49.

**Eskoriatza.** Etxebizitza ematen da errentan. Hiru logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoia. Oso egoera onean. Igogailuarekin. 686 30 67 89.

**Oñati.** 90 metro koadroko etxebizitza berria ematen da errentan Santa Marina plaza ondoan. Garaje eta trastelekuarekin. Jantzia. 652 71 74 33.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bikote arduratsu batek etxebizitza hartuko luke errentan Arrasaten. 677 75 12 90.

**Debagoiena.** Familia batek etxebizitza hartuko luke errentan Bergara, Antzuola, Oñati, Arrasate edo Osintxun. Deitu 645 72 92 87 telefonora.

**Oñati.** Etxe txiki edo apartamentu bat alokatuko nuke pertsona bakarrarentzat, maiatzetik aurrera. 655 71 33 66.

### 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Aretxabaletako erdiguneko etxe berritu batean gela bat ematen da errentan neska batentzat, ekainetik aurrera. 616 75 41 30.

**Arrasate.** Bi logela ematen dira errentan. 680 30 24 64.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Olarte kalean, sukaldea erabiltzeko eskubidearekin. 618 00 08 28.

**Oñati.** Gela ematen da errentan. Deitu 617 14 39 41 telefono zenbakira.

## 2/ GARAJEAK

### 202. EROSI

**Bergara.** Garaje irekia edo itxia erosiko nuke Masterreka inguruan. Deitu 659 27 69 25 edo 659 27 69 25 telefono zenbakietara.

### 204. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Garajea hartuko nuke errentan. 656 71 31 71.

### 205. BESTELAKOAK

**Karabana gordetzeko** leku bila nabil. 646 37 76 57.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Emakume euskalduna behar da umea zaintzeko. Deitu 629 18 40 63 zenbakira.

**Eskoriatza.** Emakumea behar dugu pertsona nagusi bat zaintzeko, etxean bertan bizi izaten. Kontratuarekin. 676 61 81 41.

**ARRASATE**

**Zerbitzaria behar da aste bukaeratan tabernan lan egiteko.**
**687 30 99 53**

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta, Eskoriatza edo Arrasate.** Emakumea gertu umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Deitu 680 61 96 98 telefono zenbakira.

**Aretxabaleta.** Pertsona nagusiak eta umeak zainduko nituzke Eskoriatza, Aretxabaleta edo Arrasaten. Esperientzia daukat. 943 53 33 92.

**Arrasate-Aretxabaleta-Eskoriatza.** Esperientzia duen mutila gertu ostalari lanak egiteko. 648 19 10 38.

**Arrasate.** 40 urtetik gorako emakume euskalduna lanerako gertu: umeak zaindu, etxeko lanak egin... Deitu 653 70 79 38 telefonora.

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi zein umeak zaintzeko eta baita etxeko garbiketak egiteko ere. Mari. Deitu 649 30 13 60 telefonora.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu 663 65 78 43 zenbakira.

**Arrasate.** Ile apaintzaile laguntzailea eskaintzen da ilea moztu eta tinteak emateko. Deitu 666 20 06 03 zenbakira.

**Arrasate.** Neska gaztea asteburuetan zein astean zehar tabernan lan egiteko gertu. Deitu 697 42 79 88 telefonora.

**Bergara.** Emakume arduratsua eta esperientziaduna nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. 639 94 48 65.

**Bergara.** Emakume esperientziaduna gertu dago pertsona helduen eta haurren zaintzan lan egiteko. Garbiketa lanak ere egiteko gertu dago. Norma. 630 88 54 46.

**Bergara.** Emakumea gertu dago garbiketa eta pertsona helduen zainketa lanak egiteko. Orduka egingo luke lan, baita aste bukaeretan ere. Deitu 638 54 75 93 telefono zenbakira.

**Bergara.** Emakumea gertu legoke garbiketa eta pertsona edadetuen zein haurren zaintza lanak egiteko. Arratsaldez egingo luke lan, 14:00etatik aurrera. 618 12 07 44.

**Bergara.** Ingeles eta frantseseko itzulpenak egiten ditut. Ahoz zein idatziz. 654 94 87 26.

**Bergara.** Josteko makinak konpontzeko gertu nago, eguneko edozein ordutan. 650 07 63 50 edo 652 07 63 50.

**Bergara.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu. Gidabaimenarekin. 696 48 42 50.

**Bergara.** Mutil gaztea eraikuntzan edo autoa behar den beste edozein lanetan lan egiteko gertu. 696 48 42 50.

**Bergara.** Neska lanerako gertu. Garbiketa lanetan edo adinekoak edo umeak zaintzen. Aste bukaeretan eta arratsaldeetan. 618 34 09 35.

**Debagoiena.** Edozein lan egiteko gertu nago: garbiketak, nagusiak zaindu... Etxean bertan bizi izateko prest. Ana Luisa de los Santos. 671 27 78 36.

**Debagoiena.** 50 urteko emakume esperientziaduna ume zein nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko gertu. Oti. Deitu 615 75 30 75 zenbakira.

**Debagoiena.** Emakume arduratsua gertu nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 686 53 34 01.

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan lo egiten. Orduka ere lan egingo nuke. Erreferentziaduna. Deitu 628 40 58 27 telefonora.

**Debagoiena.** Emakume euskalduna edozein lanetarako gertu. 659 82 75 18.

**Debagoiena.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu 671 87 14 06 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egiteko. 5 euro ordua. 669 53 02 92.

**Debagoiena.** Emakumea gertu haurrak zaindu, etxeak garbitu eta adineko pertsonak zaintzeko, gauez. Arrasaten, Aretxabaletan nahiz Eskoriatzan. Esperientziaduna. 618 00 08 28.

**Debagoiena.** Emakumea gertu legoke pertsona edadetuen zaintza lanetarako, etxe barruan zein kanpoan. 677 81 10 00.

**Debagoiena.** Emakumea gertu umeak zaintzeko. Mari. Deitu 649 30 13 60 telefonora.

**Debagoiena.** Esperientziadun neska gertu garbiketa orokorrak egin edo ume zein nagusiak zaintzeko. Informeak dauzkat. Euskalduna eta lanean hasteko gertu. Ainhoa. 671 35 22 60.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egiten edo garbitzen arituko nintzateke. Socorro Mora. 627 14 63 79 edo 943 25 07 53.

**Debagoiena.** Galdaragintzan esperientzia duen mutila edozein lan egiteko gertu. 664 42 96 65.

**Debagoiena.** Garbiketa lanak egingo nituzke. Baita nagusiak edo umeak zaindu ere. Orduka eta egun osoz. 679 06 12 99.

**Debagoiena.** Garbiketa lanetan, tabernari edota nagusiak zaintzen aritzeko gertu nago. Autoa daukat. Egun osoz zein orduka. 636 11 23 40.

**Debagoiena.** Gertu nago sukalde laguntzaile edo harrerako langile lan egiteko, arratsaldez. Paperak ditut, zuzen. Angela. 618 80 21 88.

**Debagoiena.** Margotze lanak egingo nituzke. 660 98 67 20.

**Debagoiena.** Metalurgian lan egingo nuke. Baita garbiketak egiten edo nagusiak zaintzen. Alberto. 620 12 78 46.

**Debagoiena.** Mutila gertu nekazaritza eta baso-lanak egiteko edota motozerrarekin aritzeko. 660 98 67 20.

**Debagoiena.** Nagusiak edo umeak zainduko nituzke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka egingo nuke lan. Deitu 648 84 23 82 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke Arrasate, Aretxabaleta edo Eskoriatzan. Egunez edo gauez. Legezko paperak dauzkat. Marta. Deitu 649 59 86 04 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izanda. Deitu 669 02 91 30 telefonora.

**Debagoiena.** Nagusiak zainduko nituzke orduka zein etxean bertan bizi izaten. 688 68 13 63.

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edo bestelako lanetan jardungo nuke. Deitu 677 17 43 75 telefono zenbakira

**Debagoiena.** Nagusiak zaintzen edota ostalaritzan lan egingo nuke: mantentze lanak zein sukaldean. 657 20 30 71.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu tabernak, eskailerak edo elkarteak garbitzeko edota sukaldean lan egiteko. Esperientziaduna. Deitu 943 08 18 13 edo 635 70 07 92 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna gertu umeak zaintzeko edota garbiketa lanak egiteko. Deitu 600 82 84 60 telefono zenbakietara.

**Debagoiena.** Neska euskalduna lan desberdinak egiteko gertu. Zerbitzari moduan esperientzia. 667 94 07 25.

**Debagoiena.** Neska gertu garbitasun lanak egin edo nagusiak zaintzeko egun osoz, orduka, gauez edota etxean bertan bizi izaten. 600 85 56 86.

**Debagoiena.** Pertsona arduratsuak nagusiak zaindu, garbiketa lanak edo artzain lanak egingo lituzke. Baserrian ere bai. Deitu 660 84 44 42 edo 676 56 70 05 zenbakira.

**Debagoiena.** Pertsona nagusiak zainduko nituzke. Etxean lo egiteko prest nago. Deitu 638 23 37 39 zenbakira.

**Debagoiena.** Sukaldaritzan, garbiketan edota nagusiak zaintzen lan egingo nuke. 630 20 12 03.

**Debagoiena.** Sukaldean edo nagusi zein umeak zaintzen lan egingo nuke. Etxean bertan lo egiteko gertu nago. Deitu 676 73 90 05 zenbakira.

**Debagoiena.** Zerbitzari, sukalde laguntzaile, nagusi zaintzaile edo garbiketan egingo nuke lan. Juan. 666 75 73 21.

**Etxez etxeko masaje** bioenergetikoak hirugarren adinekoendako eta nerbio-sisteman arazoak dituztenendako, batez ere. 645 70 34 10 edo 945 44 51 46.

**Lan bila nabil.** 25 urte ditut eta bolibiarra naiz. Lan bila nabil: eraikuntzan, lorategietan, zaindari moduan... 654 24 13 27.

**Oñati.** Uztailean haurrak zaintzeko prest nago. Ikasketak eta esperientzia handia. Deitu 651 70 85 13 telefonora.

**Pertsona nagusiak** zainduko nituzke, egunez eta gauez. Etxeko lanak ere egingo nituzke. Ana naiz. 600 29 05 24.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Bergara.** Azterketak gainditzeko ingeleseko eskolak ematen ditut. Deitu 616 12 56 29 telefono zenbakira.

**Bergara.** Ingeleseko ahozko eskolak eta eskola partikularrak ematen dira. 654 94 87 26.

**Eskola partikularrak** ematen dizkiet Lehen Hezkuntzako umeei. Irakasle ikasketak ditut. 650 23 34 98.

**Oñati.** Arkitekturako ikaslea gertu Lehen Hezkuntza, DBH eta batxilergoko ikasle talde txikiei laguntza eskolak emateko. 665 70 38 33.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Astakumea.** Urtebeteko astakumea salgai. Arra da. Beltza. Deitu 655 71 39 27 telefonora.

**Peruko untxiak.** Peruko untxi txikiak saltzen dira. Oso politak, kolore desberdinetakoak. 8 euroan bakoitza. Deitu 943 76 07 47 telefonora.

### 704. BESTELAKOAK

**Loroa** galdu dut San Josepe kalean, Arrasaten. Kurro izena dauka eta hitz egiten du. Yako gorria da, gris kolorekoa eta buztan gorria dauka. Deitu 943 79 77 32 telefono zenbakira.

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Bizikleta** salgai. Errepideko bizikleta salgai. 54 neurrikoa. Prezio onean. 628 00 76 62.

**Bizikletak eramatekoa.** Thule markako bizikleta euskarria saltzen dut. Bi bizikleta eramateko euskarriak ditu eta gehiago jartzeko aukera du. Gutxi erabili da. 250 euro. 605 75 39 66 edo 943 78 12 77.

**Errepideko bizikleta.** Bianchi etxekoa, Chorus modeloa. 54 neurrikoa. 687 05 14 94.

**Eskanerra.** Ordenagailuarendako eskanerra salgai. Egoera onean. 10 euro. 679 74 00 61.

**Karabana** berria salgai. Behin erabilitakoa. 2008ko uztailekoa. Sterckeman 420 CP evolution modeloa. 850 kiloko tara eta matrikulatua. 10.000 euro negoziagarri. Joseba. Deitu 666 45 21 02 telefonora.

**Karro denda.** Comanche Arizona. 1,50eko bi logela. Bat jangela bilakatzen da, mahai eta bi jarleku luzez osatuta. Barruan gauzak gordetzeko tokia. Egoteko beste gune bat ere badauka. Karro gainean ekipajea eramateko aukera. 850 euro. 635 20 77 80.

**Karroa.** Silver Cross markako karro ia berria bere poltsa originalarekin. Oso egoera onean dago. 350 euro, negoziagarriak. Dendan mila euro baino gehiago balio du. Tamaragatik galdetu. 679 23 27 93 edo 692 26 27 69.

**Ordenagailua.** Informatikari profesionalarena izandakoa. Oso hobetua eta egoera ezin hobean. Asus AMD 5.200+ 2 GBko RAM. 200 GMko disko gogorra. Grafikoa: ATI X1.250. HTMI. Full HD. 6 USB. Firewire. DVD grabagailua. Window XP eta abar. Proba daiteke. 260 euro. 943 53 27 60 edo 633 32 22 00.

**Suspentsioa.** Renault Clio autoarentzat. Koni etxekoa. Gogortasun erregulagarria. 2001eko modeloa. Erabili gabea. 669 00 89 61 edo 686 81 03 23.

### 802. EROSI

**Aretxabaleta** inguruan lursaila erosiko nuke, ortua eta txabola egiteko. 696 32 63 13.

**Borda edo antzekoa** duen lursaila erosiko nuke. Baita alokatzeko aukera ere. 669 17 09 51.

**Lursaila** erosiko nuke Bergaran. Ez etxea egiteko. 669 17 09 51.

### 803. EMAN

**Marrazteko** mahai bat ematen dut. Oihana. 616 84 55 96.

### 806. GALDU

**Giltzak** galdu ditut Arrasaten, plazatik anbulatoriora bitartean. Giltzek astotxo bat dute. 943 79 79 34.

**Motxila** bat utzi nuen ahaztuta Taupa taberna ondoan ostegun arratsaldean. Aurkitu baduzu, mesedez deitu ondorengo telefonora. Eskertuko da. 699 86 81 21.

**Urrezko katea** galdu dut Bergaran; ziurrenik, poligonoan. Topatu baduzu, deitu, mesedez. 943 76 34 93.

### 807. AURKITU

**Gitarra klasikoa** aurkitu nuen Olarteko ikastolaren ondoan. Karlos. 620 12 46 35.

## 9/ HARREMANAK

### 904. BESTELAKOAK

**Arrasate-Gasteiz.** Egunero Arrasatetik Gasteizera joan-etorria egiten dugu. 08:00etan sartzen gara lanera eta 17:00etan irten. Norbait interesaturik egonez gero, deitu. http://www.compartir.org/. 635 20 33 14.

DEBA
**GARAIA**
**INMOBILIARIA**
**Telesforo Aranzadi 2**
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA**
- Artekale, 89 $m^2$, ondo.
- Arrizuri, 97 $m^2$, garajearekin.
- Matxiategi, 65 $m^2$, berritua eta aukera ona.
- Matxiategi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Zabalotegi, 54 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- Bolu, 103 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Zubieta 65 $m^2$, ondo, hortuarekin.
- Ibargarai 81 $m^2$, berria, eguzkitsua, garajearekin.
- Aranerreka, 87 $m^2$, oso ondo.
- Bidekurutzeta, duplexa, oso ondo.
- Artzamendi, 88 $m^2$, eguzkitsua, oso ondo.
- San Lorentzo, 81 $m^2$, eraikuntza berria.
- Martoko, 87 $m^2$, ondo, garajearekin.
- San Pedro, 88 $m^2$, ondo.
- Ibargarai, 80 $m^2$ oso ondo eta eguzkitsua.
- Koldo Eleizalde, 87 $m^2$ oso ondo.
- Urdangarin pasealekua,132 $m^2$, berritzeko.
- Zabalotegi 80 $m^2$, eguzkitsua, berritua.
- Elorregi 70 $m^2$, terrazarekin, eguzkitsua, oso ondo.
- Artzamendi 80 $m^2$, 2 terrazekin 60+30 $m^2$, eguzkitsua.
- Matxiategi, 73 $m^2$, berritzeko.
- Simon Arrieta, 57 $m^2$, terrazarekin.
- Zurradero, 81 $m^2$, oso ondo.
- Simon Arrieta, 80 $m^2$, berritua. Oso ondo.
- Zubieta, 125 $m^2$, terraza eta ortuarekin.
- Zabalotegi, 50 $m^2$, berritua. Oso eguzkitsua.
- Bidekurutzeta, 111 $m^2$, oso ondo.
- **Etxebizitza berrien erainkuntza Maduran, San Pedron, Masterrekan, Zubiaurren, Bidekurutzetan, Zubietan eta Martokon.**

**SORALUZE**
- Baltegieta, 83 $m^2$, berria.
- Sagarerreka, 58 $m^2$, aukera ona.

**ANTZUOLA**
- Eguzki auzoa, 85 $m^2$, oso eguzkitsua.
- Antigua 55 $m^2$, erdi berritua.

**ELGETA**
- San Roke, 75 $m^2$, ia berria.

INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Aranerreka, 80$m^2$. Prezio ona.
- Simon Arrieta 80 $m^2$. Eguzkitsua. Ondo. Berritua.
- Zubieta 80 $m^2$. Berritua. Ganbararekin.
- Elusu baserria. Berritua. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 60 $m^2$. Berritua. Gazteentzat.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Aranerreka, 95 $m^2$, oso ondo.
- Masterreka. 46 $m^2$. Eraikuntza berria. Oso ondo.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Boni Laskurain 90 $m^2$. Oso ondo.
- Azkarruntz 69 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Zubiaurre 58 $m^2$. Eguzkitsua.
- Kruz Gallastegi 65 $m^2$. Eguzkitsua.
- Aranerreka 90 $m^2$. Oso ondo.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 m2. Berritua.
- Zubiaurre 55 m2. Berritua. 114.192 €.
- **Etxebizitza berrien eraikuntza San Pedron, Zubiaurren eta Bidekurutzetan.**
- **San Lorentzon etxe berriak**

**Antzuola:**
- Buztinzuri, Sagasti, Antigua, Zurrategi, Beheko auzoa Etxe onak.
- Buztinzuri, 76 $m^2$. 132.223€.
- Errekalde 70 $m^2$. Garajearekin.

**Elgeta:**
- San Roke 72 $m^2$. Berritua.
- San Roke 80 $m^2$. 80 $m^2$-ko ganbara eta lokalarekin.
- Salbador 90 $m^2$. Berritua.

**Soraluze:**
- Atxuri 49 m2. 117.618 €.

# Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK

## AKUPUNTURA
**INTEGU**
Arrasate / Uarkape 18, behea, ezk / 943 77 13 34
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13
**LORENZO M. JOOSTEN**
Arrasate / Arrasate Pasealekua 29, Ezk behea / 943 79 29 13

## ALBAITARIAK
**ETXEBERRIA JULIO (DEBAGOIENEKO ALBAITARI OFIZIALA)**
Bergara / 609 54 16 13

## ANALISI KLINIKOAK
**LABORRA ISABEL**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## BARNE MEDIKUNTZA
**IRIGOIEN VICTOR**
Bergara / Oxirondo 4-1B / 943 76 32 06

## DENTISTAK
**AGIRRE HORTZ KLINIKA**
Bergara / Ibargarai 9-1B / 943 76 00 23
**ARANBURU HORTZ KLINIKA**
Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46
**ARRASATE HORTZ KLINIKA**
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23
**ARREGI HORTZ KLINIKA**
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90
**ASTIAZARAN SOLOZABAL**
Bergara / Iparragirre 1, behea / 943 76 27 95
**BENGOA SAN MIGUEL ANGEL**
Aretxabaleta / Durana 14, 1. / 943 79 05 57
**BERGARA HORTZ KLINIKA**
Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77
**CAVIGLIA SILVANA**
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54
**GOROSABEL J. ALBERTO**
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88
**IRIARTE IRURETA ANE MAITE**
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45
**IRIARTE IDOIA**
Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06
**LOPEZ DE GOIKOETXEA**
Arrasate / Alfontso X. Jakintsua 5 / 943 79 17 74
**MAZMELA BOLINAGA ENRIKE**
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36
**SAINZ MALKORRA ANA**
Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

## DERMATOLOGIA
**TAMAYO CONCEPCION**
Oñati / Atzeko kalea 6, behea / 620 124 843 / 943 71 61 82

## ENTZUMEN ZENTROAK
**INSTITUTO OPTICO – BIOACUSTICA**
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

## ERREUMATOLOGIA
**GORASARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA**
**TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA**
Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

## FISIOTERAPEUTAK
**ANDONI ETA MARIA BASTERRETXEA**
Arrasate / Garibai etorbidea 6B / 943 77 03 96
**ARZAK MIREN**
Bergara / Artekalea 1-1H / 943 76 43 71

## HOMEOPATIA
**AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)**
Arrasate / Nafarroa etorbidea 11 / 943 08 11 00 / 695 78 19 21

## KIROPRAKTIKA ZENTROA
**LARRAÑAGA ANDREA**
Arrasate / Erdiko kalea 22, 3. eskuma / 943 79 92 83

## LOGOPEDIA
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## MASAJISTAK
**ARANTZETA JUAN MARI**
Elgeta / Salbador 28 / 943 76 80 54
**AZPEITIA IRUNE**
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43
**ELORTONDO FLOREN**
Aretxabaleta / Basabe industrialdea D, z/g / 629 77 85 84
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## OPTIKAK
**ARRASATE OPTIKA**
Arrasate / Kontzezino 6 / 943 79 25 98
**BEGIONDO OPTIKA**
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21
**INSTITUTO OPTICO**
Arrasate / Kale Barria 32 / 943 79 71 68

## ORTOPEDIA
**ORTO LAGUN**
Arrasate / Kontzezino 2 / 943 79 89 34

## OSASUN-DIAGNOSTIKOAK
**UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA (ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)**
Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

## OSTEOPATIA
**BENGOA NEREA**
Arrasate / Azoka kalea 4 / 659 58 66 89
**ETXEBERRIA ANA**
Antzuola / Errekalde 6, behea / 943 76 60 13

## PODOLOGOAK
**ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA**
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46
**IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA**
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84
**OINEZ PODOLOGIA KLINIKA**
Aretxabaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

## PSIKIATRA
**GALLASTEGI PABLO**
Bergara / San Martin plaza 2-1. ezk. / 943 76 26 64

## PSIKOLOGOAK
**GARMENDIA LANDER**
Arrasate / Obenerreka 2, 7H / 943 79 35 86
**NUÑEZ TXOMIN**
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16
**PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA**
Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

## UROLOGOAK
**LLUCH ALBERTO (UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA)**
Arrasate / Ferrerias 56 / 943 79 44 22

## YOGA
**AREDHANA YOGA ETA GESTALT PSIKOTERAPIA ZENTROA**
Aretxabaleta / Santa Kurtz 24 / 616 96 57 95.
**SAMADHI YOGA**
Bergara / Masterreka 13, behea / 943 76 11 38 / 639 235 753

Iragarkia jarri nahi baduzu,
deitu **943 25 05 05** zenbakira.

**Alex Plaza** > Sukaldaria eta ingeniaria

# "Sukaldaritzak batez ere diziplina eta bizi izateko beste era bat eman dit"

Alex Plazak txikitatik zuen argi sukaldaritza munduarekin izan nahi zuela lotura, "lan irteera paregabea zelako". Hainbat lekutan lanean ibili ostean, 24 urterekin uztea erabaki zuen: "Diseinu Mekanikoa gustatzen zitzaidanez, Arrasaten ikasten hasi nintzen eta ondoren Ingeniaritza". Kirola ere ez du alde batera uzten: "Beti daramat kirol poltsa arropaz beteta".

JASONE ZABALA > ARRASATE

**Alex Plaza arrasatearrak txikitatik izan du gustuko sukaldaritza; hainbat lekutan sukaldari lanetan ibili ondoren, 24 urterekin zartaginak alde batera utzi eta Diseinu Mekanikoko heziketa zikloa egiten hasi zen, eta horrekin gustura ez eta Ingeniaritza hasi zuen ondoren. Kirola ere atsegin du, eta, judoa eta txirrindularitza aspaldi ikasi ostean, orain surfa ikasten ari da.**

**Gazte hasi zinen sukaldaritzan; ofizioz ala zaletasunez?**

Bi arrazoiengatik; asko gustatu izan zait betidanik sukaldaritza eta lan irteera paregabea da, profesionalki eskaintza paregabeak baititu, bai bertan lan egiteko eta baita ere atzerrian.

**Luis Irizar sukaldariaren eskolan ikasi zenuen, gainera. Zer eman dizu sukaldaritzak?**

Batez ere diziplina, bizi izateko beste era bat eta lanean gogor aritzea beti, hiru gauza horiek orokorrean.

**Ikasketak amaitu eta Mallorkara joan zinen sukaldari lanak egitera, eta gero beste hainbat lekutan ere egon zara.**

Sukaldari eskolan nengoela praktikak egin nituen (Arzak, Akelarre, Panier Fleuri…). Ikasketak bukatu ondoren, Mallorkara joateko aukera suertatu zitzaidan, Koldo Royo sukaldariaren jatetxera –Espainiako lehen txapelduna da hura–. Bertan urtebete egin nuen, lanordu bukaezinekin eta gogor lan eginez.

Bertatik Bergarako Lasa jatetxera joan nintzen lanera, eta urte eta erdi egin nuen bertan. Garai onak izan ziren arren, sukaldea uzteko erabakia hartu nuen.

**Zein da ondoen prestatzen duzun platera?**

Niri arraina eta okela gustatzen zaizkit gehien, baina lagunek tiramisua eskatzen didate gehienetan, edo ondo egiten dudalako edo gozozaleak direlako…

**24 urterekin, baina, zartagin eta sukaldeko lanak utzi eta diseinuaren munduan sartu zinen.**

Sukaldea utzi, eta heziketa ziklo bat egin nahi nuen lanpostu ona topatzeko. Diseinu Mekanikoa gustatzen zitzaidanez, aukera etxean nuen eta Mondragon Unibertsitatera joan nintzen ikastera. Aukera ona izan zen, eta ondo joan ziren gauzak bertan.











JON BEREZIBAR

**Handik bi urtera, 26 urterekin, Ingeniaritza Mekanikoa Arrasaten. Salto handia, ezta?**

Emaitza egokiak atera eta Ingeniaritza egiteko aukera izan nuen. Gogor ikasi beharra zegoen eta dagoeneko adinak ez du ikasteko erraztasun bera ematen, baina aurrera atera nuen.

**Nantesera joan zinen ondoren Goi Mailako Ingeniaritza egitera, eta aprobetxatu zenuen frantsesa ikasteko…**

Ingeniaritzako bigarren eta hirugarren ikasturteetan Nantesera joateko aukera izan nuen, eta frantsesa ikasten hasi nintzen bertan.

**Nantestik bueltan sukaldeko lanak ahaztuta izango zenituen, ezta?**

Erdizka. Nahiz eta sukaldean denbora luzean lanik ez egin arren, orain Fagor Industrialen egiten dut lan, diseinatzaile; sukaldeari dagozkion laborategiko frogak egiten ditut, beti elikagaiak prestatzerakoan prozesua hobetzeko asmoz.

Lana oso ezberdina da sukaldearekin konparatuz, baina elkarren artean lotuta jarraitzen dutela esango nuke.

**Jakin dut horren guztiorren ondoren eta mutiko gazte baten ilusioarekin surfa egiten ikasten hasi zarela. Zergatik? Non? Nola?**

Beti gustatu izan zait kirola egitea. Lehen, judoa, txirrindularitza… egiten nituen. Sasoika doa dena, eta orain surfa ikasten ari naiz. Hala ere, inoiz probatu dudan kirolik zailena da. Beti gustatu izan zait kirola egin eta ikustea.

**Baina kirola orokorrean gustuko duzu eta, gainera, Realarekin sufritzen duen horietako zara…**

Bai, Realarekin ez da erraza disfrutatzea. Esan bezala, kirola ikustea gustuko dut eta batzuetan neskalagunarekin Baskoniaren partiduak ikustera joaten naiz.

**Orain Fagor Industrialen zabiltza lanean; behin betiko lana ala ikusiko zaitugu zerbait berria ikasten edo probatzen?**

Lehenik, krisia gainditu beharra dago. Oraindik behin-behineko langile moduan nago eta egoera oso txarra da industria arloarendako. Krisia gainditu eta bertan bazkide hartzen banaute, behin betiko lana izango da.

PERTSONALA

**Herria:** Arrasate. **Adina:** 33 urte. **Ikasketak:** Sukaldaritza eta Goi Mailako Ingeniaritza (materialen arloan). **Zaletasunak:** Kirola, zinema eta sukaldea. **Sukaldari gustukoena?** Aduriz eta Arzak. **Zein lekutara bidaiatuko zenuke?** Edozein lekutara. **Mania bat?** Kirol poltsa arrozpaz beteta daramat beti. **Bizio bat:** Ardo ona. **Irakurritako azken liburua?** *Ángeles y demonios*. **Gustuko musika talde bat?** Gaur egun ez dut bat zehazki gustuko; gaztetan, RIP. **Amets bat?** Etxeko lanak behingoz bukatzea.

# Marrazki bizidun berri bi Goiena Telebistan

## Umeendako bi saio berri eskaintzen hasiko dira astelehenetik aurrera GOITBn

**GOIENKARIA** > ARRASATE

Umeendako eskaintza geroz eta zabalagoa da Goiena Telebistan; izan ere, datorren astelehenetik aurrera bi marrazki bizidun saio berri eskainiko dituzte: batetik, ikusi ahal izango da *Cloud Trotters*; umorez, mundua beste perspektiba batetik erakusten duen marrazki bizidun sorta. Ume talde bat zaintzera Lurrera jaisten diren aingeru batzuen istorioa kontatzen du.

Bestetik, hasiko dira eskaintzen, baita ere, *Alex eta Alexis* marrazki bizidunak. Alex eta Alexis neba-arreba bikiak dira eta bahituta dauden euren gurasoak askatu egin beharko dituzte. Marrazki bizidunak, egunero, 13:15ean, 17:15ean eta 19:15ean emango dituzte.

**GOITB, 'Marrazki bizidunak'**
> Egunero, 13:15, 17:15 eta 19:15ean


Alex eta Alexis anai-arrebak filmeko eszena baten. GOIENKARIA

# Politika kontuak, antzerkian

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Politika gaiak landu behar dituzte maiatzaren 24an izango den *Txanobarragorro* izeneko antzezlanean, Arrasateko Amaia antzokian. Hori ikustera gonbidatuko dituzte irratiko entzuleak asteroko oparien zozketan. Horrekin batera, 3.60 aretoan egubakoitzean Naste Borraste, Akustik Bro- thers eta Skovers taldeek egingo duten kontzerturako sarrerak ere zozkatuko dituzte.

**Arrasate Irratia, 'Igo autobusera'**
> Egubakoitza, maiatzak 22, 11:30etik 11:45era.


GOIENKARIA

## 'Elkartasunaren bideak' saioa, datorren astetik

ETBk ekoiztutako *Elkartasunaren bideak* dokumental sorta eskaintzen hasiko da Goiena Telebista datorren eguenean. Hirugarren munduko herrialdetako egoera eta kultura ezagutzeko aukera paregabea izango duzue saio horrekin. Euskal boluntarioen lanaren bitartez ezagutuko duzue herrialde horietako errealitatea; datorren eguenean eskainiko den lehen saioa Peruren gainekoa izango da.

**GOITB, 'Musikantoi'**
> Eguena, 23:15

## telebegi

Aitor Arregi
'aitor_arregi@huhezi.edu'

### Muchachada Nui

Gaztela-Manchatik irten den lagun koadrila bati buruz hitz egin nahi dut gaur. Unibertsitatean ezagutu omen ziren eta beraien artean *feeling*-a zegoela ikusirik, txorakeriak egiten hasi ziren. Horrela sortu zen *La hora Chanante*, lehenik eta *Muchachada nui* ondoren.

Neretzat momentu honetan telebistan dagoen saiorik erakargarriena da. Nire ustez gaur egungo errealitatearen begirale apartak dira. Kultura popularraren taupadak oso ondo neurtzen dakite, nire ustez. Beti dute gure gizartearen inguruan komentario zuhurren bat egiteko. Egia da ergelkeria asko sartzen dituztela saioan. Egoera grotesko eta absurduen bila, 10 minutututik 9tan hotz naiteke, bat-batean tontakeria batekin aste osorako barrea sortarazten didatenarte.

Bi sekzio azpimarratzekotan: *Celebrities* (Whitney Houstonen azkena, paregabea) eta atal bakoitzaren aurkezpenak… Nola bururatu zitzaien Indurain *Twin Peaks* seriean sartzea?

## arrasate irratia

**FM 107.7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo Autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Astelehenetan Kirolak
Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
Zaharrak Berri (pertsona nagusiendako)
Udal Gazte Bulegoa
Sexologia Zerbitzua
Astearen errepasoa (Goienkariarekin)
Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
Zozketak (egubakoitzean)
Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com edo goiena.net* atarian, irratiko bloga)
**11:55** Arrasateko albisteak, labur.
**12:05** Euskadi Irratiko albistegia
**12:10** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo Autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** albistegi laburra.

## astea GOITBn

**Astelehena, 18**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Eskozia mendi bizikletan.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** mugaz kanpo.
**15:45** Erreportajea.
**16:15** 28 klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Wasemak
**18:15** Musikantoi
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45**Solaskide.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Harmailatik.
**23:00** Erreportajea.
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Martitzena, 19**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusten.
**14:15** Eltze beroa: Kipula zopa.
**14:45** Berriak.
**15:10** Harmailatik.
**15:50** Solaskide.
**16:20** Eskozia mendi bizikletan.
**16:45** Berriak.
**17:10** Marrazki bizidunak.
**17:35** Erreportajea.
**18:05** Harmailatik.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Wazemak.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Ilunpean.
**23:00** Euskal Herria lau Haizeetara: Goierri
**23:30** Goiena Magazinea.
**00:30** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 20**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ikusmira: Gernika-Lumo duathloia.
**14:15** Jazz
**14:45** Berriak.
**15:10** Ilunpean.
**15:50** Golb tb.
**16:20** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**17:45** Solaskide.
**18:15** Ur eta lur.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Mugaz kanpo.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Erreportajea: Pedro Salegi Hargiña.
**22:45** 28 Klip.
**23:15** Goiena Magazinea.
**00:15** Emisio amaiera.

**Eguena, 21**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Euskal herria lau haizetara.
**14:15** Eltze beroa: Brotxetak.
**14:45** Berriak.
**15:15** Ikusmira.
**15:45** Mugaz kanpo.
**16:15** 28 Klip.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Musikantoi.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Berbaire.
**23:15** Elkartasunaren bidean.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Egubakoitza, 22**
**13:15** Marrazki bizidunak
**13:45** Ur eta lur.
**14:15** Eltze beroa.
**14:45** Berriak.
**15:15** Berbaire.
**16:15** Ikusten.
**16:45** Berriak.
**17:15** Marrazki bizidunak.
**18:00** Ilunpean.
**18:45** Berriak.
**19:15** Marrazki bizidunak.
**19:45** Goiena Magazinea.
**20:45** Jazz.
**21:15** Goiena Magazinea.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Musikantoi.
**23:45** Goiena Magazinea.
**00:45** Emisio amaiera.

**Zapatua, 23**
**08:00** Marrazki bizidunak.
**10:30** Trikitraka trikiton.
**11:30** Golb tb.
**12:00** Euskal herria lau haizetara.
**12:30** Ikusmira.
**13:00** Eltze beroa.
**14:30** Trikitraka trikitron.
**15:30** Marrazki bizidunak.
**18:00** Erreportajea.
**18:30** Solaskide.
**19:00** Erreportajea.
**19:30** Berbaire.
**20:30** Golb tb.
**21:00** Ikusten.
**21:30** Ilunpean.
**22:15** Solaskide.
**22:45** Erreportajea.
**23:30** Wasemak.
**00:30** 28 klip.
**01:00** Emisio amaiera.

**Domeka, 24**
**08:00** Trikitraka trikiton.
**09:00** Marrazki bizidunak.
**11:30** 28 klip.
**12:00** Erloklip
**12:30** Ikuskizuna.
**13:00** Erreportajea.
**13:45** Solaskide.
**14:15** Eltze beroa.
**15:30** Zaharrak berri.
**15:45** Marrazki bizidunak.
**18:15** Trikitraka trikiton.
**19:15** Erreportajea.
**19:45** Solaskide.
**20:15** wasemak.
**21:15** Euskal herria lau haizetara.
**21:45** Berbaire.
**22:45** Golb tb.
**23:15** Ilunpean.
**00:00** Itsasora begira.
**00:30** Emisio amaiera.

## eguraldia

### DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 16**

Giro hodeitsua izango dugu. Ostarteak izango ditugu. Arratsaldean zeruan erabat estalita geldituko da eta euria egingo du.



**Domeka, 17**

Zapatuan moduan, zeruak hodeiekin jarraituko du, baina tenperaturak behera egingo du; ekaitz arriskua ere egongo da.

### EUSKAL HERRIAN

Euria izango da protagonista asteburuan Euskal Herri osoan. Tenperatura 16 graduren bueltan mantenduko da, ekaitz arriskua izango da eta zaparradak izango ditugu.



### TENPERATURAK

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

**MINIMOA** Eguaztena, 6 — **5º C**

**MAXIMOA** Eguaztena, 6 — **29º C**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **14,6 L**

| | Max. ºC | Min. ºC | Euria l/m² |
|---|---|---|---|
| **Eguaztena, 6** | 29 | 5 | - |
| **Eguena, 7** | 20 | 10 | - |
| **Egubakoitza, 8** | 14 | 13 | 0,6 |
| **Zapatua, 9** | 15 | 10 | 12,4 |
| **Domeka, 10** | 24 | 14 | 0,2 |
| **Astelehena, 11** | 27 | 12 | 1,4 |
| **Martitzena, 12** | 24 | 10 | - |



Aramaioko **Alazne Ibabe** eta **Joseba Jauregi** maiatzaren 7an ezkondu ziren Aramaioko udaletxean. Zapatuan lagun arteko ospakizuna egin zuten sagardotegian. Zorionak, bikote, familiakoen eta lagun guztion partetik!





San Prudentzioko **Miren Ojea** eta Garagartzako **Kepa Otxoa** 1959ko apirilaren 12an ezkondu ziren Arantzazun. Domekan ospatuko dituzte urrezko ezteiak Santa Agedako elizan, eta ostean, Gure Ametsa jatetxean bazkalduko dute. Zorionak familiaren partetik!





**Bittor Altube** eta **Jone Arriaran** oñatiarrak ezkondu zirela 40 urte beteko dira maiatzaren 17an. Asteburuan ospatuko dute familiakoekin batera. Urrezko ezteiak gertu daude, bikote! Zorionak etxekoen partetik, maitasunez.



Aretxabaletako **Leire Alcalde** eta Eskoriatzako **Ander Osa** maiatzaren 16an ezkonduko dira Aretxabaletako Jasokundearen parrokian. Eztei-bidaian AEBetara eta Dominikar Errepublikara joango dira. Familiaren partetik zorionak, bikote, eta patxo bana!



Antzuolako **Andoni Azkarate** eta **Simona Laskurain** 1959ko apirilaren 30ean ezkondu ziren. Urrezko ezteiak bete dituzten honetan, familiarekin ospatu zuten maiatzaren 9an. Etxekoen partetik zorionak!

## bono fotoa




**Eskualdeko zein herritan topa dezakegu oroigarri hau?**

**Argazkia eta galdera** >
Miguel Angel Elkoroberezibar

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**
Bergarako **Ainhoa Murgizu**.
Zorionak!
**Erantzun zuzena:**
**Arrasateko tren geltokia**

Garmendia Ardoak · Larchago

Garmendia Ardoek emandako
**Ardo botila packa***
zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

* Larchago iskillarapeko ekologikoa 2008. / Larchago kriantza 2006. / Larchagoko Izarbe bereziki aukeratutako erreserba 2001.

**ERANTZUNA** ..................................................

IZEN-DEITURAK ..................................................

HERRIA .............................. TELEFONOA ..............................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

## guardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 16 | Irizar | Erguin, 11 | 943 79 12 39 |
| Domeka, 17 | Amezua | Santa Marina, 32 | 943 79 09 74 |
| Astelehena, 18 | Español | Araba Etorb., 14 | 943 79 18 65 |
| Martitzena, 19 | Ruiz | Nafarroa Etorb., 1 | 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 20 | Etxeberria | Zarugalde, 42 | 943 77 16 30 |
| Eguena, 21 | Azkoaga | Ferrerias, 1 | 943 79 15 15 |
| Egubakoitza, 22 | Azkoaga | Iturriotz, 17 | 943 79 79 99 |

**BERGARA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 16 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Domeka, 17 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |
| Astelehena, 18 | Guallar | San Antonio, 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 19 | Estella | Matxiategi, 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 20 | Alvarez-Mozos | Iparragirre, 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 21 | Zurrikoetxea | Oxirondo plaza, 25 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 22 | Zabala | Barrenkale, 25 | 943 76 16 87 |

**OÑATI**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 16 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Domeka, 17 | Juldain | Kale Barria, 6 | 943 78 11 28 |
| Astelehena, 18 | Anduaga | San Lorenzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Martitzena, 19 | Anduaga | San Lorenzo, 3 | 943 78 21 16 |
| Eguaztena, 20 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Eguena, 21 | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 | 943 78 01 22 |
| Egubakoitza, 22 | Garate | Kale Barria, 42 | 943 78 05 58 |

**ARETXABALETA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Zapatua, 16 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 17 | Fraile | Herriko plaza, 10 | 943 79 21 99 |
| Astelehena, 18 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Martitzena, 19 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Eguaztena, 20 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Eguena, 21 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |
| Egubakoitza, 22 | Agirre (Esko.) | Gorosarri plaza | 943 71 48 28 |

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2009ko egutegia.
Bidali SMS 7505era "farma" hitzarekin. SMS kostea 0,9 euro + BEZa.

# Maiatzak 15-22

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com**
Tel.: **943 25 05 05** • Faxa: **943 25 05 13**

## Antzerkia



BERGARA

**> 'Oraingoan bai' antzezlana gaur gauean Zabalotegiko aretoan**

Suizidioa gauza serioa da, baina ez Bazen Behin Clown taldearen eskuetan. Peio Arnaezek zuzenduta, Itziar Saenz de Ojer eta Joseba Roldan dira komedia horretako protagonistak. Gaur, egubakoitza, 22:30ean. Sarrera, 5 eurotan.

## Musika



ARETXABALETA

**> Oskorriren 'The Pub Ibiltaria' zapatu arratsaldean, Loramendiren eskutik**

Oskorriren *The Pub Ibiltaria* Aretxabaletan, Loramendi Euskara Elkarteak Euskararen Eguna ospatzeko antolatuta. Bihar, zapatua, 17:30ean, herriko plazan. Oskorriren abesti ezagunenekin dantzan eta kantuan egiteko aukera.

## Musika



OÑATI

**> Ampurdako Ganbera Orkestra domekan, Udaberriko Musikaldien barruan**

Carles Collek zuzendutako Ampurdako Ganbera Orkestrak emanaldia egingo du domekan Santa Ana antzokian, 19:30ean. Tchaikovski, Sarasate, Bartok, Montsalvatge eta Toldraren piezak eskainiko dituzte.

## Musika

BERGARA

**> Laja II.arekin eta Narbaizarekin erromeria**

*Munibe plazara dantzara* egitasmoaren barruan. Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia egingo du aurretik.

Gaur, egubakoitza, Muniben, 19:00etan.

OÑATI

**> Ganbara Abesbatza parrokian**

Oñatiko abesbatzaren emanaldia.

Parrokiako klaustroan gaur, egubakoitza, 22:00etan.

BERGARA

**> Udaberriko kontzertua**

Musika Eskolaren 25. urteurrena ospatzeko antolatutako emanaldi berezia.

Bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 19:30ean. Sarrera, 5 euro eta 3 euro (gaztetxoak).

ARRASATE

**> Hibai & The Eib's**

Pop-rock eta blues kantuak.

Domekan 20:00etan.

## Erakusketak

OÑATI

**> 'De saldo' erakusketa kultura etxean**

Erakusketa eta arte-saltoki kontzeptuek bat egingo dute, eta bertan hainbat artista latinoamerikarren lanak erosteko aukera izango da, arrazoizko salneurrian, gainera.

Gaztelekuak eta kultura etxeak antolatuta, maiatzaren 20ra arte.

ARETXABALETA

**> 'Toda una vida siendo niños'**

Espainiako gerra sasoiko argazkiak eta dokumentuak.

Arkupen, maiatzaren 16ra arte.

## Hitzaldiak

ARETXABALETA/ANTZUOLA

**> 'Etxeko istripuen prebentzioa'**

Fernando Viciosak egingo du hitzaldia.

Astelehenean, hilak 18, 16:00etan Aretxabaletan, Arkupen; eguenean, hilak 21, Antzuolako erretiratuen elkartean, 17:30ean. Bizikasik eta erretiratuek antolatutako ekitaldia.

ARRASATE

**> 'Empresa txikientzako finantza aukeraketak'**

Isabel Gonzalez Elkargiko Prestakuntza Zuzendariaren eskutik. Enpresa txikietako gerenteei eta negozio ideia berri bat daukatenendako.

Maiatzaren 28an, 17:30etik 19:30era, Mankomunitateko egoitzan. Plaza mugatuak. Parte hartzeko aurretik 943 79 30 90 telefonoan izena eman beharra dago.

## Ikastaroak

ARETXABALETA

**> Haur masaje ikastaroa**

Maiatzaren 25ean eta 28an; ekainaren 1ean, 8an eta 11n, 17:330ean, Aretxabaletako Kurtzebarri Eskolan. Hilabete batetik lau hilabetera bitarteko haurren gurasoei zuzenduta dago ikastaroa.

Izenematea edo argibideak 653 72 23 59 telefonoan.

ARETXABALETA

**> Dantza libre topaketak hilean behin**

Jaiki elkarteak dantza libre topaketak antolatu ditu. Isabel Altzola izango da irakaslea. Saio guztiak hilabetean behin, eguenean izango dira, 18:00etatik 20:30era.

Maiatzaren 28an izango da hurrengo saioa. Izenematea 669 05 80 33 telefonoan edo *jaikielkartea@yahoo.es* helbidean.

ARRASATE

**> Eskulan ikastaroa eta makillaje ikastaroa**

Ekin Emakumeak Elkartearen eskutik. Eskulan ikastaroa martitzenero: 15:30-17:30 edo 18:00-20:00 (ekainaren 16ra arte); makillaje ikastaroa maiatzaren 9an 11:00etatik 14:00etara.

Argibideak 943 79 83 70 telefonoan.

ARRASATE

**> Emakume Txokoaren eskutik hainbat ikastaro**

Emakume Txokoak hainbat ikastaro iragarri ditu: *Antzinako emakumeak: gure amandreengandik ikasten* (maiatzaren 12tik ekainaren 9ra); *Bizikletak konpontzeko ikastaroa* (maiatzaren 11tik 25era arte); eta, azkenik, *Gure erotismoa: gorputzaren hizkuntza* (maiatzaren 22an eta 23an).

Izenematea eta argibideak 943 79 41 39 telefonoan edo *emakumetxokoa@arrasate-mondragon.net* helbidean.

ESKORIATZA

**> Munduko dantzak bihar**

Dantza errazak, batez ere Europakoak: ohikoenak, klasikoenak, ezagunenak. Bikote dantzak eta Errusiako dantzak ere bai. Parte hartzeak 5 euro balio du.

Bihar, zapatua, Eskoriatzako kultura etxean, 17:30etik 20:30era. Argibideak eta izenematea: 680 76 59 70 (Patxi).

PROPOSAMENA



OÑATI

**> 'Mass of the children' domekan Bidaurretan**

Iñigo Biainen zuzendaritzapean, Bergarako Orfeoiak eta Gabero abesbatzak eta Oñatiko Ganbara Gazte Abesbatzak John Rutter-en *Mass of the children* lana eskainiko dute domekan Bidaurretako elizan. Abesten 85 ahots batuko dira eta, horrez gain, Eli Mendiaraz izango da piano jolea; solistak, berriz, Nere Ibarra sopranoa eta Karlos Etxaniz baritonoa.

Domekan, hilaren 17an, Bidaurretako elizan, 19:00etan. Sarrera doan da. Ganbara Txiki abesbatzaren V. urteurrena ospatzeko antolatutako kontzertua.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

**ERAKUSKETA IRAUNKORRA:** 172 modulu interaktibo ezberdin dauzka, bi solairu eta 9 geletan banatuta. Komunikatzeko modu berri bat, esperimentu eta objektuen manipulazioa erabiliz

PLANETARIUM BERRIA

**Donostiatik zerura begira:** Zuzeneko saioa. Larunbatean, maiatzak 16, 12tan euskaraz.
**Itsua izar begiekin:** Itsu bat eta tirano bat protagonista dituen ipuin animatu bat. Larunbatean, maiatzak 16, 16:15ean gaztelaniaz.
**Biziaren jatorria:** Lurraren eta Eguzki Sistemaren jatorria erakusten digun saioa.
**Infinity Express:** Unibertsoa eta Eguzki Sisteman zehar bidaia. Igandean, maiatzak 17, 13:00etan eta 18:00tan gaztelaniaz.
**Kartoizko suziriaren sekretua:** Haurrei zuzendutako saioa. Larunbatean, maiatzak 16, 17:00etan euskaraz eta igandean, maiatzak 17, 16:15ean gaztelaniaz eta 17:00etan euskaraz.
**Eboluzioa (Berria!)** Izakion historiako gertaera eta unerik garrantzitsuenek azaltzen dizkigu. Larunbatean, maiatzak 16, 18:00tan gaztelaniaz eta igandean, maiatzak 17, 12:00tan euskaraz.

MAIATZAK 17
(Internet mundu-eguna eta Museoen nazioarteko egunaren ospakizuna)

**"Konektatu zaiztez Zientziaren kutxaGunera":** lehiaketa, 11etatik 17etara.
**Bisita gidatuak:** 12tan eta 17etan euskaraz eta 13etan, 16tan eta 18etan gaztelaniaz.
**"Hotzek irakin nitrogenoari esker"** ikuskizuna (12:30tan elebitan, 16:30tan euskaraz eta 17:30tan gaztelaniaz).

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA
Miramon-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramon.org

kutxa | www.kutxasocial.net

ARRASATE

**> Yoga eskolak Arrasaten, goizez eta arratsaldez**

Txindoki dorrean (Bañez Doktorea 1). Astelehen eta eguaztenetan 09:30etik 11:00etara eta martitzen eta eguenetan 19:00etatik 20:30era.

Argibideak eta informazioa ondoko telefonoetan: 635 71 06 16 (Maite) edo 943 78 31 26 (Ana).

ARRASATE

**> Ikastaroak Gazte Bulegoaren eskutik**

Arrasateko Udal Gazte Bulegoak hiru ikastaro antolatu ditu: argazkigintza digitala; flamenkoa euskaraz deritzona; eta munduko sukaldaritza. Datorren astean hasiko dira aipatutako ikastaroak. Matrikula 20 euro da; 12 euro ikasle edo langabeendako.

Izenematea edo argibideak 943 25 20 65 telefonoan.

# Lehiaketak

ARRASATE

**> San Juan jaiak: irudi lehiaketa deitu du Udalak**

Lehiaketa honetan edozein pertsonak har dezake parte. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: 2009 San Juan Jaiak Arrasate. Irabazleak 750 euroko saria jasoko du.

Lanak entregatzeko epea maiatzaren 22ra arte izango da zabalik. Argibide gehiago Biztanleen Arreta Zerbitzuan, 943 25 20 00 telefono zenbakian.

ARRASATE

**> Film labur lehiaketa deitu du Emakume Txokoak**

Arrasateko Emakume Txokoak film labur lehiaketa antolatu du. Emakumeenganako biolentzia da landu beharreko gaia. Iraupen mugatua izan beharko dute film laburrek. Lanak DVD euskarrian bakarrik aurkez daitezke eta bakarka zein taldeka parte hartu ahal izango da lehiaketan.

Lanak entregatzeko epea ekainaren 22ra arte zabalik. Argibideak 943 79 41 39 zenbakian.

BERGARA

**> Erraldoiei izena jartzeko lehiaketa**

Erraldoietako bi XVIII-XIX. mendeko herriko jauntxoei begira egindako senar-emazteak dira eta beste bikoteak bi baserritar irudikatzen ditu, aurrekoen sasoi bereko senar-emazteak. Izenik egokienak proposatzen dituenak, erraldoien bikote bakoitzeko, 150 euroko saria jasoko du. Proposamenak aurkezteko epea maiatzaren 18ra arte zabalik.

Argibide gehiago kultura etxean, 943 77 91 58 zenbakian.

LEKEITIO

**> Euskal Zine eta Bideo Bilera Lekeitio**

Edozein bideo sortzaile har dezake parte. Lanak DVD formatuan aurkeztu beharko dira, euskaraz, irailaren 11rako.

Argibideak 94 624 34 82 telefono zenbakian edo *www.bideobilera.com* webgunean.

# Zinema



## Genova ***

**Zuzendaria:** Michael Winterbottom.
**Aktoreak:** : Colin Firth, Catherine Keener, Hope Davis. Britainia Handia, 2008. 94 min.

Michael Winterbottomek ia urtero lan berri bat burutzen du. *Genova*-rekin zuzendari onenaren Zilarrezko Maskorra eskuratu zuen azken Zinemaldian.

Auto istripu baten ondorioz alargun gelditu den unibertsitateko irakasle batek eta haren bi alabek aurrerantz egiten duten emoziozko ihesaldi baten deskribapena da filma. Chicagotik Italiara, Genoara aldatuko dira, bizitzari aurre egiteko indar berriak hartzeko eta sentimenduen butxaduratik irtetea lortzeko. Istorioan garrantzi handia du pertsonaien egoera emozionalak. Filmaren lehenengo minutuetan, oso modu zehatz eta egokian, auto istripua eta hileta ondorengo bilera ikusiko ditugu. Ederki islatzen da nola momentu baten bizitza alda daitekeen eta halako kolpe batek ekartzen duen *shock* emozionala. Minutu gutxitan Winterbottomek pertsonaien barnean sartzen gaitu. Hortik aurrera Genoara joango dira eta hiri eta bizimodu berria moldatzeko izango dituzten zailtasunen eta tirabiren lekuko izango gara: aita-alaben ongizatearengatik kezkatuta; alaba nerabea aitaren babesarengatik eta ahizpa txikiaren zaintzaile lanetatik ihes egiten ahalegintzen da; eta alaba txikiak, amaren falta nabaritzeaz gain, haren heriotzaren gainean erruzko sentimenduak ditu.

Winterbottomek, batez ere, pertsonaien sentimenduak eta hiri berriak eurengan izango duen eragina erakutsi nahi ditu. Denak egia sentsazioa dauka, kamerak pertso- naiak jarraitzen ditu hiri bazter guztietatik, zuzendariak filmatu izan du gauzak askorik lotu barik, eta horrek freskotasun handia ematen dio kontatutako guztiari. *Genova* sentsazio eta atmosferazko filma da. Istorio landu eta itxia baino gehiago, pertsonaien erreakzioak jaso nahi ditu, eta hori ondo lortuta dago. Aktoreek ere oso lan ona egiten dute, eta egia eta gertutasuna ematen diete euren pertsonaiei.

**Antonio Zabala**

## ARRASATE

### AMAIA ANTZOKIA

**Lejos de la tierra quemada**
Domeka: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Hotel para perros**
Domeka: 17:00.

**El truco del manco**
Eguena: 20:30.

## OÑATI

### KULTURA ETXEA

**Fast and furious: aún más rápido**
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

## BERGARA

### ZABALOTEGI

**Expediente anwar**
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30.

**Mi monstruo y yo**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**Iria palm**
Eguena: 20:00.

## ARAMAIO

### KULTURA ETXEA

**Camino**
Egubakoitza: 22:15.

**Atlantis 2: el regreso de Milo**
Domeka: 17:00.

## EIBAR

### UNZAGA

**Gran Torino**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehenetik eguaztenera: 19:30, 22:15.

## GASTEIZ

### GURIDI

**Hanna Montana: la película**
16:30, 18:30, 20:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Ángeles y demonios**
17:00, 19:45, 22:30.

**La sombra del poder**
22:30.

**X-Men orígenes: Lobezno**
17:30, 22:30 (zapatuan eta domekan).

**Fuga de cerebros**
17:00, 19:45.

**Star Trek**
17:00, 19:45, 22:30.

**Carmo**
17:30, 20:00, 22:30 .

**Billu Barber**
17:00, 19:45, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

### FLORIDA-GURIDI

**Destellos de genio**
20:15.

**Seraphine**
18:00, 20:15, 22:30.

**Munduaren bira, doan!**
18:00, 22:30.

**Cosas insignificantes**
17:30, 20:00, 22:30.

**La reina Victoria**
17:30, 20:00, 22:30.

**Nunca es tarde para enamorarse**
18:00, 20:15, 22:30.

**Gran Torino**
18:00, 20:15, 22:30.

**Genova**
17:30, 20:00, 22:30.

Egubakoitzetik domekara.

### YELMO-GORBEIA

**Star Trek**
15:30 (zapatuan eta domekan), 17:45, 20:05, 22:30, 00:50.

**Ángeles y demonios**
16:00 (zapatuan eta domekan), 17:30, 19:00, 20:30, 22:00, 23:30, 00:40.

**Vamos a la luna**
16:35 (zapatuan eta domekan), 18:35.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

**17 otra vez**
16:30 (zapatuan eta domekan), 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**La reina Victoria**
20:35, 22:35, 00:35.

**Hanna Montana: la película**
15:45 (zapatuan eta domekan), 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**The International**
20:00, 22:10, 00:20.

**Fuga de cerebros**
18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

**Wincky eta zaldi magikoa**
16:25 (zapatuan eta domekan), 18:10.

**Dragonball evolution**
16:45 (zapatuan eta domekan).

**Monstruos contra alienígenas**
15:45 (zapatuan eta domekan), 17:45.

**Al final del camino**
19:45, 21:45, 23:45.

**Fighting: puños de asfalto**
16:10 (zapatuan eta domekan), 18:15, 20:20, 22:25, 00:30.

**Ponyo en el acantilado**
16:00 (zapatuan eta domekan), 18:00.

**La montaña embrujada**
16:15 (zapatuan eta domekan), 18:15.

**Gran Torino**
19:55, 22:05, 00:15.

**La sombra del poder**
19:15, 21:45, 00:15.

**Slumdog millionaire**
20:10, 22:20, 00:30.

**Más allá de los sueños**
16:20 (zapatuan eta domekan).

Maiatzaren 15etik 21era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.

### ÁBACO BOULEVARD

**Ángeles y demonios**
16:30, 17:00, 19:20, 19:45, 22:15, 22:30, 01:00.

**Star Trek**
17:00; 19:40, 22:15, 00:45.

**Vamos a la luna**
16:15, 18:10.

**Gran Torino**
20:20, 22:35, 01:00.

**Fuga de cerebros**
16:05, 18:10, 20:15, 22:25, 00:45.

**Nunca es tarde para enamorarse**
20:20, 22:20, 00:30.

**Fighting: puños de asfalto**
16:05, 18:20, 20:30, 22:40.

**X-Men orígenes: lobezno**
16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**La montaña embrujada**
16:00, 18:05.

**17 otra vez**
16:15, 18:15.

**Hanna Montana: la película**
16:00, 16:15, 18:00, 18:20, 20:10, 20:30, 22:15, 22:40, 00:30.

**Monstruos contra alienígenas**
16:10, 18:10.

**La sombra del poder**
20:10,, 22:35, 01:00.

**Señales del futuro**
20:10, 22:40.

Maiatzaren 15etik 21era. Gauerdiko emanaldiak egubakoitz eta zapatuan.



**Lejos de la tierra quemada** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Guillermo Arriaga. Aktoreak: Charlize Theron, Kim Basinger, Jennifer Lawrence.
Alejandro Gonzalez Iñarrituren (Amores perros, Babel) gidoigile izandako Guillermo Arriagaren lehenbiziko filma. Jatetxe bateko gerentea da Sylvia (Charlize Theron), lanean eta bizitzan bi aurpegi erakusten dituena. Goiz ala berandu bere iraganari aurre egin beharko dio...

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**El intercambio** ****
AEB, 2008. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Los Angelesen, 1928an girotutako filma. Langileak nagusi diren auzo baten ezkongabeko ama batek, Christine Collinsek, 9 urteko semea agurtuko du zapatu goiz argitsu baten, lanera joan aurretik... Hortik aurrera erabat aldatuko da Christine Collinsen bizitza... Benetako gertakarietan oinarrituta.

**25 kilates**
Espainia, 2008. Zuzendaria: Patxi Amezkua.
Zorrak ordaindu ez dituztenei kobratzen egiten du lan Abelek; autoak lapurtzen ibiltzen da Kay; haren aita Sebasek lapurtutako gauzak erosten ditu; Garro lapurreten aurkako brigadako inspektorea da... Azken kolpearen zain daude denak.

**El curioso caso de Benjamin Button** *****
AEB, 2008.
Zuzendaria: David Fincher. .
David Fincher zuzendariaren (*Zodiac*) azken lana Oscarretako galtzaileetako bat izan genuen, bigarren mailako hiru saririkin konformatu behar izan zen-eta. Benjamin Button (Brad Pitt) 80 urterekin jaioko da eta urteak atzetik aurrera beteko ditu...

**The reader**
AEB, 2009. Zuzendaria: Stephen Daldry.
Michael Berg 15 urteko gaztea gaixotu egingo da etxetik eskolarako bidean, eta Hanna Schmitz emakumeak jasoko du. Haien artean pasiozko harreman bat piztuko da, Hanna desagertzen den arte... Nazien eskuetan eroriko da Hanna. Oscar saria Kate Winslet protagonistarendako.

**Gran Torino** ****
AEB, 2009. Zuzendaria: Clint Eastwood.
Walt Kowalski Koreako gerrako soldadu ohi bat da. Egun batean deskubrituko du bere altxor preziatuena lapurtu nahi diola Asiako jatorriko bizilagun nerabe batek: 1972ko Gran Torino autoa. Arrazismoaren inguruko drama.

**Ponyo en el acantilado**
Japonia, 2007. Zuzendaria: Hayao Miyazaki.
Sasuke bost urteko umearen eta Ponyo arrainaren arteko harremana kontatzen du Hayao Miyazakiren (*El viaje de Chihiro*) marrazki bizidunetako film honek. Gizaki bihurtzea da Ponyoren ametsa...

## nire aukera



**Miren Urkiola**
Oñati Irratiko arduraduna

## Seme-alaben jardueren menpe

Astelehenean 18 urte bete zituen Oñati Irratiak. Hasieratik bertan dabil lanean Miren Urkiola ordiziar-oñatiarra, dagoeneko Oñatiko euskara bereganatu duena. Hiru seme-alaba dauzkate eta haien kirol jardueren menpe antolatzen du Mirenek aste bukaera: "Hori bai, zapatuko eta domekako siesta lege da niretako...".

Mendira joateko alferra dela aitortzen digu, baina ahal duenetan paseatzera joatea atsegin du. Zinemara joateko senarrarekin txandaka ibiltzen dela dio. Udako oporrak antolatzeko tartetxoa hartu nahi du aste bukaeran.

**Seme-alabek agintzen dute asteburuan orduan...**
Bai, plan askorik egiteko aukerarik ez dugu; zapatu eta domeka goizak seme-alaben kirol jardueretan ematen ditut, entrenatzaile, animatzaile... Alabak (9 urte) eta seme nagusiak (11) futbola daukate asteburuan. Aukera badaukat, zapatu arratsaldean korrika egitera edo paseatzera aterako naiz eta eguraldi txarra egiten badu, igerilekura, ziurrenik, alaba txikiarekin (6 urte).

**Paseatzeko toki bat?**
Oñatiko auzoetan ibiltzea gustatzen zait, batez ere Murgixatik Olabarrietako buelta egitea. Pena daukat kukua ez dudala entzun aurten, gutxi ibiltzen naizen seinale...

**Eta udako oporretan nora joan erabaki duzue, ala?**
Urrun joatea ez dut atsegin... Leku txiki eta lasai batera joango gara: eguraldi ona ziurtatuta eta bainulekuren bat daukan herri txikiren batera...

**Zer ari zara irakurtzen?**
*Mendaroko txokolatea*, Iñaki Irasizabalena.

**Gozozalea, ala?**
Ez ba! Ez dauka txokolatearekin zerikusirik, hilketa bat tartean duen eleberria da. Bukatzen nabil eta txokolatearen arrastorik ez, oraingoz...

**Edu Mendibil**

# Hurrengoan izango da, Athletic

**TABERNETAN** Partidua etxean ikustea baino, zaleek gurago izan zuten tabernetan jarraitzea

**PANTAILA ERRALDOIAN** Eskoriatzako plazan neska-mutiko mordoa batu ziren partidua ikusteko


**ESKORIATZAKO PLAZAN** Athleticeko eta Bartzelonako zale eskoriatzarrak plazan elkartu ziren partidua ikusteko. XABIER URTZELAI

**XABIER URTZELAI** > ESKORIATZA

Antton Elortza oñatiarrak garbi esan zuen partidua hasi baino minutu batzuk lehenago GOITBko *Magazinea*-n, Valentziatik: "Partidua irabazten badugu gabarra hartu eta Ebron gora joanda itzuliko gara etxera". Bada, autoz egin behar izan zuten bidaia, gabarra ahaztuta. Debagoienean etxean baino gurago izan genuen partidua tabernetan eta elkarteetan jarraitu. Seguru Athleticeko zale asko batu ziren Bergarako Toki Ona bodegoia eta Elgetako bolatokia gura baino lehenago itxi zituztela, Eskoriatzako plaza ere partidua amaitu eta berehala geratu zen-eta hutsik. Asko izan ziren partidua ikustera plazako pantaila erraldoira jaitsi zirenak, gehienak gazteak, euren taldeen elastikoekin, eta aurpegiak margotuta.

**UNE GOGOANGARRIAK**

Bartzelonaren kontrako finala galduta ere (TV3 telebista katean Athletic 4 Bartzelona 1 irakur zitekeen), partiduan une gogoangarriak bizi izan zituzten Athleticeko zaleek: "Bertan geratu behar naiz, seko", zioen mezua jaso nuen sakelakoan, Mestallako harmailetan zegoen koadrilako *Txori*-k bidalita. Bestalde, Oñatiko koadrila ederra azaltzen zen atzo *Deia*-ren azalean, beste milaka zalerekin batera ateratako erretratu ikusgarrian; gauzak diren moduan, Athleticeko zaleek jarri zioten finalari kolorea.

Athletic taldeari ihes egin zion kopak, bai, baina lanpostua galdu duenik ere izan da, Espainiako ereserkia ez eskaintzeagatik –Errege Koparen finalean, barkaezina–. Bitartean, ea gainontzekooi egunotako enpatxu zuri-gorria pasatzen zaigun. Hurrengoan izango da, Athletic.

## ahobero

### "Ez diot nire semeari bularrik ematen, nire titiak sexurako baino ez direlako"

**Nicola McLean** > Modeloa

*Amaren bularra haurraren janari*, dio kantuak, baina modelo horren umeak kantu baino gehiago negar egingo du goseak egon eta amak beretik ematen ez dionean. Hainbatek pentsa lezake hori, baina jendaurrean batere pentsatu gabe esatea ere... Esnerik ez, baina neurona askorik ere ez du galduko.

## iturri onetik

### Nora Urkia arropa diseinatzaile bergararra, CreaModa lehiaketan irabazle

Joan den eguenetik domekara bitartean BEC esparruan egindako Expovacaciones azokan Crea Moda lehiaketa egin zuten eta ibarreko hainbat diseinatzailek hartu zuten parte arropak aurkeztuz. Desfileen ostean Nora Urkia diseinatzaile bergararra aukeratu dute irabazle, emakumezkoendako arropen sailean, *Urban Safari* bildumarengatik. Hain zuzen ere, 5.000 euroko saria eskuratu du.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Bat eta lau

Harriduraz bizi izan dut Bizkaian sortu den giroa, Athleticen finala zela eta. Futbol kontutan ere laikoa naiz, eta erlijio bihurtzen denean oso aparte uzten nau. Oraingoan mirari nagusia ez da gertatu, baina apuntatu ditut albo-adierazpen batzuk.

Belaunaldi berri batek deskubritu egin du futbola erlijio gisa, aspaldiko urteetan ez baitute euskal taldeek aukerarik eman. Adin batetik beherakoak bataiatu egin dira eta gurasoekin batera murgildu mozkorraldi kolektiboan. Bestalde, apenas ikusi dudan ikurrinik bandera zuri-gorrien artean. Eta adina badut gogoratzeko lehen beti binaka ibiltzen zirela horrelakoetan.

Azkenik, egia izango da diotena: athleticzaleak ganorazko kolektiboa direla, taldearekin sutsu eta aurkariarekin adeitsu.

## ai, ene!



### Eraztun gainean koaderno txikia?

Nori ez zaio gertatu inoiz kalean ohartxo bat apuntatu nahi eta paper faltan egotea? Eraztun horrekin, arazoa konponduta.

www.taringa.net

